**ORGANOA:** Udalbatzar Txit Garaia
**ÓRGANO:** Excmo. Ayuntamiento Pleno

**BATZARRALDIA:** Ohikoa
**SESIÓN:** Ordinaria

**TOKIA:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
**LUGAR:** Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**EGUNA:** 2017ko apirilak 27
**FECHA:** 27 de abril de 2017

**HASIERA ORDUA:** 09:30
**HORA DE COMIENZO**: 09:30

**LEHENDAKARIA:** Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea.
**PRESIDE:** Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Doña Miren Azkarate Villar andrea
Doña Duñike Agirrezabalaga Ugarte andrea
Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores concejales/as:

Doña Pilar Arana Pérez andrea
Don Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jauna
Doña Aitziber San Román Abete andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Doña María Jesús Celaya Egiguren andrea
Don Jon Insausti Maisterrena jauna
Don Enrique José Ramos Vispo jauna
Don Miguel Ángel Díez Bustos jauna
Doña María Luisa del Pilar García Gurruchaga andrea
Don Alfonso Gurpegui Ruiz jauna
Doña Begoña Palos Barbero
Doña Miren Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andrea
Don Josu Mirena Ruiz Martín jauna
Doña Naiara Sampedro Pérez andrea

Don Axier Jaka Goikoetxea jauna
Doña Olaia Duarte López andrea
Don Ricardo Burutarán Ferré jauna
Doña Miren Albistur Garmendia andrea
Don José Luis Arrúe Pintó jauna
Don José María Murguiondo Casal jauna
Doña Amaia Martín Garín andrea
Don Loïc Alejandro jauna

**EZ DA ETORRI:** Ondorengo Alkateorde jauna:
**NO ASISTE:** El señor Teniente de Alcalde:

Don Ernesto José Gasco Gonzalo jauna

**IDAZKARIA:** Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.
**SECRETARIO:** Don Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Secretario General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

**KONTU-HARTZAILEA:** Julian Ortiz Arruabarrena jauna, Udal Kontuhartzaile Nagusia.
**INTERVENTOR:** Don Julián Ortiz Arruabarrena, Interventor General Municipal.

---------------


| **LABURPENA** | **Zk/ N.º** | **SUMARIO** | **Pág / Orr.** |
|---|---|---|---|
| 2017ko martxoaren 30ean izandako bileraren akta onartzea, ontzat joz gero. | 1 | Aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el 30 de marzo de 2017. | 6 |
| Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea. | 2 | Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces. | 6 |
| **ERABAKI ZATIA** | **I** | **PARTE RESOLUTIVA** | |
| **LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO** | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Atotxa Erreka AÑ.01 Hirigintza eremuko a.500.28 eta a.500.29 lursailen xehetasun azterlanari behin betiko onarpena ematea. | 3 | Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de las parcelas a.500.28 y a.500.29 del ámbito urbanístico AÑ.01 Atotxa Erreka. | 7 |
| Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa AU.AL 17 Esnabide alorrera. Behin-behineko onarpena. | 4 | Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana referida al AU.AL.17 Esnabide. Aprobación Provisional. | 9 |
| AU “CE.05 San Bartolome” Hiri Antolamendurako Plan Berezia. Erreforma zehatzak. Testu Bateratua. Behin betiko onarpena. | 5 | Texto refundido del Plan Especial de Reforma Urbana referido a reformas puntuales en el AU “CE.05 San Bartolomé”. Aprobación Definitiva. | 10 |
| **ZERBITZU OROKORRETAKO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES** | |
| Udalaren Informatika Zentroaren izena aldatzea (Estatutuak aldatzea). | 6 | Modificación de la denominación del Centro Informático Municipal (Modificación de los Estatutos). | 13 |
| Datu pertsonalen fitxategiak sortzea, aldatzea eta ezabatzea. | 7 | Creación, modificación y supresión de ficheros de datos personales. | 16 |
| **OGASUN BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE HACIENDA** | |
| Udal Zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak. | 8 | Precios Públicos por la prestación de servicios o realización de actividades. | 19 |
| **PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO BATZORDEA** | | **COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS** | |
| Proposamena, Ministroen Kontseiluak zezenketen gaineko galdeketaz hartutako erabakiaren kontra ekintzak egiteko Udalbatzak erabakia hartzekoa. | 9 | Propuesta de acuerdo plenario de ejercicio de acciones contra acuerdo del Consejo de Ministros sobre consulta toros. | 22 |
| **GUNE PUBLIKOEN BATZORDEA, OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK** | | **COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS** | |
| Proposamena, EH BILDU taldeak aurkeztua, hiriko gune eta zerbitzu publikoen irisgarritasun unibertsala aztertu eta haien gaineko proposamenak egiteko batzorde ez-iraunkorra sortzeari buruzkoa. | 10 | Proposición, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la creación de una Comisión No Permanente para estudiar la accesibilidad universal de zonas de la ciudad y servicios públicos y sus | 24 |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | propuestas realizadas. | |
| **KONTRATAZIOAREN KONTROLERAKO ETA JARRAIPENERAKO BATZORDE BEREZIA** | | **COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN** | |
| 2016. urteko Memoriaren berri ematea. | 11 | Dar cuenta de la Memoria del ejercicio 2016. | 26 |
| **IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA** | | **COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES** | |
| 2016. urteko Memoriaren berri ematea. | 12 | Dar cuenta de la Memoria del ejercicio 2016. | 28 |
| **INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA** | **II** | **INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL** | |
| **INTERPELAZIOAK** | | **INTERPELACIONES** | |
| Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Etxegintzaren kudeatzaileek bertan behera utzi dutelako gela-eskubidea izatea erakunde horrek kudeatzen dituen adinekoentzako aldi baterako apartamentuetara sartzeko moduetako bat. | 13 | Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la suspensión, por parte de la gerencia de Donostiako Etxegintza, del derecho de habitación como forma de acceso a los apartamentos transitorios para personas mayores que gestiona la entidad. | 30 |
| **MOZIOAK** | **II.2** | **MOCIONES** | |
| **MOZIO ARRUNTAK** | **II.2.1** | **MOCIONES ORDINARIAS** | |
| Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Miramar jauregiari buruzkoa. | 14 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el Palacio Miramar. | 33 |
| Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Oleta ibarra berrurbanizatzea dela-eta. | 15 | Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre la reurbanización de la vaguada de Oleta. | 44 |
| **KONTROL MOZIOAK** | **II.2.2** | **MOCIONES DE CONTROL** | 46 |


---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OSOKO BILKURA OHIKOA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA / SAN**

SEBASTIÁN.

--------------

GAI ZERRENDAKO AZTERGAIAK BOZKATZERAKOAN FALTA ZIREN ZINEGOTZIAK:

AUSENCIAS DE LOS SRES. CORPORATIVOS A LA VOTACIÓN DE LOS DIFERENTES PUNTOS DEL ORDEN DEL DÍA:

- OLAIA DUARTE LOPEZ ANDREA (EH BILDU), 8. GAIAREN BOZKETAN.

- Dª. OLAIA DUARTE LOPEZ (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 8.

- MIREN ALBISTUR GARMENDIA ANDREA (PP), 10. GAIAREN BOZKETAN.

- Dª. MIREN ALBISTUR GARMENDIA (PP), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 10.

- JAIME DOMINGUEZ-MACAYA LAURNAGA (EAJ-PNV), 15. GAIAREN BOZKETAN ETA 1.GO, 7., 8., 10., 11., 12., 13. ETA 26. KONTROL MOZIOEN BOZKETAN.

- D. JAIME DOMÍNGUEZ-MACAYA LAURNAGA (EAJ-PNV), EN LA VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 15 Y DE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 1, N.º 7, N.º 8, N.º 10, N.º 11, N.º 12, N.º 13 Y N.º 26.

- NAIARA SAMPEDRO PEREZ ANDREA (EH BILDU), 1.GO KONTROL MOZIOAREN LEHENENGO PUNTUAREN ETA 20. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.

- Dª. NAIARA SAMPEDRO PÉREZ (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DEL PRIMER PUNTO DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1 Y EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20.

- RICARDO BURUTARAN FERRE JAUNA (EH BILDU), 10., 17., 20. ETA 24. KONTROL MOZIOEN BOZKETAN.

- D. RICARDO BURUTARÁN FERRÉ (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 10, N.º 17, Nº. 20 Y N.º 24.

- AITZIBER SAN ROMAN ABETE ANDREA (EAJ-PNV), 11., 12., 13., 14., 15., 16. ETA 17. KONTROL MOZIOEN BOZKETAN.

- Dª. AITZIBER SAN ROMÁN ABETE (EAJ-PNV), EN LA VOTACIÓN DE LAS MOCIONES DE CONTROL N.º 11, N.º 12, N.º 13, N.º 14, N.º 15, N.º 16 Y N.º 17.

- JOSU RUIZ MARTIN JAUNA (EH BILDU), 22. KONTROL MOZIOAREN BOZKETAN.

- D. JOSU RUIZ MARTÍN (EH BILDU), EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 22.

- JOSE LUIS ARRUE PINTO JAUNA (PP), EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE

- D. JOSE LUIS ARRÚE PINTÓ (PP), EN LA VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º

**CONTROL N.º 31.**

**31.**

--------------

Alkate-Udalburuak parte hartu du, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene el señor Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

--------------

**1. 2017ko martxoaren 30ean izandako bileraren akta onartzea, ontzat joz gero.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**1. Aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el 30 de marzo de 2017.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

--------------

**2. Bozeramaileen Batzordean onartutako erakunde adierazpenen berri ematea.**

“Udalbatzari:

2017ko apirilaren 25an Bozeramaileen Batzordean onartutako Erakunde Adierazpenen berri ematen zaio:

Erakunde adierazpena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Ongi Etorri Gernika 2017 dela eta. PUNTUKA BOZKATU DA:

1. 2. eta 3. PUNTUAK: Aho batez onartu dituzte.

Erakunde adierazpena, IRABAZI Taldeak aurkeztua, apirilaren 14 II. Errepublika

**2. Dar cuenta de las Declaraciones Institucionales aprobadas en la Junta de Portavoces.**

“Al Ayuntamiento Pleno se da cuenta de:

Declaraciones Institucionales aprobadas en Junta de Portavoces de fecha 25 de abril de 2017:

Declaración Institucional presentada por el Grupo EH BILDU relativa a Ongi Etorri Gernika 2017. VOTACIÓN POR PUNTOS:

- PUNTOS nº1, nº2 y nº3: Aprobados por unanimidad.

Declaración Institucional presentada por el Grupo IRABAZI, sobre la conmemoración del 14 de abril,

aldarrikatu zen eguna dela eta.

PUNTUKA BOZKATU DA:

3. PUNTUA: Aho batez onartua.

proclamación de la II República.

VOTACIÓN POR PUNTOS:

- Punto nº3: Aprobado por unanimidad.

Donostian, 2017ko apirilaren 25an

IDAZKARI NAGUSIA
SECRETARIO GENERAL
Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

--------------

**I**

**ERABAKI ZATIA**

**LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEA**

**I**

**PARTE RESOLUTIVA**

**COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO**

**3. Atotxa Erreka AÑ.01 Hirigintza eremuko a.500.28 eta a.500.29 lursailen xehetasun azterlanari behin betiko onarpena ematea.**

"ATOTXA ERREKA AÑ.01 HIRIGINTZA EREMUKO a.500.28. ETA a.500.29. LURSAILEN XEHETASUN AZTERLANARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA.

Gobernu Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 24ean izan zuen bileran, hasierako onarpena ematea erabaki zuen Atotxa Erreka AÑ.01 hirigintza eremuko a.500.28 eta a.500.29 lursailen gaineko xehetasun azterlanari.

Azterlan horren helburua Atotxa Erreka AÑ.01

**3. Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de las parcelas a.500.28 y a.500.29 del ámbito urbanístico AÑ.01 Atotxa Erreka.**

"APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE DE LAS PARCELAS a.500.28 y a.500.29 DEL AMBITO URBANÍSTICOS AÑ.01 ATOTXA ERREKA.

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 24 de enero de 2017, acordó aprobar inicialmente el "Estudio de Detalle de las parcelas a.500.28 y a.500.29 del AU AÑ.01 Atotxa Erreka (Añorga)".

El objeto del Estudio de Detalle es la agrupación

hirigintza eremuko a.500.28 eta a.500.29 lursailak batu eta beste lursail bat eratzea da, a.40.28 lursaila.

de las parcelas a.500.28 y a.500.29 del AU AÑ.01 Atotxa Erreka, configurándose una nueva parcela, denominada a.40.28.

Era berean, lursail berriaren lerrokadurak eta sestrak ere zehaztu ditu azterlan horrek, eta familia batentzako moduko zazpi etxebizitza elkarren pegante egitea ere badakar.

El Estudio de Detalle determina las alineaciones y rasantes de la nueva parcela resultante, previendo la construcción de siete viviendas unifamiliares adosadas.

Hala, espedientea ikusgai jarrita eduki da, eta legeak alegazioak egiteko jartzen duen denboran ez da batere izan.

Habiéndose sometido el expediente a información pública, no se han formulado alegaciones en el plazo legalmente establecido.

Testu bateratua ere aurkeztu da, hasierako onarpena emateko erabakian ezarritako baldintzak biltzen dituena.

Se ha presentado el Texto Refundido que recoge las condiciones impuestas en el acuerdo de aprobación inicial.

Udalaren zerbitzu teknikoek dokumentu horren aldeko txostena egin dute.

Dicho documento ha sido informado favorablemente por los Servicios Técnicos Municipales.

Horrenbestez, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 98 artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta behin betiko onarpena ematea dagokio.

Procede, en consecuencia y de conformidad con lo establecido en el Artículo 98 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, su aprobación definitiva.

Hori dela eta, Udalbatzak

En base a lo anteriormente expuesto, el Ayuntamiento Pleno

E R A B A K I  D U

A C U E R D A

1.- Behin betiko onarpena ematea Atotxa Erreka AÑ.01 hirigintza eremuko a.500.28 eta a.500.29 lursailen gaineko xehetasun azterlanari. (2017ko otsailako bigarren Testu Bateratua).

1º.- Aprobar definitivamente el “Estudio de Detalle de las parcelas a.500.28 y a.500.29 del AU AÑ.01 Atotxa Erreka (Añorga)”, Texto Refundido Segundo de fecha Febrero de 2017).

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, onartutako dokumentuak dakartzan xedapen arautzaileak ere erantsita.

2º.- Proceder a la publicación del presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, incluyendo las determinaciones normativas del documento aprobado.

Donostia, 2017ko martxoaren 20a

Donostia / San Sebastián, 20 de marzo de 2017

PROIEKTU ESTRATEGIKOEN LEGE AHOLKULARIA /

ASESOR JURÍDICO DE PROYECTOS ESTRATÉGICOS
Carlos Azcoaga Mendizabal

HIRIGINTZAKO ZUZENDARIA / EL DIRECTOR DE URBANISMO
Juan Carlos Cuevas Argandoña

O.E.:/ Vº Bº
HIRIGINTZA SOSTENGAGARRIKO, ETXEBIZITZAKO ETA
HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA /
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE,
VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD
Enrique José Ramos Vispo".

Eztabaida hasita, Enrique Ramos Vispo jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Enrique Ramos Vispo, D. Loïc Alejandro y D. Ricardo Burutarán Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**4. Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa AU.AL 17 Esnabide alorrera. Behin-behineko onarpena.**

**4. Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana referida al AU.AL.17 Esnabide. Aprobación Provisional.**

**KENDUA.**

**RETIRADO.**

---------------

**5. AU "CE.05 San Bartolome" Hiri Antolamendurako Plan Berezia. Erreforma zehatzak. Testu Bateratua. Behin betiko onarpena.**

"BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA DONOSTIAKO "CE.05 SAN BARTOLOME" HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA, ERREFORMA ZEHATZAK TESTU BATERATUARI

2016.ko abuztuaren 11an, 3900 sarrera erregistroarekin, Martín Arregi San Miguel, San Bartolomé Muinoa, S.A.ren izen eta ordezkaritzan, bere izapide eta onarpenerako "CE.05 SAN BARTOLOME" Hiri Antolamendurako Plan Berezia, Erreforma Zehartzak, aurkezten du.

Planaren xedea antolamendu xehatuko zehaztapenak aldaketak egitea da, horiek horrela: Arroka bide berria, "a.30.8" Bizitegi Partzela, "b.201" hotel partzela, "a.30.13" bizitegi partzela, lerrokadura maximoak, ibilgailuentzat sarbideak partzela batzuetan, oinezkoen sestrapeko sarbide batzuk,...

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016.ko azaroaren 2an honako akordio hau hartu zuen:

1.- Hasierako onarpena ematea "CE.05 SAN BARTOLOME" Hiri Antolamendurako Plan Bereziari, Erreforma Zehartzak.

Behin betiko onarpenari dagokionez espedientean dauden txostenetan ezarritako baldintzak beteko dituen testu berri bat ekarri beharko da.

2.- Hogei egunean jendaurrera aterata edukitzea espedientea.

**5. Texto refundido del Plan Especial de Reforma Urbana referido a reformas puntuales en el AU "CE.05 San Bartolomé". Aprobación Definitiva.**

"APROBACIÓN DEFINITIVA DEL TEXTO REFUNDIDO DEL PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA REFERIDO A REFORMAS PUNTUALES EN EL AU "CE.05 SAN BARTOLOMÉ"

El 11 de agosto de 2016, con registro de entrada 3900, Martín Arregi San Miguel, en nombre y representación de San Bartolomé Muinoa, S.A. presenta para su tramitación y aprobación el Plan Especial de Ordenación Urbana referido a reformas puntuales en el AU "CE.05 SAN BARTOLOMÉ".

El objetivo del Plan es realizar ajustes en la ordenación pormenorizada, concretamente: nuevo vial Arroka, parcela residencial "a.30.8", Parcela hotelera "b.20.1", "parcela residencial "a.30.13", alineaciones máximas, accesos rodados a diversas parcelas, acceso peatonal bajo rasante a algunas parcelas,....

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 2 de noviembre de 2016, adoptó el siguiente acuerdo:

1º.- Aprobar con carácter inicial el Plan Especial de Ordenación Urbana referido a reformas puntuales en el AU "CE.05 SAN BARTOLOMÉ"

Antes de la aprobación definitiva deberán de traer un nuevo texto que contenga las condiciones impuestas en los informes obrantes en el expediente.

2º.- Someter el expediente al trámite de información pública durante el plazo de veinte días.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean, alegazio bat aurkeztu da: Mª Jesús Eizaguirre.

Durante el plazo de exposición pública se ha presentado una alegación por parte de Mª Jesús Eizaguirre.

Pertsona honek urtarrilaren 24an aurkeztutako alegazioa epez kanpo izan da.

La alegación presentada por esta misma persona el 24 de enero de 2017 está fuera de plazo.

Aipatuko alegazioa Arroka Kaleko 3. dagoen higiezin bateri buruz da, "a.21.19" partzelaren barruan dagoena. Alegazioan partzela horretan kalte batzuk sortu direla azpimarratzen da. Baita ere, Arrokako bide berriaren marrazkiari buruz hitzegiten du.

La citada alegación versa sobre el inmueble situado en la Calle Arroka nº 3 dentro de la parcela "a.21.19". Alegan que es una parcela consolidada afectada por daños que detalla en la alegación, también habla sobre el trazado del nuevo vial de Arroka.

Eragilearen txostenaz gain alegazioa ez onartzea proposatuz, honako txosten hauek idatzi dira:

Además del informe del promotor proponiendo la desestimación, sobre esta alegación se han redactado los siguientes informes:

* Ingenieria: 2017/3/15: alegazioa ez onartzea proposatzen du.

*Ingeniero: 15/3/2017, propone desestimar la alegación.

*Juridikoa: 2017/3/22: alegazioa ez onartzea proposatzen du.

*Jurídico: 22/3/2017, propone desestimar las alegaciones.

Beraz, aurkeztutako alegazioak ez dira onartzen. Motibazio modura espedientean dauden txostenak balio dute, txosten hauek akordio honen jakinarazpenarekin batera igorriko dira.

Por tanto, se desestiman las alegaciones presentadas. Sirva de motivación los informes obrantes en el expediente, que se adjuntarán a la alegante junto a la notificación del presente acuerdo.

Bestalde, 2017.ko urtarrilaren 19an behin betiko onarpenerako Testu Bateratu bat aurkeztu da, honako txosten hauek idatziz:

Por otra parte, el 19 de enero de 2017 se presenta un Texto Refundido para su aprobación definitiva, recabándose los siguientes informes:

*Juridiko: 2017.ko otsailaren 27an, aldekoa.

Jurídico: 27 de febrero de 2017, favorable.

*Ingenieria: 2017.ko urtarrilaren 30an, aldekoa.

*Ingeniero: 30 de enero de 2017, favorable.

*Ekonomikoa: 2017.ko martxoaren 10an, aldekoa.

*Económico: 10 de marzo de 2017, favorable.

*Arkitektua: 2017.ko martxoaren 15an, aldekoa.

*Arquitecto: 15 de marzo de 2017 favorable.

Horren ondorioz, Testu Bateratuak, edukiaren aldetik, bere behin betiko onarpenerako behar

Por tanto, el Texto Refundido, desde el punto de vista de contenido, cuenta con todos lo informes

diren aldeko txosten guztiak ditu.

favorables necesarios para su aprobación definitiva.

Aurrekoagatik guztiagatik, eta Toki Araubidearen Oinarrien gaineko 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartuta, Donostiako udalbatzak

Visto cuanto antecede y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 i) de la ley 7/85 de 2 de Abril, reguladora de las Bases del régimen Local, el Pleno del Ayuntamiento de san Sebastián

E R A B A K I   D U

A C U E R D A

1.- Jendaurrean egindako epean aurkeztutako alegazioak ez onartzea.

1º.- Desestimar las alegaciones formuladas durante el plazo de exposición pública.

2.- Behin betiko onarpena ematea “CE.05 SAN BARTOLOME” Hiri Antolamendurako Plan Bereziari, Erreforma Zehatzak honako baldintza honekin: a.30.14 partzelaren garajearen eta Aldapeta Kalearen arteko oinezko ibilbidea jabetza pribatukoa izatea. Akordio honen publikazioa baino lehen, dagozkion planuak aldatu beharko lirateke.

2º.- Aprobar con carácter definitivo el Texto Refundido del Plan Especial de Ordenación Urbana referido a reformas puntuales en el AU “CE.05 SAN BARTOLOMÉ”, con la condición de que el suelo correspondiente al paso peatonal entre el garaje de la parcela a.30.14 y la acera de la Calle Aldapeta pase a ser de dominio privado. Antes de la publicación de este acuerdo, deberán de modificarse los planos correspondientes.

3- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena aintzakotzat hartu eta Planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

3º.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del plan.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2017ko apirilaren 3an.

Lo proponen para su adopción por el Pleno en San Sebastián a 3 de abril de 2017.

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU, EXEKUZIOKO ETA BIRGAIKUNTZA ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN, EJECUCIÓN Y REHABILITACIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: P.A. Juan María Etxeberria Urreta

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO, ETXEBIZITZAKO ETA HIRI PROIEKTUETAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE, VIVIENDA Y PROYECTOS DE CIUDAD
Sin. / Fdo.: Enrique Ramos Vispo”.

Eztabaida hasita, Enrique Ramos Vispo jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Enrique Ramos Vispo, D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutarán Ferré y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK 5. GAIARI AURKEZTUTAKO BOST ZUZENKETEN BOZKETA / VOTACIÓN DE LAS CINCO ENMIENDAS AL ASUNTO N.º 5 PRESENTADAS POR EL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**5. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

## ZERBITZU OROKORRETAKO BATZORDEA

**6. Udalaren Informatika Zentroaren izena aldatzea (Estatutuak aldatzea).**

## COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES

**6. Modificación de la denominación del Centro Informático Municipal (Modificación**

**de los Estatutos).**

“UDALBATZARI:

Udal Informatika Zentroko lehendakariak, 2017ko urtarrilaren 17ko ebazpenaren bidez, Udal Informatika Zentroaren 2017-2019 aldirako plan estrategikoa onartu zuen, UIZren Estatutuetako 10.2 d) artikuluak ematen dion eskumenak erabiliz.

UIZko kudeatzaileak eta lehendakariordeak 2016ko abenduaren 15eko Artezkaritza Kontseiluan azaldu zieten plan estrategiko hori UIZko kontseilariei, haren berri izan zezaten eta haren gaineko iritzia eman zezaten.

Aipatutako Planean bira handia planteatzen da ikuspegiaren kontzeptuan.

Gure ustez, eta gure irudia berritzeko aukera mesedegarriaren ildotik, une aproposa dirudi “donostiarrei eta Udal osoari zerbitzatzeko bokazioa” ikuspegi horren erdigunean kokatzeko.

Definizio honen arira, Udal Informatika Zentroaren izena aldatzeari ekingo zaio. Izen berria DonostiaTIK da.

IKUSPEGIA:

DonostiaTIK, informazioaren eta komunikazioaren teknologien zentroa, teknologia garapena, azpiegiturak eta Udal Administrazio osoari eta donostiarrei oro har ematen zaien zerbitzua biltzen dituena, eta udalaren berrikuntzaren eragile bilakatzen dena.

Ikuspegi berri hori dela eta, “birmoldatu” egin behar da IKT zerbitzuen kudeaketa, eta koordinazioa antolaketa eta prozedura

“AL AYUNTAMIENTO PLENO:

El Presidente del Centro Informático Municipal aprobó el Plan Estratégico del Centro Informático Municipal para el periodo 2017-2019 mediante resolución de fecha 17 de enero de 2017, en virtud de la competencia que se le atribuye en el art. 10.2 d) de los Estatutos del CIM.

El Plan Estratégico fue expuesto por el Gerente y el Vicepresidente del CIM a los consejeros del CIM en Consejo Rector de fecha 15 de diciembre de 2016, a fin de que los consejeros conocieran dicho Plan y pudieran posicionarse respecto del mismo.

En el citado Plan, se plantea un giro importante en el concepto de visión.

En línea con la beneficiosa posibilidad de renovar nuestra imagen, parece el momento adecuado para colocar “a la ciudadanía donostiarra y al servicio que presta en conjunto el Ayuntamiento” en el centro de esta visión.

Con esta definición, se incorpora la nueva denominación del Centro Informático Municipal: “DonostiaTIK”.

VISIÓN:

DonostiaTIK, centro de las tecnologías de la información y las comunicaciones que aglutina el desarrollo tecnológico, las infraestructuras y el servicio al conjunto de la Administración Municipal y a la ciudadanía donostiarra y que se erige en agente tractor de la innovación municipal.

Este nuevo enfoque obliga a “remodelar” la gestión de los servicios TIC, integrando la coordinación requerida con los aspectos

alderdiekin uztartu; beharrezkoa da zeharkako ikuspegia izatea eta itun bat egitea Lehendakaritza atalarekin, udal estrategiak behar bezala garatzeko.

organizativos y procedimentales; una visión transversal y una requerida alianza con el departamento de Presidencia resultan necesarias para un correcto desarrollo de las estrategias municipales.

Horiek hala direla, erakunde autonomoaren estatutuetako 46. artikulua aplikatuz, erabaki hauek hartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

En base a todo lo que antecede, se propone al Ayuntamiento pleno , en aplicación del art. 46 de los Estatutos del organismo autónomo, la adopción de los siguientes:

E R A B A K I A K

A C U E R D O S

LEHENENGOA.- Onartzea udal erakunde autonomoaren estatutuen izenburua aldatzea. Hemendik aurrera, “DonostiaTIK udal erakunde autonomoaren Estatutuak” izena izango dute.

PRIMERO.- Aprobar la modificación del Título de los Estatutos del Organismo Autónomo Local, el cual pasa a denominarse “Estatutos del organismo autónomo local DonostiaTIK”.

BIGARRENA.- Onartzea Udal Erakunde Autonomoaren Estatutuetako 1.1 artikulua aldatzea. Honela idatzita geratuko da: “DonostiaTIK Donostiako Udalaren erakunde autonomo gisa eratu da, toki araubideari buruzko legediarekin bat”.

SEGUNDO.- Aprobar la modificación del art.1.1 de los Estatutos del Organismo Autónomo Local, cuya nueva redacción es: “ DonostiaTIK se configura como un Organismo Autónomo Local del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, de conformidad con la legislación reguladora del régimen local”.

HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea estatutu aldaketa horiek

TERCERO.- Proceder a la publicación de dichas modificaciones estatutarias en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostian, 2017ko otsailaren 13an
San Sebastián, a 13 de febrero de 2017

UIZKO IDAZKARI TEKNIKOA
LA SECRETARIA TÉCNICA DEL CIM
Izpta: Itziar Telleria Arrieta

UDAL INFORMATIKA ZENTROKO KUDEATZAILEA
EL GERENTE DEL CENTRO INFORMATICO MUNICIPAL
Izpta.: Patxi Ugarte Lecube

UDAL INFORMATIKA ZENTROKO LEHENDAKARIORDEA
EL VICEPRESIDENTE DEL CENTRO INFORMATICO MUNICIPAL
Izpta.: Juan Ramón Viles Mitxelena”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**7. Datu pertsonalen fitxategiak sortzea, aldatzea eta ezabatzea.**

“UDALBATZARI

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. Artikuluak dioenez, Administrazio Publikoen jabego diren datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatu ahal izango dira soil-soilik Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratutako xedapen orokorraren bidez, eta artikulu horretan agertzen da xedapen horren eduki nagusia.

Halaber, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikuluak Datuak Babesteko Erregistroa sortzen du eta bertan inskribatzera behartzen ditu Lege horren aplikazio-eremuko fitxategiak.

Urriaren 18ko 308/2005 Dekretuak 2/2004 Legea garatzen du, eta 2. artikuluak xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraziko dizkiote datu pertsonalen fitxategien sorrera, aldaketa edo ezabaketa oro, Datuak Babesteko Erregistroan inskriba daitezen, xedapena edo erabakia helarazita Bulegoko zuzendariaren 2005eko

**7. Creación, modificación y supresión de ficheros de datos personales.**

“AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

El artículo 20 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, establece que la creación, modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal, de los que sean titulares las Administraciones Públicas, sólo podrán hacerse por medio de disposición general publicada en el “Boletín Oficial del Estado” o Diario Oficial correspondiente, estableciendo dicho artículo el contenido básico de esta disposición.

Asimismo, el artículo 18 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, crea el Registro de Protección de Datos, y establece que serán objeto de inscripción en el mismo los ficheros comprendidos dentro del ámbito de aplicación de dicha Ley.

El Decreto 308/2005, de 18 de octubre, por el que se desarrolla la Ley 2/2004, establece en su artículo 2 que los Entes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco notificarán a la Agencia Vasca de Protección de Datos toda creación, modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal, para su inscripción en el Registro de Protección de Datos, mediante el traslado de

uztailaren 21eko Ebazpenean onartutako eredu normalizatua erabiliz.

la disposición o acuerdo a través del modelo normalizado aprobado por Resolución de 21 de julio de 2005, del Director de la Agencia.

Bestalde, Datu Pertsonalak Babesteko Legea betetzeko, Udal honen titulartasuneko hainbat fitxategi automatizatu sortu, aldatu eta ezabatu ziren, honako agindu hauen bidez: alkatetza dekretua, 1995eko maiatzaren 12koa (122. zenbakiko GAO, 1995eko ekainaren 28koa); alkatetza ebazpena, 1996ko martxoaren 22koa (66. zenbakiko GAO, 1996ko apirilaren 2koa); alkatetza ebazpena, 1996ko maiatzaren 13koa (108. zenbakiko GAO, 1996ko ekainaren 5ekoa); alkatetza ebazpena, 2001eko urtarrilaren 26koa (90. zenbakiko GAO, 2001eko maiatzaren 11koa); alkatetza ebazpena (6. eta 50. zenbakiko GAO, 2003ko urtarrilaren 10ekoa eta 2003ko martxoaren 13koa); alkatetza ebazpena, 2004ko abuztuaren 18koa (163. zenbakiko GAO, 2004ko abuztuaren 25ekoa); Udalbatzaren erabakia, 2007ko maiatzaren 2koa (96. zenbakiko GAO, 2007ko maiatzaren 17koa); Udalbatzaren erabakia, 2010eko urriaren 29koa (31. zenbakiko GAO, 2011ko otsailaren 16koa); eta Udalbatzaren erabakia, 2015eko urtarrilaren 29koa (68. zenbakiko GAO, 2015eko apirilaren 14koa).

Por otra parte, mediante Decreto de Alcaldia, a fecha 12 de Mayo de 1995 (BOG de 28/06/1995, número 122), Resolución de Alcaldía de 22 de Marzo de 1996 (BOG de 2/04/1996, número 66), Resolución de Alcaldía de 13 de Mayo de 1996 (BOG 5/06/1996, número 108), Resolución de Alcaldía de 26 de Enero de 2001 (BOG 11/05/2001, número 90), Resolución de Alcaldía (BOG 10/01/2003 y 12/03/2003, números 6 y 50), Resolución de Alcaldía de 18 de agosto de 2004 (BOG de 25/08/2004, número 163) y Acuerdo del Pleno de 2 de mayo de 2007 (BOG de 17/05/2007, número 96), Acuerdo del Pleno de 29 de octubre de 2010 (BOG de 16/02/2011, número 31) y Acuerdo del Pleno de 29 de enero de 2015 (BOG de 14/04/2015, número 68), a efectos de la LOPD se crearon, modificaron y suprimieron ficheros automatizados de titularidad de este Ayuntamiento.

Arestiko erabakietan adierazitakoa eguneratu ahal izateko, fitxategiak gehitu, aldatu eta ezabatu behar dira, Udaleko administrazioaren egiturak errealitate berrira egokitu daitezen, eta bete dadin legeriak datu pertsonalak babesteari buruz dioena.

Con el fin de actualizar lo indicado en los anteriores acuerdos, es necesario incorporar, modificar y suprimir ficheros, adecuando las estructuras administrativas del Ayuntamiento a la nueva realidad, dando así cumplimiento a lo dispuesto por la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal.

Horretarako, Udalbatzak kudeatuko dituen datu pertsonalen 7 fitxategi sortu behar dira, 92 aldatu eta 12 ezabatu (I, II eta III eranskinetan zehaztutakoarekin bat).

En dicho contexto, es necesario proceder a la creación de 7 ficheros, modificación de 92 ficheros y supresión de 12 Ficheros de Datos de Carácter Personal gestionados por la Corporación Municipal que figuran el los anexos I,II y III.

Horregatik guztiagatik, Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkari honek, Tokiko Gobernu Batzordearen 2015eko ekainaren 19ko erabakiz emandako eskumenak baliatuz, egiten dio Udalbatzari hurrengo proposamena:

ERABAKIAK

Lehenengoa.- Udalak kudeatutako datu pertsonalen fitxategiak erregularizatzea, era honetan:

1. Datu pertsonalen fitxategiak sortuz, I. Eranskineko xehetasunen arabera.

2. Datu pertsonalen fitxategiak ezabatuz, II. Eranskineko xehetasunen arabera.

3. Datu pertsonalen fitxategiak aldatuz, III. Eranskineko xehetasunen arabera.

Bigarrena.- Erabaki hau jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, interesa duen edonork egin ahal izan ditzan egoki jotzen dituen alegazioak eta iradokizunak. Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten, behin betiko onartutzat joko da ordura arte behin-behinekoa den erabakia.

Hirugarrena.- Erabakien berri ematea Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, hango Erregistroan inskriba daitezen.

Por lo expuesto, este Concejal Delegado de Presidencia y Transparencia, Recurso Humanos e Innovación, en virtud de las atribuciones conferidas por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 19 de junio de 2015, propone al Pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

ACUERDOS

Primero.- Regularizar los ficheros de datos de carácter personal gestionados por la Corporación Municipal, mediante:

1. Creación de los ficheros de datos personales, cuyos detalles se recogen en el Anexo I.

2. Supresión de los ficheros de datos personales, cuyos detalles se recogen en el Anexo II

3. Modificación de los ficheros de datos personales, cuyos detalles se recogen en el Anexo III

Segundo.- Someter este acuerdo a información pública, durante un plazo de treinta días, al objeto de que cualquier persona interesada tenga ocasión de formular las alegaciones y sugerencias que estime oportuno. En el caso de que no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobado el acuerdo hasta entonces provisional.

Tercero.- Notificar los acuerdos adoptados a la Agencia Vasca de Protección de Datos, con el fin de incluir su inscripción en el Registro de Protección de Datos de la AVPD.

Donostian, 2017ko martxoaren 29an.

Lehendakaritza Zuzendaria
Edorta Azpiazu Laboa

Lehendakaritzako eta Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkaria

Juan Ramón Viles Mitxelena".

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**OGASUN BATZORDEA**

**COMISIÓN DE HACIENDA**

**8. Udal Zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak.**

**8. Precios Públicos por la prestación de servicios o realización de actividades.**

"UDALBATZARI

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

5. atala aldatzea proposatzen du Euskara Zerbitzuak Zerbitzuak Eman eta Jarduerak Egiteagatiko Prezio Publikoen Eranskinean.

El Servicio de Euskera propone las siguientes modificaciones del apartado 5º del anexo de los Precios Públicos por Prestación de Servicios o Realización de Actividades.

Tarifa egitura aldatu eta beste kategoria bat sortzea guraso bakarreko familientzat, horrelakorik ez zegoelako aurretik, nahiz eta akats baten ondorioz izendapen hori jaso zuten 2017ko prezio publikoen eranskinean, familia ugariekin batera.

Se modifica la estructura tarifaria creando una nueva categoría para familias monoparentales, categoría que no existía anteriormente, aunque por error se incluyó tal denominación junto con las familias numerosas en el anexo de precios públicos para 2017.

Guraso bakarreko familiatzat jotzen dugu guraso bakarra eta seme-alaba bat edo gehiago dituen familia unitatea (Familia Liburuan guraso bakarra agertuz edo guraso hori alarguna izanez gero).

Se considera familia monoparental a aquella unidad familiar que esté compuesta por un solo progenitor (cuando en el Libro de Familia conste un solo progenitor o cuando el progenitor sea viudo o viuda) y uno o más hijos/as.

Eta tarifa hori eskuratzeko baldintza ezartzen da: guraso bakarreko familiek egiaztatu behar dute 2015eko ekitaldian ez dutela irabazi lanbide arteko gutxienezko soldata baino 2,5 aldiz gehiago.

Y se fija la condición para acceder a esta tarifa: las familias monoparentales deben acreditar que en el ejercicio 2015 sus ingresos han sido inferiores a 2,5 veces el importe del sueldo mínimo interprofesional.

Oporretan Euskaraz programako tarifak

Se propone un incremento de las tarifas del

igotzea proposatu dute, 2016an onarturiko prezioa % 2 igota. Hiru urtean, jarraian, % 2 igotzeko plan baten barruan dago igoera hori, zerbitzuaren defizita murriztuz joateko asmoz.

programa Oporretan Euskaraz en un 2% respecto al precio aprobado en 2016. Dicha subida se enmarca en un plan de subida del 2% durante tres años consecutivos, al objeto de ir reduciendo paulatinamente el déficit del servicio.

Beste eranskin bat erantsi dugu, Euskara Zerbitzuaren prezioetarako, Zerbitzuak Eman eta Jarduerak Egiteagatiko Prezio Publikoen Eranskineko 5. atala.

Se adjunta el nuevo anexo para los precios del Servicio de Euskera, apartado 5º del anexo de los Precios Públicos por Prestación de Servicios o Realización de Actividades.

Aipatutako guztiagatik, OGASUNEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAK Udalbatzari proposatzen dio honako ERABAKI hauek onartzea:

En base a cuanto antecede EL CONCEJAL DELEGADO DE HACIENDA propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes ACUERDOS:

LEHENA: Zerbitzuak Eman eta Jarduerak Egiteagatiko Prezio Publikoei buruzko Eranskina aldatzea onartzea, testu honen azalpenean aipatutako zerbitzuei dagokienez.

PRIMERO: Aprobar la modificación del Anexo de los Precios Públicos por la Prestación de Servicios o la Realización de Actividades Municipales, en lo que hace referencia a los Servicios descritos en la parte expositiva.

BIGARRENA: Erabaki hau izapidetzea. GAOn argitaratu eta hurrengo egunean indarrean egongo da aldatutako gainerako prezioei dagokienez. Izapideak Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko 1989ko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 43. artikuluan eta hurrengoetan jarritakoarekin bat egitea.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir: desde el día siguiente a su publicación en el BOG, conforme a lo establecido en el art. 43 y siguientes de la Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Donostia, 2017ko apirilaren 4a

Donostia, a 4 de abril de 2017

ZERGA KUDEATZEO ETA IKUSKATZEKO ATALBURUA

FINANTZA ZUZENDARIA

Izpta.: Loreto Sola Antoñanzas

Izpta.: Oscar Villasante Arbelaiz.

OGASUNEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA

Izpta.: Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga”.

***Eranskina:***

**5) EUSKA ZERBITZUAREN ZERBITZUAK**

***Anexo:***

**5) SERVICIOS DEL DEPARTAMENTO DE EUSKERA**

| | Kuota arrunta | Familia ugaria | Familia ugari berezia | Guraso bakarreko familia | Gizarte laguntzadun familia |
|---|---|---|---|---|---|
| Oporretan Euskaraz. | 157,69 | 118,26 | 78,84 | 118,26 | 15,76 |
| Haurrak Beti Jolasean: | | | | | |
| A moduloa (4 ordu astean). | 200,66 | 150,49 | 100,33 | 150,49 | 20,06 |
| B moduloa (3 ordu astean). | 195,07 | 146,30 | 97,53 | 146,30 | 19,50 |
| C moduloa (2 ordu astean). | 144,90 | 108,67 | 72,45 | 108,67 | 14,49 |
| D, E eta F moduloa (2 ordu astean, talde txikitan). | 200,66 | 150,49 | 100,33 | 150,49 | 20,06 |

OHARRAK: Gizarte laguntza jasotzen duten familien egoera Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate Zuzendaritzaren bidez egiaztuko da.

Guraso bakarreko familiak ondokoak kontsideratuko dira: guraso bakar batek (Familia Liburuan guraso bakar bat agertzen denean edo gurasoa alarguna denean soilik) eta seme-alaba batek edo gehiagok osatutako familia unitatea.
Tarifa eskuratu ahal izateko, guraso bakarreko familiek egiaztatu behar dute 2015eko ekitaldian ez dutela irabazi lanbide arteko gutxienezko soldata baino 2,5 aldiz gehiago.

| | Cuota ordinaria | Familia numerosa | Familia numerosa especial | Familia monopa rental | Familia perceptora de ayuda social |
|---|---|---|---|---|---|
| Oporretan Euskaraz. | 157,69 | 118,26 | 78,84 | 118,26 | 15,76 |
| Haurrak Beti Jolasean: | | | | | |
| Módulo A (4 horas semanales). | 200,66 | 150,49 | 100,33 | 150,49 | 20,06 |
| Módulo B (3 horas semanales). | 195,07 | 146,30 | 97,53 | 146,30 | 19,50 |
| Módulo C (2 horas semanales). | 144,90 | 108,67 | 72,45 | 108,67 | 14,49 |
| Módulo D, E y F (2 horas semanales, grupos reducidos). | 200,66 | 150,49 | 100,33 | 150,49 | 20,06 |

NOTAS: La situación de los niños/as cuyas familias perciban ayudas sociales, se acreditará a través de la Dirección de Bienestar Social del Ayuntamiento
Se considerará familia monoparental a aquella unidad familiar que esté compuesta por un solo progenitor (cuando en el Libro de Familia conste un solo progenitor o cuando el progenitor sea viudo o viuda) y uno o más hijos/as.
Para acceder a esta tarifa, las familias monoparentales deben acreditar que en el ejercicio 2015 sus ingresos han sido inferiores a 2,5 veces el importe del sueldo mínimo interprofesional.

Eztabaida hasita, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia y Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

--------------

## PERTSONENTZAKO ZERBITZUETAKO BATZORDEA

**9. Proposamena, Ministroen Kontseiluak zezenketen gaineko galdeketaz hartutako erabakiaren kontra ekintzak egiteko Udalbatzak erabakia hartzekoa.**

“UDALBATZARI

2017ko martxoaren 3an eginiko bilkuran, Ministroen Kontseiluak erabaki zuen baimenik ez ematea Udalari Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 71. artikuluaz baliatuta eskatu zuen galdeketa egiteko. Galdera hauxe zen:

*Nahi al duzu Udalak, udal baliabideak edo instalazioak bideratzea zezenketak egiteko?*

*Erantzunak: BAI/EZ.*

Erabaki hori 2017ko martxoaren 13an jakinarazi zitzaion administrazio honi, eta udal interesen aurka doa, baita herritarren partaidetzari nahiz udal baliabideen erabilerari lotutako politika publikoen aurka ere.

Erabakia 2017ko martxoaren 27ko Letratuaren espediente txostenean jasota dago, eta txosten horretan adierazten da erabaki horren inpugnazioa, administrazioarekiko auzien ordenaren aurrean, Udalbatzan onartu behar dela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 123.1.m) artikuluak ezarritakoaren arabera.

Adierazitakoagatik guztiagatik, akordio hau hartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

1.- Administrazioarekiko auzi errekurtsoa

## COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS

**9. Propuesta de acuerdo plenario de ejercicio de acciones contra acuerdo del Consejo de Ministros sobre consulta toros.**

“AL EXCMO. AYUNTAMIENTO PLENO

El Consejo de Ministros acordó, en sesión de tres de marzo de 2017, denegar al Ayuntamiento la autorización exigida por el artículo 71 LRBRL para la celebración de la consulta popular del siguiente contenido:

*Quiere usted que el Ayuntamiento destine recursos municipales o instalaciones para la realización de corridas de toros.*

*Respuestas SI/NO.*

El Acuerdo, que fue notificado a esta administración el 13 de marzo de 2017, resulta perjudicial para los intereses municipales y para el desarrollo de las políticas públicas municipales, en materia de participación ciudadana y de utilización de los recursos propios.

Obra en el expediente informe de Letrado de fecha 27 de marzo de 2017, en el que se indica que la impugnación del acuerdo citado ante la jurisdicción contencioso administrativa debe ser acordada por el Ayuntamiento Pleno, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123.1.m) LRBRL.

Por lo expuesto, se propone al Ayuntamiento Pleno la adopción del siguiente Acuerdo:

1.- Interponer ante la Sala Tercera del

jartzea Ministroen Kontseiluak 2017ko martxoaren 3an hartu zuen erabakiaren aurka, Auzitegi Nagusiaren Hirugarren Aretoan.

Tribunal Supremo recurso contencioso-administrativo contra el Acuerdo del Consejo de Ministros de tres de marzo de 2017, identificado en la parte expositiva.

2.- Udaleko Lege Zuzendaritzaren esku uztea errekurtso jartzea, eta ahalmena ematea zuzendaritza horri prozeduraren jarraipena egiteko, haren ekinbide, tramite eta errekurtso guztietan, eta, hala badagokio, proposamen transakzionala formulatzeko, 29/1998 Legearen 77. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

2.- Encomendar a la Asesoría Jurídica municipal la interposición del recurso, y facultarle para que siga el procedimiento en todos sus incidentes, trámites y recursos, y, en su caso, para formular propuesta transaccional, en los casos previstos en el artículo 77 de la Ley 29/1998.

3.- Notario ahala ematea Auzitegi Nagusian jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsoan Udalaren ordezkaritzaz arituko diren prokuradoreei edo, hala badagokio, aurretik jada badituzten ahalak erabiltzen uztea.

3.- Otorgar poder notarial a favor de los procuradores que hayan de representar al Ayuntamiento en el recurso contencioso-administrativo que se interponga ante el Tribunal Supremo o, en su caso, hacer uso de los poderes que se hallaren ya otorgados con anterioridad.

Donostia, 2017ko martxoaren 29a

San Sebastián, a 29 de marzo de 2017.

Duñike Agirrezabalaga

Amaia Agirreolea

Auzoetako eta Deszentralizazioko, Erantzunkidetasun Zibikoko, Berdintasuneko eta Lankidetzako zinegotzi ordezkaria.
Concejala delegada de Barrios y Descentralización, Corresponsabilidad cívica, Igualdad y Cooperación. ".

Herri Partaidetza Zerbitzu burua /
Jefa del Servicio de Participación Ciudadana".

Eztabaida hasita, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – PSE-EE.**

**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – PSE-EE.**

---------------

## GUNE PUBLIKOEN BATZORDEA, OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK

## COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS

**10. Proposamena, EH BILDU taldeak aurkeztua, hiriko gune eta zerbitzu publikoen irisgarritasun unibertsala aztertu eta haien gaineko proposamenak egiteko batzorde ez-iraunkorra sortzeari buruzkoa.**

**10. Proposición, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la creación de una Comisión No Permanente para estudiar la accesibilidad universal de zonas de la ciudad y servicios públicos y sus propuestas realizadas.**

“Udalbatzaren Organo Araudiko 148. artikuluak jartzen du, besteak beste, udal talde batek eskatu eta Udalbatzak hala erabakiz gero, badagoela bidea gai zehatz bat aztertzeko batzorde ez-iraunkorrak eratzeko; helburua gaia aztertzea, proposamenak egitea edo antzeko besteren bat izan daitekeela, baina ez dutela ebazpena emateko eskumenik izango.

“El artículo 148 del Reglamento Orgánico del Pleno dispone, entre otras cuestiones, que si un grupo municipal lo solicita y el Pleno así lo decide, existe la posibilidad de crear comisiones no permanentes para el estudio de un tema concreto. El objetivo puede ser estudiar un tema, hacer propuestas o algún otro similar, pero esas comisiones no tendrán competencias para dictar resoluciones.

Azkenaldian asko eztabaidatzen ari da irisgarritasun funtzionala eta unibertsalaren inguruan. Herritarrek geroz eta gehiago eskatzen dute, gure hiriko espazio publiko eta zerbitzu publikoak guztiz irisgarriak izatea. Hemen sartzen dira Donostia Lagunkoian jaso diren 147 neurriak, Mantenimendu Sailetik abiatu den irisgarritasun bertikalaren plana, “cota 0”-ren kanpaina eta abar.

Últimamente se debate mucho sobre la accesibilidad funcional y universal. La ciudadanía exige cada vez más que los espacios y servicios públicos de nuestra ciudad sean totalmente accesibles. Prueba de ello son las 147 medidas que se contemplan en San Sebastián Amigable, el plan de accesibilidad vertical puesto en marcha por la Dirección de Mantenimiento, la campaña “cota 0”, etc.

Gure hirian badaude irisgarritasun unibertsalaren alde lan egiten duten eragileak.

En nuestra ciudad existen agentes que trabajan en favor de la accesibilidad universal,

baita patrimonioaren defentsaren alde lan egiten dutenak ere. Batzuetan beraien artean kontraesanak sortzen dira eta zaila izaten da erdibideko irtenbidea bilatzea. Esate baterako, azkeneko asteetan mahai gainean izan dugu Haize Orrazien irisgarritasunaren inguruan sortutako eztabaida.

y también quienes lo hacen en defensa del patrimonio. En ocasiones surgen discrepancias entre ellos y resulta difícil encontrar una solución intermedia. Por ejemplo, durante las últimas semanas hemos presenciado el debate surgido en torno a la accesibilidad del Peine de los Vientos.

Uste dugu gaia aztertu beharko genukeela eta aukerak proposatu, Donostiako alde guztietan irisgarritasun unibertsalaren aldeko apostua egiteko.

Creemos que habría que estudiar el tema y proponer alternativas, para apostar a favor de la accesibilidad universal en todos los lugares de San Sebastián.

Begien bistakoa da, horrelako eremuen inguruan auzotarrek eta eragileek planteatutako eskaerei eman beharreko erantzunak aztertzeko, beharrezkoa dela auzo elkarteen eta eragileen laguntza eta parte-hartze aktiboa. Hortaz, elkarteak gonbidatu beharko liratekeela uste dugu, batzordean parte hartzeko.

Es evidente que se necesita de la colaboración y la participación activa de los agentes y las asociaciones vecinales para analizar las respuestas que requieren las solicitudes planteadas en torno a esos lugares por los agentes y por las vecinas y vecinos. Por tanto, a nuestro entender, habría que invitar a dichas asociaciones para que participen en la comisión.

Horiek horrela, EH Bildu honako PROPOSAMENA aurkezten du, hurrengo Udalbatzan azter dadin:

En consecuencia, el grupo EH Bildu presenta la siguiente PROPUESTA, para que se analice en la próxima sesión del Pleno:

- Batzorde Ez Iraunkorra eratzea, hiriko gune eta zerbitzu publikoen irisgarritasun unibertsala aztertu eta hari buruzko proposamenak egiteko.

- Creación de una Comisión No Permanente para estudiar la accesibilidad universal de las zonas y servicios públicos de la ciudad y para realizar propuestas sobre ella.

- Osaketa: udal talde bakoitzeko kide bat.

- Composición: un miembro de cada grupo municipal.

- Iraupena: urtebete.

- Duración: un año.

- Bileren maiztasuna: hilean behin, gutxienez.

- Frecuencia de las sesiones: al menos, una vez al mes.

Donostia, 2017ko apirilaren 4a

En San Sebastián, a 4 de abril de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko bozeramailea".

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
portavoz del grupo municipal de EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Miren Azkarate Villar andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Olaia Duarte López, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y Dª. Miren Azkarate Villar, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (6) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (6) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**KONTRATAZIOAREN KONTROLERAKO ETA JARRAIPENERAKO BATZORDE BEREZIA**

**11. 2016. urteko Memoriaren berri ematea.**

“UDALBATZARI

Udalbatzaren Organo Araudiko IX. Tituluak eta, bereziki, VI. Kapituluak arautzen dute Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia.

Batzorde berezi hori dugu udal Administrazio osoaren kontratu bidezko jarduera kontrolatzeko eta zaintzeko organoa, hau da, barne hartzen ditu Udala bera, erakunde autonomoak, udalaren enpresa erakunde guztiak eta osorik udalarenak diren baltzu publikoak, eta helburu du kontratazioan

**COMISIÓN ESPECIAL DE CONTROL Y SEGUIMIENTO DE LA CONTRATACIÓN**

**11. Dar cuenta de la Memoria del ejercicio 2016.**

“AL EXCMO.AYUNTAMIENTO PLENO

El Reglamento Orgánico del Pleno regula en su Titulo IX las Comisiones del Pleno y de modo especifico en el Capítulo VI la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación.

La Comisión Especial es el Organo de control y vigilancia de la actividad contractual de toda la Administración Municipal, es decir, Ayuntamiento, Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y Sociedades Públicas y tiene por finalidad garantizar la publicidad, libre concurrencia,

publizitatea, lehia mugagabea, objektibotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea.

Batzordeak Udalbatzari jardueren urteko Oroitidazkia bidali behar dio.

Batzordeak 2008ko otsailaren 5eko bilkuran legealdi osorako funtzionamendu arauak onartu zituen, eta urteko oroitidazkiari dagokionez, edukia, aldizkakotasuna, lanketa eta izapidetzea.

Aipatu arauen ondorioz, batzordeburuak oroitidazkia onarkizun bidaliko dio Batzordeari dokumentuak jasotzen duenaren hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan.

Batzordeak onarturiko oroitidazkiaren jakitun jarriko dute Donostiako Gobernu Batzarra.

Oroitidazkia; eta halakorik egonez gero, gogoetak eta hobetze proposamenak; Udalbatzari bidaliko diote, jakitun jartzeko asmoz.

Batzordeak 2017ko martxoaren 22ko bilkuran 2016ko Ekitaldiko Oroitidazkia onartu zuen, osagai dituela aipatu ekitaldian kontrolaturiko kontratuen analisia.

Aipatu oroitidazkiaren jakitun jarri dute Donostiako Gobernu Batzarra 2017ko martxoaren 28an izandako bilkuran.

Horiek horrela direla,

“Donostiako Udalbatza 2016ko Ekitaldiko Oroitidazkiaren jakitun dago; Udalak, erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eta udalaren baltzu publikoek eratzen duten Tokiko Sektorearen Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Donostiako Udalaren

objetividad, transparencia y eficacia de la contratación.

La Comisión debe elevar al Ayuntamiento Pleno una Memoria anual de sus actividades.

La Comisión, en sesión celebrada el 5 de febrero de 2008, aprobó sus Normas de Funcionamiento para toda la Legislatura y en relación con la Memoria Anual su contenido, periodicidad, elaboración y tramitación.

De conformidad con dichas Normas, la Presidenta elevará la Memoria, para su aprobación, a la Comisión dentro del primer trimestre del ejercicio siguiente al que se refiere.

De la Memoria aprobada por la Comisión se dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.

La Memoria conteniendo, en su caso, consideraciones y propuestas de mejora, se elevará al Ayuntamiento Pleno para su conocimiento.

La Comisión, en sesión celebrada el día 22 de marzo de 2017, ha aprobado la Memoria correspondiente al Ejercicio 2016 comprensiva del análisis de los contratos objeto de control del citado ejercicio.

De dicha Memoria ha tenido conocimiento la Junta de Gobierno Local en su sesión celebrada con fecha 28 de marzo de 2017.

En base a lo expuesto,

“El Excelentísimo Ayuntamiento Pleno toma conocimiento de la Memoria correspondiente al ejercicio 2016 en la que se recogen las actuaciones realizadas por la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación del Sector Público Local del

Batzorde Bereziaren eginak jasotzen dituena.

Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, integrado por el propio Ayuntamiento, sus Organismos Autónomos, sus Entidades Publicas Empresariales y las Sociedades Públicas Municipales.

Donostian, 2017ko martxoaren 29an

IZPTA./FDO.: CHARO GARCIA
Kontu Hartzailetzako Zuzendaritzari laguntzeko teknikaria/
Técnico Apoyo Dirección Intervención

SIN.: RICARDO BURUTARÁN
Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Bereziaren Burua.
Presidente de la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutarán Ferré, Dª. Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Enrique Ramos Vispo y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**IRADOKIZUN ETA ERREKLAMAZIO BATZORDE BEREZIA**

**COMISIÓN ESPECIAL DE SUGERENCIAS Y RECLAMACIONES**

**12. 2016. urteko Memoriaren berri ematea.**

**12. Dar cuenta de la Memoria del ejercicio 2016.**

"UDALBATZARI

Iradokizun eta Erreklamazio Batzorde Bereziaren urteko txostenaren berri ematea.

"AL AYUNTAMIENTO PLENO

Dando cuenta del Informe Anual de la Comisión de Sugerencias y Reclamaciones.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 132. artikuluak nahiz Udalbatzaren Organo Araudiko 141. eta 142. artikuluek agintzen duten bezala, honekin batera doa Iradokizun eta Erreklamazio Batzordearen txostena, 2016ekoa, Udalbatzari aurkeztu eta haren jakinaren gainean jartzeko.

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 132 de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local y en los artículos 141 y 142 del Reglamento Orgánico de Pleno, adjunto remito el Informe de la Comisión de Sugerencias y Reclamaciones correspondiente al año 2016, para su elevación al Pleno de la Corporación, a fin de dar cuenta del mismo.

Donostian, 2017ko apirilaren 10en".

En San Sebastián, a 10 de abril de 2017".

Batzordeburua /
La Presidenta

María JESUS ZELAIA EGIGUREN"

Eztabaida hasita, Maria Jesus Celaya Eguiguren andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Naiara Sampedro Perez andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Juan Ramon Viles Mitxelenak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. María Jesús Celaya Eguiguren, Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. Naiara Sampedro Perez, Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**JAKINEAN.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**ENTERADO.**

---------------

**II**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**II.1**

**INTERPELAZIOAK**

**II.1**

**INTERPELACIONES**

**13. Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Etxegintzaren kudeatzaileek bertan behera utzi dutelako gela-eskubidea izatea erakunde horrek kudeatzen dituen adinekoentzako aldi baterako apartamentuetara sartzeko moduetako bat.**

"Ricardo Burutaran Ferrék, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Udalbatzan aztertzeko INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkezten dio alkateari, Donostiako Etxegintzaren gerentziak bizileku eskubidea, pertsona nagusiek entitate horrek kudeatzen dituen aldi baterako apartamentuetara sarbidea izateko modu gisa, eteteari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko otsailaren 28an egindako Donostiako Etxegintza EEPren Administrazio Kontseiluan aztertutako gaietako bat hau izan zen: Berioko, Benta Berriko eta Ategorrietako sustapenetako pertsona nagusientzako apartamentuen lagapen erregimeneraren aldaketa. Pertsona nagusiek, bizileku eskubidearen bitartez, apartamentu horien lagapena eskuratzeko duten aukera kentzeko proposamenari buruz ez zen erabakirik hartu; besteak beste, EH BILDUko ordezkariak proposatuta, baina baita EAJ/PNVko ordezkariek ere. Ildo horretatik, azterketa berriak eskatu ziren, proposutako neurria hartzearen balizko ondorioak zehazteko. Beraz, ez zen inolako eteterik adostu.

Hala ere, jakin dugunez, entitateko gerentziak alde bakarreko erabaki ulertezina hartu du, eta apartamentu horietara sarbidea izateko aukeraren kudeaketa eteteko agindua eman du. Etete horrek ez du inolako legezko

**13. Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la suspensión, por parte de la gerencia de Donostiako Etxegintza, del derecho de habitación como forma de acceso a los apartamentos transitorios para personas mayores que gestiona la entidad.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del Grupo Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 97 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente INTERPELACIÓN DIRECTA al alcalde, para su tratamiento en Pleno, sobre la suspensión, por parte de la gerencia de Donostiako Etxegintza, del derecho de habitación como forma de acceso a los apartamentos transitorios para mayores que gestiona la entidad.

JUSTIFICACIÓN

En el Consejo de Administración de la EPE Donostiako Etxegintza celebrado el pasado 28 de febrero de 2017 uno de los puntos que se trató fue el relativo a: En relación al cambio de régimen de cesión de los apartamentos para personas mayores de las promociones de Berio, Benta Berri y Ategorrieta. La propuesta de suprimir la figura de cesión de dichos apartamentos para personas mayores mediante el derecho de habitación quedó sobre la mesa, a propuesta entre otros del representante de EH BILDU, pero también de los representantes de EAJ/PNV, solicitándose nuevos estudios que permitieran concretar las repercusiones de la eventual adopción de la medida propuesta. No fue acordada suspensión alguna.

Sin embargo, hemos podido tener noticia de que inexplicablemente se ha decidido unilateralmente por parte de la gerencia de la entidad trasladar la orden de suspensión en la gestión del acceso de dichos apartamentos.

oinarririk, eta ez du Donostiako Etxegintza EEPko Administrazio Kontseiluak baimendu. Horrenbestez, berehala zuzendu behar dela iruditzen zaigu.

Are gehiago; ezusteko neurri hori hartu izanak kalteak eragiten dizkie gaur egun pertsona nagusientzako apartamentu bat eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonei. Izan ere, inolako legezko oinarririk gabe, pertsona horiei adierazten zaie –informazio okerra emanda- entitate horrek kudeatzen duen produktu bat eskuratzeko modua etetea erabaki dela, eta erabaki hori ez du hartu Donostiako Etxegintza EEPa zuzentzen duen Administrazio Kontseiluak.

Gaur egun guztiz indarrean dago “Gizarte maila zehatzentzat apartamentuen eraikinean bizitegiko zerbitzu publikoen araudia” (2006ko abuztuaren 24ko GAO). Araudi horrek, III. Kaptituluan, “Adinekoei ostatu emateko zerbitzuaren erregimen orokorra” xedatzen eta arautzen du, eta honela dio: “Apartamentuak… bizileku eskubide bezala utziko badituzte ere...".

“Itxaron Zerrendak” hizpide dituen III. 13 letrak, berriz, hau xedatzen du: “Itxaron zerrendan daudenek, bertan agertzen den ordena errespetatuta, apartamentuak hutsak geratzen direnean, horietako baten esleipendun izateko eskubidea izango dute ". Beste era batera esanda: kontua ez da gerentziak hartutako erabakia alde bakarrekoa izatea soilik (EEParen Administrazio Kontseiluak onartu gabe); horrez gain, kalte bat egiten ari zaie itxarote zerrendetan egoteagatik legez "esleipenendun izateko lehentasunezko" eskubideak dituztenei.

Arauz kontrako egoera horren berri badute bai taldeek, bai Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoko gerenteak berak eta

Dicha suspensión no tiene ningún sustento legal, ni ha sido autorizada por el Consejo de Administración de la EPE Donostiako Etxegintza, por lo que entendemos debe ser corregida de inmediato.

Es más, la adopción de la sorpresiva medida está generando perjuicios a personas que a día de hoy cumplen los requisitos para poder acceder a un apartamento para personas mayores y que, sin ningún sustento legal, son informados -mal informados debiéramos decir- de la decisión de la suspensión de un modo de acceso de un producto que gestiona la entidad que no ha sido acordada por parte del Consejo de Administración que rige la EPE de Donostiako Etxegintza.

A día de hoy está plenamente vigente el “Reglamento regulador de los servicios públicos de alojamiento en edificios de apartamentos para sectores determinados” (BOG de 24/8/2006), que en su Capítulo III establece y regula el “Régimen general del servicio de alojamiento de personas mayores” que fija: “Los apartamentos se cederán en régimen de derecho de habitación ...”.

El apartado III.13 relativo a las “Listas de Espera” dispone: “Los que figuren en la lista de espera y por orden tendrán derecho preferente a la adjudicación de apartamentos cuando los mismos queden vacantes”. Es decir, no sólo es que la decisión se haya acordado de manera unilateral, por parte de la gerencia, sin el acuerdo del Consejo de Administración de la EPE, sino que, además, se está causando con ella un perjuicio a quiénes legitimamente tienen unos derechos “preferentes de adjudicación” por estar en lista de espera.

De tal irregular situación son conocedores los grupos, y el propio gerente y vicepresidente de la Entidad Público Empresarial Donostiako

presidenteordeak, baina orain arte ez dugu jakin erabaki horretan atzera egin dutenik.

Hori dela eta, INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkezten dugu:

1.- Donostiako Etxegintzako gerentziak agindu du apartamentuetara sarbidea izateko aukera eteteko gaur egun baldintzak betetzen dituzten pertsona nagusiei. Alkatea Donostiako Etxegintza EEParen presidentea den aldetik, zer dela eta baimentzen dio gerentziari agindu hori ematen?

2.- Alkatea aipatutako EEParen presidentea dela kontuan izanda, zer dela eta ez du agintzen salatutako egoera zuzentzeko? Zer dela eta ez die pertsona interesdunei beren eskubideei buruzko informazioa ematen? Zergatik ez die barkamenik eskatzen eragindako kalteengatik?

Donostian, 2017ko apirilaren 4an

Sin.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Etxegintza, sin que hasta la fecha hayamos tenido noticia de la rectificación de la misma.

Por todo ello presentamos la siguiente INTERPELACIÓN DIRECTA

1.- ¿Por qué motivos el Alcalde, como Presidente de la EPE Donostiako Etxegintza, permite que se ordene por parte de gerencia una suspensión en el acceso a los apartamentos para mayores a las personas que a día de hoy cumplen con los requisitos para ello?

2.- ¿Por qué motivos el Alcalde, como Presidente de la EPE citada, no obliga con carácter inmediato a corregir la situación denunciada, informando a las personas interesadas de los derechos que les asisten y pidiéndoles disculpas por las molestias causadas?

En Donostia a 4 de Abril de 2017

Fdo.:Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**II.2**

**MOCIONES**

**II.2.1**

**II.2**

**MOCIONES**

**II.2.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**14. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Miramar jauregiari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu nahi du, Miramar jauregia dela eta, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Miramar jauregiak eta jauregiaren parkeak 34.136 m2-ko azalera dute. Leku zoragarri horrek mugakide ditu iparraldean Ondarretako lorategiak, haitzak eta itsasoa; hegoaldean, Pio Baroja pasealekua; ekialdean, Mirakontxa pasealekua; eta mendebaldean, Mikeleteen pasealekua.

Jauregia Selden Wornun ingeles arkitektoak proiektatu zuen, 1888an, baina Benito Olasagastik gauzatu zuen, Jose Goikoa arkitektoaren zuzendaritzapean. Jauregiak sotoa eta hiru solairu ditu. Lehen bi solairuak erabilera pribaturako izan ziren, eta azkena, txapitula formakoa, zerbitzarientzat zen.

Donostia turismoaren hiriburu bihurtu zen, XIX. mendearen erdialdean Espainiako errege familia uda hiri honetan ematen hasi zenez geroztik. Horren ondorioz, Udalak hainbat kokaleku hartu zituen gogoan, errege familiaren mailako egoitza bat eraikitzeko.

Jatorrian eta 1930eko hamarkadaraino, Miramar jauregia Espainiako errege familiaren udako egoitza izan zen, beste erabilerarik izan gabe. 1972ko abuztuaz geroztik, ordea, Donostiako Udalaren jabetzakoa da. Uztailaren

**MOCIONES ORDINARIAS**

**14. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el Palacio Miramar.**

“Dña. Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN ORDINARIA sobre El Palacio Miramar.

JUSTIFICACIÓN

El Palacio Miramar y el parque en el que se ubica, abarcan una superficie de 34.136 m2. Este magnífico paraje está limitado al norte, por los jardines de Ondarreta, las peñas y el mar; por el sur, con el Paseo de Pío Baroja; por el este, con el Paseo de Miraconcha y, por el Oeste, con el Paseo de los Miqueletes.

El palacio fue proyectado por el arquitecto inglés Selden Wornun, en 1.888, pero fue llevado a cabo por Benito Olasagasti, bajo la dirección del arquitecto José Goicoa. El palacio consta de sótano y tres plantas, las dos primeras fueron destinadas al uso privado y la última, abuhardillada, estaba reservada para la servidumbre.

San Sebastián se convirtió en la capital del turismo desde que a mediados del siglo XIX la familia real española comenzara a veranear en la ciudad. Esto dio lugar a que el Ayuntamiento barajara diferentes ubicaciones para edificar una residencia a la altura de la realeza.

Aunque en su origen y hasta los años treinta, el palacio fue residencia de verano de la familia real española y de uso exclusivo, desde agosto de 1972, es propiedad del Ayuntamiento de San Sebastián. Mediante

17ko 265/1984 Dekretuaren bitartez, jauregi hau nazio mailako Monumentu Historiko Artistiko izendatu zuten.

Kokaleku bikaina du, Kontxako hondartzaren eta Ondarretakoaren gainean. Horregatik, donostiarrek eta hirira datozen turistek gehien bisitatzen duten tokietako bat da.

Miramar jauregia Musikene ikastegiaren (Euskal Herriko goi mailako musika ikastegia) egoitza izan da, bai eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen eta Eusko Ikaskuntzaren egoitza ere. Gainera, jauregiko instalazioetan ekitaldi ugari egiten dira, hala nola biltzarrak, jardunaldiak eta jaialdiak.

Jauregia eta lorategiak Udalarenak diren arren, 1985eko urtarrilaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera eratutako partzuergo batek kudeatzen ditu eremu horiek.

Legegintzaldi honetan hainbat aldiz galdetu diogu bai Gobernu Taldeari eta bai alkateari berari ere ea zer asmo eta zer aukera dituen udalak Miramar jauregiaren etorkizunari dagokionez.

Ia bi urte igaro dira, eta oraindik ez digute inolako azalpenik eman. Joan den irailean Musikenek, zenbait urtez Miramar Jauregian egon ondoren, bere egoitza behin betiko Ibaetako kanpusera aldatu izanak gure jakin-mina areagotu du.

Izan ere, 4.600 m2 erabilgarrirekin, eta Musikenek jauregia utzi duelarik, eremu eta gela asko gelditu dira hutsik.

Badakigu udako ikastaroak jauregian egiten jarraituko direla, horrela baieztatu baitu

Decreto 265/1984 de 17 de Julio este palacio fue declarado Monumento Histórico-Artístico de carácter nacional.

Su privilegiada ubicación sobre la Playa de La Concha y la Playa de Ondarreta hacen de él uno de los lugares más visitados por los donostiarras y por los turistas que llegan a la ciudad.

El Palacio de Miramar ha sido la sede del Centro Superior de Música del País Vasco Musikene, así como sede de los Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco, y de Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos. También en el Palacio, en sus instalaciones se celebran numerosos eventos, congresos, jornadas, y fiestas.

Aunque el Palacio y los jardines son propiedad del Ayuntamiento, los espacios son gestionados por un Consorcio conformado con la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco, constituido el 3 de Enero de 1985.

A lo largo de esta legislatura, y a través de diferentes iniciativas al Equipo de Gobierno, en concreto al Alcalde, hemos preguntado las intenciones y las opciones que barajaban para el futuro del Palacio Miramar.

En casi dos años, no se nos ha dado explicación ninguna. Nuestro interés iba reforzado además por el hecho de que Musikene, tras varios años en el Palacio Miramar, se trasladó definitivamente a su sede en el campus de Ibaeta, el pasado mes de septiembre.

Con aproximadamente 4.600 m2 útiles, y tras la marcha de Musikene, son muchos los espacios y estancias que quedan libres.

Conocemos que la intención es que siga albergando los curso de verano, tal y como ha

partzuergoak; era berean, partzuergoak ekitaldi txikiak, gehienez 300 partaideko kongresuak eta ospakizun zibilak egiteko baimena eman du, besteak beste.

Baina iritsi da jauregiari erabilera bat emateko eta herritarrentzat irekitzeko ordua, edo jauregia erakunde publikoren baten egoitza izateko aukera aztertzekoa.

Gaur bertan datu argigarriak jaso ditugu Donostiak lurraldean duen pisu turistikoari buruz; zehazki, Gipuzkoa bisitatzen duten pertsonen % 72 etortzen da hiriburura. Zenbateko horiek goraka jarraituko dute, azken hiru urteetako bilakaera aintzat hartuz gero. Iaz, adibidez, % 8,6 hazi zen turista kopurua.

Gure taldeak Eusko Jaurlaritzan 2017ko aurrekontuei egindako (eta dagoeneko onartutako) zuzenketa baten bidez, 100.000 euro lortu dira jauregiaren nolakotasunarekin eta historiarekin bat datozen proiektu bideragarriak aztertzeko.

Uste dugu denbora asko galdu dugula dagoeneko, eta badela ordua Miramar jauregiari behar duen balioa emateko.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu azter dezala Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia Donostiara ekartzeko aukera.

Basquetour, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailaren mendeko erakunde publikoa da, 2006an euskal turismoaren lehiakortasun estrategia indarrean jartzeko eta hura bultzatzeko sortua. Estrategia hori Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa 2020 agirian zehaztuta dago, EAEko turismo industria osatzen duten erakunde publiko eta pribatuen lankidetzari esker, eta Euskadiko Turismo Arduratsuaren Politikarekin bat dator.

confirmado el Consorcio: así mismo, ha dado el visto bueno a la celebración de pequeños eventos, congresos de hasta 300 personas, celebraciones civiles, etc...

Pero ya ha llegado el momento de darle un uso y de abrir el Palacio a los ciudadanos, así como dar la posibilidad de albergar otro ente u organismo institucional.

Hoy mismo, conocíamos datos, más esclarecedores aún, sobre el peso que a nivel turístico tiene San Sebastián en el conjunto del territorio, donde el 72% que viene a Gipuzkoa, visita la capital. Números que siguen incrementándose si vemos la progresión de los últimos 3 años, donde sólo en el último año, los turistas crecieron en un 8,6%.

Desde nuestro Grupo en el Parlamento Vasco, y a través de una enmienda, ya aprobada, a los presupuestos del 2017, se han conseguido 100.000 euros, para estudiar proyectos viables y acordes con el contenido del edificio y su historia.

Consideramos que ya se ha perdido mucho tiempo, y es hora de poner realmente en valor el Palacio Miramar.

Vamos a instar al Gobierno Vasco a que estudie la posibilidad de traer al ente turístico Basquetour, a la ciudad de Donostia – San Sebastián.

Basquetour, es la sociedad pública del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco, creada en el 2006 para liderar el impulso e implementación de la estrategia de competitividad del turismo vasco, actualmente definida para Euskadi en el “Plan Estratégico del Turismo Vasco 2020", en colaboración con los entes públicos y privados que conforman la industria turística de Euskadi y de acuerdo con la "Política de

Turismo Responsable de Euskadi".

Hauek dira Basquetour agentziaren helburu nagusiak: EAErentzat definitutako turismoaren lehiakortasun estrategiari bultzada ematea eta hura gauzatzea, turismoak aberastasuna eta enplegua sortzen dituen ekonomia jarduera gisara duen lehiakortasuna hobetzea, eta EAEk segmentu estrategiko jakin batzuetan duen tokia hobetzea.

Su misión, es liderar el impulso e implementación de la estrategia de competitividad del turismo definida para Euskadi, mejorar la competitividad del turismo como actividad económica generadora de riqueza y empleo y mejorar el posicionamiento de Euskadi en segmentos estratégicos.

Funtsean, turismoaren jatorri merkatuetan Euskadi markak turismo gune gisara duen irudia sendotu nahi du.

En definitiva, consolidar la marca Euskadi como destino turístico en los mercados emisores.

Jakina da Donostia Euskadiko turismoaren hiriburutzat jo izan dela, eta horrela erakusten du historiak, Bilbo ardatz ekonomikotzat eta Gasteiz egoitza politikotzat jo izan diren bezala.

De todos es conocido que San Sebastián es considerada y así se demuestra históricamente, como la capital del turismo del País Vasco, así como Bilbao es considerado el eje económico y Vitoria – Gasteiz la sede política.

Lantzen ari diren proiektuen artean, Belle Époque-aren museo bat aukera ona iruditzen zaigu, donostiarrei zein bisitariei hiriaren historia ezagutarazteko. Ireki dezagun Miramar jauregia Donostiara eta mundura.

Entre los proyectos que se están trabajando, consideramos que un museo de la Belle Époque, sería la oportunidad para dar a conocer la historia a donostiarras y visitantes. Debemos abrir el Palacio Miramar a Donostia, y al mundo.

Aurreko hori guztia kontuan izanik, eta premiazko gaia eta gure hiriarentzat interes handikoa delako, Udal Talde Popularrak ondorengo MOZIO ARRUNT hau aurkeztuko du:

Por todo cuanto antecede y por que es una cuestión urgente y del máximo interés para nuestra ciudad el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente MOCION ORDINARIA:

LEHENENGOA: Donostiako Udalbatzak biziki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari aintzat har dezala Basquetour erakunde publikoaren egoitza Miramar Jauregira lekualdatzeko aukera.

PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que considere la posibilidad de trasladar el Ente Público Vasco, Basquetour, a las instalaciones del Palacio Miramar.

BIGARRENA: Donostiako Udalbatzak biziki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari aurrekontuan jasotako partidaren bidez azter ditzala eraikinaren nolakotasunarekin eta haren

SEGUNDO: El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Vasco a con la partida incorporada, estudie proyectos viables y acordes con el contenido

historiarekin bat datozen proiektu bideragarriak, eta kontuan har dezala Belle Époque museoa jartzeko aukera; museo horretan bisitariek zein donostiarrek gertutik ezagutu ahalko dute goren aldi hura, garaiko eraikinik adierazgarrienetako batean, hau da, Miramar jauregian.

Donostian, 2017ko apirilaren 4an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

del edificio y su historia se contemple la instalación de un Museo Belle Epoque, donde visitantes y donostiarras, puedan conocer de primera mano, esa época de esplendor, que tuvo en este palacio uno de sus lugares emblemáticos .

En Donostia-San Sebastián, a 4 de Abril de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Miren Albistur Garmendia andreak, Amaia Martin Garin andreak, Josu Ruiz Martin jaunak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak, Alkate-Udalburuak eta Idazkari jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Miren Albistur Garmendia, Dª. Amaia Martín Garín, D. Josu Ruiz Martín, Dª. María Luisa García Gurruchaga, Alcalde-Presidente y Sr. Secretario, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**IRABAZI DONOSTIA TALDEAK 14. GAIARI AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 AL ASUNTO N.º 14 PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**IRABAZI DONOSTIA TALDEAK 14. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 AL ASUNTO N.º 14 PRESENTADA POR EL GRUPO IRABAZI DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

EH BILDU TALDEAK 14. GAIARI AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 AL ASUNTO N.º 14 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

EH BILDU TALDEAK 14. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 AL ASUNTO N.º 14 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 6 – EH BILDU.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEK 14. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 14 PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ-PNV Y PSE-EE:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
MAYORÍA.

ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.
AURKAKO BOTOAK: 0.
ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.
VOTOS EN CONTRA: 0.
ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

**14. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 14:**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**14. GAIAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 14**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
UNANIMIDAD.

**14. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 14**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 24 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.
AURKAKO BOTOAK: 0
ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 24 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.
VOTOS EN CONTRA: 0
ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Udalbatzak, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hogeita zazpian izan zuen osoko bilera ohikoan, mozio arrunt hau onartu zuen, PP taldeak Miramar jauregiaren gainean aurkeztutakoa, bi zuzenketa eginda. Bat, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, erabaki zatiko aurreneko

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veintisiete de abril de dos mil diecisiete, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo PP sobre el Palacio Miramar, que incorpora dos enmiendas aprobadas, una

puntuaren azkenean testu zati bat eranstea; eta bestea, EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek elkarren artean aurkeztua, erabaki zatiko bigarren puntua ordezkatzea. Horiek horrela, hauxe da azkenean onartutako testua:

presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA de adición de un texto al final del punto primero de la parte resolutiva, y una segunda enmienda conjunta presentada por los Grupos EAJ/PNV-PSE-EE de sustitución del punto segundo de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Miramar jauregiak eta jauregiaren parkeak 34.136 m2-ko azalera dute. Leku zoragarri horrek mugakide ditu iparraldean Ondarretako lorategiak, haitzak eta itsasoa; hegoaldean, Pio Baroja pasealekua; ekialdean, Mirakontxa pasealekua; eta mendebaldean, Mikeleteen pasealekua.*

*“El Palacio Miramar y el parque en el que se ubica, abarcan una superficie de 34.136 m2. Este magnífico paraje está limitado al norte, por los jardines de Ondarreta, las peñas y el mar; por el sur, con el Paseo de Pío Baroja; por el este, con el Paseo de Miraconcha y, por el Oeste, con el Paseo de los Miqueletes.*

*Jauregia Selden Wornun ingeles arkitektoak proiektatu zuen, 1888an, baina Benito Olasagastik gauzatu zuen, Jose Goikoa arkitektoaren zuzendaritzapean. Jauregiak sotoa eta hiru solairu ditu. Lehen bi solairuak erabilera pribaturako izan ziren, eta azkena, txapitula formakoa, zerbitzarientzat zen.*

*El palacio fue proyectado por el arquitecto inglés Selden Wornun, en 1.888, pero fue llevado a cabo por Benito Olasagasti, bajo la dirección del arquitecto José Goicoa. El palacio consta de sótano y tres plantas, las dos primeras fueron destinadas al uso privado y la última, abuhardillada, estaba reservada para la servidumbre.*

*Donostia turismoaren hiriburu bihurtu zen, XIX. mendearen erdialdean Espainiako errege familia uda hiri honetan ematen hasi zenez geroztik. Horren ondorioz, Udalak hainbat kokaleku hartu zituen gogoan, errege familiaren mailako egoitza bat eraikitzeko.*

*San Sebastián se convirtió en la capital del turismo desde que a mediados del siglo XIX la familia real española comenzara a veranear en la ciudad. Esto dio lugar a que el Ayuntamiento barajara diferentes ubicaciones para edificar una residencia a la altura de la realeza.*

*Jatorrian eta 1930eko hamarkadaraino, Miramar jauregia Espainiako errege familiaren udako egoitza izan zen, beste erabilerarik izan gabe. 1972ko abuztuaz geroztik, ordea, Donostiako Udalaren jabetzakoa da. Uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuaren bitartez, jauregi hau nazio mailako Monumentu Historiko Artistiko izendatu zuten.*

*Aunque en su origen y hasta los años treinta, el palacio fue residencia de verano de la familia real española y de uso exclusivo, desde agosto de 1972, es propiedad del Ayuntamiento de San Sebastián. Mediante Decreto 265/1984 de 17 de Julio este palacio fue declarado Monumento Histórico-Artístico de carácter nacional.*

*Kokaleku bikaina du, Kontxako hondartzaren eta Ondarretakoaren gainean. Horregatik, donostiarrek eta hirira datozen turistek gehien*

*Su privilegiada ubicación sobre la Playa de La Concha y la Playa de Ondarreta hacen de él uno de los lugares más visitados por los*

*bisitatzen duten tokietako bat da.*

*Miramar jauregia Musikene ikastegiaren (Euskal Herriko goi mailako musika ikastegia) egoitza izan da, bai eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen eta Eusko Ikaskuntzaren egoitza ere. Gainera, jauregiko instalazioetan ekitaldi ugari egiten dira, hala nola biltzarrak, jardunaldiak eta jaialdiak.*

*Jauregia eta lorategiak Udalarenak diren arren, 1985eko urtarrilaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera eratutako partzuergo batek kudeatzen ditu eremu horiek.*

*Legegintzaldi honetan hainbat aldiz galdetu diogu bai Gobernu Taldeari eta bai alkateari berari ere ea zer asmo eta zer aukera dituen udalak Miramar jauregiaren etorkizunari dagokionez.*

*Ia bi urte igaro dira, eta oraindik ez digute inolako azalpenik eman. Joan den irailean Musikenek, zenbait urtez Miramar Jauregian egon ondoren, bere egoitza behin betiko Ibaetako kanpusera aldatu izanak gure jakin-mina areagotu du.*

*Izan ere, 4.600 m2 erabilgarrirekin, eta Musikenek jauregia utzi duelarik, eremu eta gela asko gelditu dira hutsik.*

*Badakigu udako ikastaroak jauregian egiten jarraituko direla, horrela baieztatu baitu partzuergoak; era berean, partzuergoak ekitaldi txikiak, gehienez 300 partaideko kongresuak eta ospakizun zibilak egiteko baimena eman du, besteak beste.*

*Baina iritsi da jauregiari erabilera bat emateko eta herritarrentzat irekitzeko ordua, edo jauregia erakunde publikoren baten egoitza izateko*

*donostiarras y por los turistas que llegan a la ciudad.*

*El Palacio de Miramar ha sido la sede del Centro Superior de Música del País Vasco Musikene, así como sede de los Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco, y de Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos. También en el Palacio, en sus instalaciones se celebran numerosos eventos, congresos, jornadas, y fiestas.*

*Aunque el Palacio y los jardines son propiedad del Ayuntamiento, los espacios son gestionados por un Consorcio conformado con la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Gobierno Vasco, constituido el 3 de Enero de 1985.*

*A lo largo de esta legislatura, y a través de diferentes iniciativas al Equipo de Gobierno, en concreto al Alcalde, hemos preguntado las intenciones y las opciones que barajaban para el futuro del Palacio Miramar.*

*En casi dos años, no se nos ha dado explicación ninguna. Nuestro interés iba reforzado además por el hecho de que Musikene, tras varios años en el Palacio Miramar, se trasladó definitivamente a su sede en el campus de Ibaeta, el pasado mes de septiembre.*

*Con aproximadamente 4.600 m2 útiles, y tras la marcha de Musikene, son muchos los espacios y estancias que quedan libres.*

*Conocemos que la intención es que siga albergando los curso de verano, tal y como ha confirmado el Consorcio: así mismo, ha dado el visto bueno a la celebración de pequeños eventos, congresos de hasta 300 personas, celebraciones civiles, etc...*

*Pero ya ha llegado el momento de darle un uso y de abrir el Palacio a los ciudadanos, así como dar la posibilidad de albergar otro ente u*

*aukera aztertzekoa.*

*Gaur bertan datu argigarriak jaso ditugu Donostiak lurraldean duen pisu turistikoari buruz; zehazki, Gipuzkoa bisitatzen duten pertsonen %72 etortzen da hiriburura. Zenbateko horiek goraka jarraituko dute, azken hiru urteetako bilakaera aintzat hartuz gero. Iaz, adibidez, %8,6 hazi zen turista kopurua.*

*Gure taldeak Eusko Jaurlaritzan 2017ko aurrekontuei egindako (eta dagoeneko onartutako) zuzenketa baten bidez, 100.000 euro lortu dira jauregiaren nolakotasunarekin eta historiarekin bat datozen proiektu bideragarriak aztertzeko.*

*Uste dugu denbora asko galdu dugula dagoeneko, eta badela ordua Miramar jauregiari behar duen balioa emateko.*

*Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzari eskatuko diogu azter dezala Basquetour Turismoaren Euskal Agentzia Donostiara ekartzeko aukera.*

*Basquetour, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailaren mendeko erakunde publikoa da, 2006an euskal turismoaren lehiakortasun estrategia indarrean jartzeko eta hura bultzatzeko sortua. Estrategia hori Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa 2020 agirian zehaztuta dago, EAEko turismo industria osatzen duten erakunde publiko eta pribatuen lankidetzari esker, eta Euskadiko Turismo Arduratsuaren Politikarekin bat dator.*

*Hauek dira Basquetour agentziaren helburu nagusiak: EAErentzat definitutako turismoaren lehiakortasun estrategiari bultzada ematea eta hura gauzatzea, turismoak aberastasuna eta enplegua sortzen dituen ekonomia jarduera gisara duen lehiakortasuna hobetzea, eta EAEk*

*organismo institucional.*

*Hoy mismo, conocíamos datos, más esclarecedores aún, sobre el peso que a nivel turístico tiene San Sebastián en el conjunto del territorio, donde el 72% que viene a Gipuzkoa, visita la capital. Números que siguen incrementándose si vemos la progresión de los últimos 3 años, donde sólo en el último año, los turistas crecieron en un 8,6%.*

*Desde nuestro Grupo en el Parlamento Vasco, y a través de una enmienda, ya aprobada, a los presupuestos del 2017, se han conseguido 100.000 euros, para estudiar proyectos viables y acordes con el contenido del edificio y su historia.*

*Consideramos que ya se ha perdido mucho tiempo, y es hora de poner realmente en valor el Palacio Miramar.*

*Vamos a instar al Gobierno Vasco a que estudie la posibilidad de traer al ente turístico Basquetour, a la ciudad de Donostia – San Sebastián.*

*Basquetour, es la sociedad pública del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco, creada en el 2006 para liderar el impulso e implementación de la estrategia de competitividad del turismo vasco, actualmente definida para Euskadi en el "Plan Estratégico del Turismo Vasco 2020", en colaboración con los entes públicos y privados que conforman la industria turística de Euskadi y de acuerdo con la "Política de Turismo Responsable de Euskadi".*

*Su misión, es liderar el impulso e implementación de la estrategia de competitividad del turismo definida para Euskadi, mejorar la competitividad del turismo como actividad económica generadora de riqueza y empleo y mejorar el posicionamiento*

*segmentu estrategiko jakin batzuetan duen tokia hobetzea.*

*de Euskadi en segmentos estratégicos.*

*Funtsean, turismoaren jatorri merkatuetan Euskadi markak turismo gune gisara duen irudia sendotu nahi du.*

*En definitiva, consolidar la marca Euskadi como destino turístico en los mercados emisores.*

*Jakina da Donostia Euskadiko turismoaren hiriburutzat jo izan dela, eta horrela erakusten du historiak, Bilbo ardatz ekonomikotzat eta Gasteiz egoitza politikotzat jo izan diren bezala.*

*De todos es conocido que San Sebastián es considerada y así se demuestra históricamente, como la capital del turismo del País Vasco, así como Bilbao es considerado el eje económico y Vitoria – Gasteiz la sede política.*

*Lantzen ari diren proiektuen artean, Belle Époque-aren museo bat aukera ona iruditzen zaigu, donostiarrei zein bisitariei hiriaren historia ezagutarazteko. Ireki dezagun Miramar jauregia Donostiara eta mundura.*

*Entre los proyectos que se están trabajando, consideramos que un museo de la Belle Époque, sería la oportunidad para dar a conocer la historia a donostiarras y visitantes. Debemos abrir el Palacio Miramar a Donostia, y al mundo.*

*Aurreko hori guztia kontuan izanik, eta premiazko gaia eta gure hiriarentzat interes handikoa delako, Udal Talde Popularrak ondorengo MOZIO ARRUNT hau aurkeztuko du:*

*Por todo cuanto antecede y por que es una cuestión urgente y del máximo interés para nuestra ciudad el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente MOCION ORDINARIA:*

*LEHENENGOA: Donostiako Udalbatzak biziki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari aintzat har dezala Basquetour erakunde publikoaren egoitza Miramar Jauregira lekualdatzeko aukera, beti bermatuta egongo delarik herritarrak parkera sartu ahal izatea eta hartan kongresuak, ikastaroak, feriak eta bestelako jarduerak egin ahal izatea, orain arte egiten ari den bezala.*

*PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que considere la posibilidad de trasladar el Ente Público Vasco, Basquetour, a las instalaciones del Palacio Miramar, siempre garantizando el acceso libre del parque a la ciudadanía y garantizando que se puedan realizar congresos, cursos, ferias y demás actividades tal y como se viene haciendo hasta ahora.*

*BIGARRENA: Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari onartu berri dituen Autonomia Erkidegoaren 2017ko aurrekontu orokorretan jasotako kontu sail bat, Miramar jauregirako proiektu bideragarriak ikertzeko erabiltzea. Hala, azpiegiturari merezi duen balioa emango diote, hainbat erabileratarako leku moduan, horien artean eraiki zuten garaiko alderdi historikoak*

*SEGUNDO: El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno vasco a destinar la partida incorporada en los presupuestos generales de la CAV para 2017, que acaban de ser aprobados, a estudiar proyectos viables para el Palacio Miramar, que permitan poner en valor esta infraestructura como lugar destinado a diversos usos, entre los cuales se contemple también la exhibición de*

*erakutsi ahal izatea ere egongo dela”.*
==================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren 8an.

*aspectos históricos relativos a su época”.*
==================================

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a ocho de mayo de dos mil diecisiete.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,
Eneko Goia Laso”.

---------------

**15. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Oleta ibarra berrurbanizatzea dela-eta.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu nahi du, Oletako ibarraren berrurbanizazioa dela eta, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA:

Altzako topo geltokiaren obrak egin bitartean, Donostiako Udalak Oletako ibarraren (Herrera) lurzati bat utzi zion Euskal Trenbide Sareari (ETS), obrako tresnak eta materialak gordetzeko eta obrak aurrera eramaten laguntzeko. Geltokia eraiki ostean, lan horiek egin zituen enpresak –ETS, Eusko Jaurlaritzarena– Oletako ibarra (Herrera) urbanizatu gabe utzi zuen, aurrekontua gastatu zela aitzakiatzat hartuta; nahiz eta erakunde autonomikoak lanak amaitzeko konpromisoa

**15. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre la reurbanización de la vaguada de Oleta.**

“Dña. Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN ORDINARIA sobre la reurbanización de la vaguada de Oleta.

JUSTIFICACION:

Durante las obras de ejecución de la estación del Topo de Altza, el Ayuntamiento de San Sebastián cedió la parcela de la vaguada de Oleta (o Herrera) a Euskal Tranbide Sarea (ETS) como espacio para almacenamiento y apoyo a las obras. Tras la ejecución de la estación, la empresa encargada de los trabajos -ETS, dependiente del Gobierno Vasco- dejó sin urbanizar la vaguada de Oleta (o Herrera), con la excusa de que se había acabado el presupuesto, pese a que había un

hartu izan.

Altzako eta Herrerako auzokideek sarri adierazi dute haserre daudela Eusko Jaurlaritzaren jarrerarekin; izan ere, ibarra berriro urbanizatzearen kostuak ordainduko zituela onartu zuen haien aurrean. Hala ere, 2016aren bukaeran, Eusko Jaurlaritzak uko egin zion konpromiso horri, ustez, lanak bukatzeko aurrekonturik ez zegoelako. Donostiako Udalak bere gain hartu du egoeraren ardura eta proiektua egiteko finantzaketa ari da bilatzen. Helburua lurzatia egokitzea da, aparkaleku bat eta behatoki bat jartzeko atsedenleku gisa. Horrez gainera, ibarraren inguruko espaloiak (Herrera pasealekuan) berritzea proposatzen da, egoera negargarrian baitaude.

Hala ere, Udaleko aurrekontuetan ez da partida hori sartzen, eta Gobernu Taldeak adierazi du aztertzen ari direla zer partida aldatu daitezkeen dirua lortu eta eremua berriro urbanizatzeko. Lan horien guztizko kostua 600.000 euro da.

Talde Popularrak Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko Aurrekontuak negoziatu zituenean Eusko Legebiltzarrean, kontu autonomikoetako hasierako kantitatea (200.000 euro) 200.000 euro handitzea lortu zuen; horrek, zalantzarik gabe, proiektuari bultzada bat ematen dio eta Altzako auzokideen eskaerei erantzuten die.

Gutxi gorabehera bost bat hilabeteko epea duen proiektua gehiago atzeratu ez dadin, bozeramaile izenpetzaile honek MOZIO ARRUNT hau aurkeztu nahi du:

Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari

compromiso para ello por parte del organismo autonómico.

Los vecinos de Altza y Herrera han mostrado, en varias ocasiones, su malestar por la forma de proceder en este asunto por parte del Gobierno Vasco, que se comprometió ante ellos a asumir los costes de la reurbanización de la vaguada; compromiso al que renunció a finales de 2016, supuestamente, por la falta de presupuesto para ello. El Ayuntamiento de San Sebastián ha tenido que asumir esta situación y está buscando financiación para la ejecución del proyecto, que consistirá en adecuar la parcela para ubicar un aparcamiento y un mirador, como zona de esparcimiento. Además, se propone renovar las aceras que perimetran la vaguada (en el Paseo de Herrera), y que se encuentran en un estado lamentable.

Sin embargo, las cuentas municipales no incluyen esta partida en sus presupuestos y, según el Equipo de Gobierno, se está analizando qué partidas son susceptilbles de modificarse para consignar el dinero necesario para la reurbanización de la zona, que tiene un coste total, aproximado, de 600.000 euros.

El Grupo Popular en el Parlamento Vasco, en la negociación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma para 2017, ha conseguido aumentar en 200.000 euros la cantidad inicial prevista en las cuentas autonómicas (200.000 euros); lo que, sin duda, da un impulso al proyecto, y atiende las demandas de los vecinos de Altza.

En vista de que no se demore más una actuación cuyo plazo de ejecución es de, aproximadamenete, cinco meses, es por lo que la portavoz que suscribe presenta la siguiente MOCION ORDINARIA:

El Ayuntamiento Pleno solicita al Gobierno

eskatzen dio ahalik eta azkarren jartzea Udalaren esku Eusko Jaurlaritzaren 2017ko Aurrekontuetako aurrekontu-partidak, Oletako ibarra (edo Herrera) berriro urbanizatzeari buruzkoak. Horrela, proiektu hori ahalik eta azkarren eramango da aurrera.

Vasco que, a la mayor brevedad, ponga a disposición del Ayuntamiento las partidas presupuestarias contempladas en los Presupuestos del ejecutivo autonómico para 2017 y que hacen referencia a la reurbanización de la vaguada de Oleta (o Herrera) para poder ejecutar, a la mayor celeridad, dicho proyecto.

Donostian, 2017ko apirilaren 4an

En San Sebastián, a 04 de Abril de 2016

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularreko bozeramailea”.

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, 8.986 donostiarrek eskatutako kontsulta dela eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko martxoaren 20an Pertsonen Batzordean aztertutako “Ministro-kontseiluaren ezezkoa” interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko urriaren 27ko udalbatzarrean, Toki-araubidearen 71. artikuluaren arabera,

**II.2.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la consulta solicitada por 8.986 donostiarras.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción de control a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada el 20 de marzo de 2017 en la Comisión de Servicios a las Personas, en relación a la negativa del Consejo de Ministros.

JUSTIFICACIÓN

En sesión celebrada el 27 de octubre de 2016, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián, en

Donostiako Udalbatzak Espainiar Estatuko Ministro-kontseiluari baimen-eskaera luzatu zion udal instalazioen erabileraren inguruan galdeketa egiteko. Nahiz eta EH Bildutik ez genuen bat egin donostiarrek udal-instalazioen inguruan iritzia emateko Madrili baimena eskatzearekin (hortik gure abstentzioa), ez genuen erabakia oztopatu; batetik, positiboki baloratu genuelako alkateak, pauso harekin, ia 9.000 donostiarren eskaerarekiko konpromisoa erakutsi izana, eta, bestetik, beste bide batzuk ez baztertzea onartu zelako. Izan ere, akordioaren 3. puntu bezala honako hau onetsi zuen gehiengoz Donostiako Udalbatzak:

*Hirugarrena: erabaki honek ez dio uko egiten Udalak bestelako tresna legalak erabiltzeari zezen festen inguruko udalerriko hiritarren borondatea jakiteko.*

2017ko martxoaren 3an, ordea, hilabete eta erdiko luzapena egin ondoren, Espainiar Estatuko Ministro-Kontseiluak erabaki zuen Udalbatzak gehiengoz egindako kontsulta eskaerari ezezkoa ematea. Ezezkoaren arrazoi nagusia da ezin zaiela zezenketak egitearen inguruan herritarrei galdetu, ondare historiko kulturala delako Espainiar Estatuan eta erakundeek berau bultzatzeko betebeharra dutelako.

Hala ere, kontsultaren helburua, hasieratik, ez da izan zezenketen aldeko edo aurkako iritzia jasotzea, baizik eta funtsean Ilunbe bezalako edo bestelako udal-ekipamendu bati zein erabilera eman nahi diogun jakitea; eta azken hori Udalaren eskumena da. Argi geratu zaigu, beraz, ustezko argudio juridikoen atzean, Ministro-Kontseiluaren erabaki politikoa dagoela. Era berean, ez dugu ulertzen zer dela-eta beste hainbat tokitan herritarrei udal-gaiei buruz

cumplimiento del artículo 71 de la Ley de Bases de Régimen Local, solicitó al Consejo de Ministros del Estado Español autorización para poder llevar a cabo una consulta sobre la utilización de las instalaciones municipales. A pesar de que EH Bildu no estaba de acuerdo con que se solicitara autorización a Madrid para que las y los donostiarras manifestaran su opinión respecto a la utilización de dichas instalaciones, nuestro grupo no supuso un obstáculo para la adopción de la citada decisión (nos abstuvimos). Nuestra postura se debió a que, por un lado, valoramos que el alcalde, de ese modo, mostraba su compromiso con lo que solicitaban prácticamente 9.000 donostiarras y, por otro, a que, según se aprobó en aquel pleno, no se descartarían otra vías. En concreto, el Ayuntamiento de San Sebastián aprobó, como punto 3º del acuerdo, un texto en el que se manifestaba que *la decisión adoptada no impedía que el Ayuntamiento pudiera hacer uso de otros instrumentos legales para conocer la voluntad de las ciudadanas y ciudadanos del municipio con respecto a las ferias taurinas.*

El 3 de marzo de 2017, tras una prórroga de mes y medio, el Consejo de Ministros del Estado Español decidió denegar la solicitud de consulta planteada por la mayoría del Pleno Municipal. La razón principal de esta negativa consiste en que no se puede preguntar a la ciudadanía sobre la realización de corridas de toros, ya que se trata de un patrimonio histórico-cultural del Estado Español y, por tanto, las instituciones tienen la obligación de fomentarlo.

Sin embargo, el objetivo de la consulta no es obtener una opinión favorable o desfavorable a las corridas de toros, sino, en definitiva, saber qué uso queremos darle a un equipamiento municipal como el de Illunbe y a otros tipos de equipamiento similares. Y esto es algo que compete al Ayuntamiento. Por tanto, ha quedado claro que tras los presuntos argumentos jurídicos, se encuentra la decisión política del Consejo de Ministros. Por otro lado, no entendemos por qué

galdetu ahal zaien eta Donostian, aldiz, hori egitea debekatzen den. XXI. mendean gatazkak eta arazoak herritarren iritzia entzuten konpontzen direla uste dugu eta ez dugu bat egiten iritzi kontrajarriak sortu dituen gai bati buruz donostiarrek iritzia emateko aukera ukatzearekin. Aitzitik, jarrera hori aurreko mendekoa dela uste dugu.

Zentzu honetan, orain arte egin den bezala, uste dugu alkateak ia 9.000 donostiarren eskaerarekiko eta, funtsean, demokraziarekiko konpromisoarekin aurrera jarraitu behar duela, eta udal instalazioen zezenketa-erabileraren inguruko galdeketa benetan gauzatzeko ahal diren pausoak eta alternatibak plazaratzen jarraitu behar duela. Gainera, bide hori jorratzeko talde politikoon eta Udalbatzaren babesa eta adostasuna izatea lagungarri suerta dakiokeela uste dugu. Ildo horretatik, alkateak martxoaren 3an prentsa-ohar bidez eta hilabete bereko batzordeetan adierazi zuen galdeketa honekiko konpromisoa, eta adierazi zuen Ministro-Kontseiluaren ezezko erabakiarekin ez zuela bat egiten eta, erraza ez izan arren, Udala aztertzen eta pentsatzen ari zela zein beste bide dauden hiriaren eskumena den gai bati buruz donostiarrek iritzia emateko.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Udal-gobernuari eta alkateari, ia 9.000 donostiarrek egindako eskaerari erantzunez, azter eta martxan jar dezala, 2017a amaitu baino lehen, udal instalazioak zezenketetarako erabiltzearen inguruan iritzia-jasotze legezko bat, 2012ko Zestoako eredua, 2017ko Arroka eredua edo

en otros lugares se puede consultar a la ciudadanía sobre cuestiones municipales y en San Sebastián se prohíbe hacerlo. Creemos que en el siglo XXI, los conflictos y problemas se solucionan escuchando la opinión de la ciudadanía y no estamos de acuerdo con que se niegue a las y los donostiarras la posibilidad de expresar su opinión sobre una cuestión que ha despertado opiniones contradictorias. Más bien nos parece que se trata de una actitud perteneciente al siglo pasado.

En este sentido, consideramos que, tal como se viene haciendo hasta ahora, el alcalde debe llevar adelante su compromiso con lo solicitado por casi 9.000 donostiarras y, fundamentalmente, su compromiso con la democracia, y que debe continuar dando pasos y proponiendo alternativas para que se realice la consulta sobre el uso de las instalaciones municipales para festejos taurinos. Además, consideramos que el apoyo y el acuerdo de los grupos políticos y del propio Pleno le puede servir de ayuda en esa tarea. En este sentido, el alcalde manifestó el mismo 3 de marzo, mediante una nota de prensa, y, posteriormente, en las comisiones celebradas ese mes, que mantenía su compromiso con la consulta, y que no estaba de acuerdo con la negativa del Consejo de Ministros. También comunicó que, aunque no era fácil, el Ayuntamiento estaba pensando y estudiando qué otras vías podrían utilizarse para que las y los donostiarras puedan manifestar su opinión en un tema que es competencia de la ciudad.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal y al alcalde a que, en respuesta a la solicitud realizada por casi 9.000 donostiarras, estudie y ponga en marcha, antes del fin de 2017, un modo legal de conocer la opinión de la ciudadanía sobre el uso de las instalaciones municipales para ferias taurinas, siguiendo el

bestelakoa izan daitekeena.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Udal-gobernuari eta alkateari, baldin eta Udalak ez balu antolatuko bere instalazioak zezenketetarako erabiltzearen inguruan iritzi-jasotze legezko bat, lagun dezala hirian gai honen inguruan egin litekeen kontsultak partaidetzarako berme guztiak izan ditzan, eta errespeta dezala kontsulta horren emaitza.

Donostian, 2017ko apirilaren 12a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea".

modelo que se utilizó en Zestoa en 2012, el que se utilizó en Arroka en 2017 o buscando un modo diferente.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal y al alcalde a que, en el caso de que el Ayuntamiento no organice una campaña legal de recogida de opinión sobre el uso de sus instalaciones para corridas de toros, ayude a que la consulta que podría hacerse en la ciudad sobre esta cuestión cuente con todas las garantías de participación. Asimismo, les insta a que respeten el resultado de dicha consulta.

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
portavoz del grupo municipal de EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Alkate-Udalburuak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. Amaia Martín Garín, Dª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, Alcalde-Presidente y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**1. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 – (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EAJ-PNV, (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 – (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

**1. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Elektra eta Roca enpresen ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Elektra eta Roca enpresak Donostian geratzearen inguruko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko martxoaren 10ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legealdian, 2013. urtean, Udal Gobernua Zardoya-Otis enpresarekin harremanetan hasi zen, haren produkzioak Donostian jarrai zezan. Hiru urteren ondoren, Udal Gobernuak akordioa itxi du. Enpresen deslokalizazioak lehen mailako arazoa izaten jarraitzen du, ordea.

**II.2.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las empresas Elektra y Roca.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete a la consideración del Pleno la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, relativa a la permanencia de las empresas Elektra y Roca en Donostia, a consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios para las Personas en la reunión celebrada el pasado 10 de marzo de 2017.

JUSTIFICACIÓN

Durante la pasada legislatura, en el año 2013, el Gobierno municipal contactó con la empresa Zardoya-Otis, para analizar el posible mantenimiento de su actividad productiva en nuestra ciudad. Tres años más tarde, el Gobierno Municipal ha cerrado el acuerdo. Sin embargo, la deslocalización de las empresas sigue siendo un problema de primer orden.

Antzitako plan berezia dela-eta, Roca eta Elektra enpresek beren eraikuntzak utzi beharko dituzte, eta plan bereziaren promotoreek beste lurzoru bat eskainiz edo dirutan konpentsa ditzakete hauek galtzen dituzten instalazioak. Gure ustez, Donostiako Udalak bi enpresa hauek gure hirian jarrai dezaten apustua egin beharko luke.

Debido al plan especial de Antzita, las empresas Roca y Elektra deberán desalojar sus edificios, y la pérdida de estas instalaciones podrá ser compensada, por parte de los promotores del plan especial, con la oferta de otra parcela o con el abono de la cantidad correspondiente. En nuestra opinión, el Ayuntamiento de San Sebastián debería apostar por la permanencia de estas dos empresas en nuestra ciudad.

Jakin badakigu egoera eta errealitate desberdinez ari garela, Zardoya-Otis eta Elektra-Rocaren kasuetan, baina Udal Gobernuaren apustuak irmoa izan behar du.

Somos conscientes de que la situación es distinta en los casos de Zardoya-Otis y Elektra-Roca, pero el Gobierno Municipal debería hacer un esfuerzo en esa dirección.

Iazko apirilean, batzordean, galdera bat aurkeztu genuen gai honen harira, baina ez genuen taxuzko erantzunik jaso; hau da, Udal Gobernuaren benetako lanketa falta agerian geratu zen. Hori dela-eta, maiatzeko udalbatzarrean, mozioa aurkeztu genuen, aho batez onartu zena, enpresa hauek gure hirian geratzeko helburuarekin. Hamar hilabete pasatu eta gero mozioa ez da gauzatu.

En abril del año pasado, nuestro grupo presentó una pregunta sobre el tema en la comisión, pero no hemos obtenido una respuesta clara al respecto, lo cual evidencia un desinterés por parte del Gobierno municipal. En vista de ello, en el pleno de mayo presentamos una moción, que fue aprobada por unanimidad, con el objetivo de que las citadas empresas continúen en nuestro municipio. Diez meses más tarde, la moción no ha sido cumplida.

Aurtengo apirilean zinegotzi-ordezkariak akordiorik ez dela lortu onartu du; Elektrak Eskuzaitzetara joatea ondo ikusten duela, baina Roca enpresarena ez duela hain garbi ikusten.

En abril del presente año, el concejal delegado ha reconocido que no se ha llegado a dicho acuerdo; que la empresa Elektra ve con buenos ojos su traslado a Eskuzaitzeta, pero que el caso de Roca no está tan claro.

Enpresak ez deslokalizatzeko edota berriak erakartzeko Udalak plangintzarik ez izatea argi ikus daiteke; bi enpresa hauen kasua adibide gisa har dezakegu.

Tomando como ejemplo el caso de estas dos empresas, podemos ver claramente la falta de planificación municipal para hacer frente a la deslocalización de empresas y para la atracción de nuevas.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du.

Es por ello que el concejal que suscribe presenta la siguiente moción de control:

MOZIOA

MOCIÓN

1-Udalbatzak irmoki eskatzen dio Udal Gobernuari plangintza bat landu dezala, Donostian deslokalizazioak saihetsi eta enpresa berriak erakartzeko gaitasuna izan dezan

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

1.- El Ayuntamiento en Pleno insta al Gobierno Municipal a que elabore un plan para que Donostia sea capaz de evitar la deslocalización de empresas existentes y de atraer a otras nuevas.

En Donostia, a 12 de abril de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Idazkari jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, D. Enrique Ramos Vispo, Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y Sr. Secretario, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Dbus-eko tarifak direla eta.**

"Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 10ean Gune Publikoko Batzordean aztertutako "Mugi eta Interoperatibitatea"

**II.2.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las tarifas de Dbus.**

"Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación relativa a la tarjeta Mugi y la

interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailean dBusen 45. lerroan hasitako BAT (Araba) eta BARIK (Bizkaia) txartel bidezko ordainketa aukera konpainiaren gainontzeko lineetara zabaldu zen duela gutxi, autobusen ordaintze-makina guztiak egokituta. Erkidegoan mugikortasunerako txartel eta sistema bakarra edukitzeko bidean, aurrerapauso handia da zalantza gabe, baina interoperatibitate sistema honek desberdintasun egoera deigarri bat eragin du: izan ere, BAT eta BARIK txartela duten herritarrek MUGI anonimoa dutenek baino gutxiago ordainduko dute dBusen lineak erabiltzeagatik. Apirilean tarifa berriak indarrean sartu diren honetan, hurrenez hurren, 0,93€ (% 45eko deskontua) eta 1,15€ (% 32ko deskontua).

Hori dela eta, hainbat kexa jaso ditugu donostiarren aldetik. EH Bildutik ez dugu zalantzan jartzen neurriak hartu behar direla MUGI anonimoa murriztu eta MUGI arrunta edo pertsonala sustatzeko, baina horrek ez luke suposatu behar inondik inora donostiarrek bizkaitarrek edo arabarrek baino garestiago ordaintzea dBuseko zerbitzuen truke. Aipatzekoa da, gainera, 2016. urteko memoriaren arabera, dBusen urtean egindako 28,5 milioi bidaien % 12,73 (3,6 milioi bidai) MUGI anonimoaren bitartez egin direla; beraz, desberdintasun honen ondorioz kaltetutako donostiarrak asko izan daitezke. GGLA-k aitortzen duen bezala, txartel anonimoa egokia da taldeentzat; ikastetxeak, enpresak... izan daitezkeen bezala.

interoperatividad, tratada en la Comisión de Espacio Público de 10 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

La opción de pagar con las tarjetas BAT (Araba) y BARIK (Bizkaia), que se introdujo en febrero en la línea 45 de Dbus, se ha extendido recientemente al resto de las líneas de la citada compañía, adaptando para ello todas las máquinas de pago de que se disponen en los autobuses. Aunque, sin duda, esta opción ha supuesto un gran avance para la implantación de la tarjeta única y del sistema único de movilidad en la comunidad autónoma, este sistema de interoperatividad ha generado una situación de desigualdad sorprendente, ya que las personas que poseen la tarjeta BAT y BARIK pagarán menos que aquellas que poseen la tarjeta anónima MUGI por utilizar las líneas de dBUS. Esta situación se produce tras la entrada en vigor, en abril, de las nuevas tarifas: 0,93 euros (descuento del 45 %) y 1,15 euros (descuento del 32 %), respectivamente.

Como consecuencia de ello, hemos recibido varias quejas por parte de la ciudadanía donostiarra. EH Bildu no pone en duda que sea necesario adoptar medidas para reducir la tarjeta anónima MUGI y promover la tarjeta ordinaria o personal MUGI, pero ello no debe suponer, de ninguna manera, que los y las donostiarras tengan que pagar más que los vizcaínos y las vizcaínas o los alaveses y las alavesas por los servicios de dBus. Además, cabe señalar que, según la memoria del 2016, el 12,73 % (3,6 millones de viajes) de los 28,5 millones de viajes que se registraron en todo el año en dBus se abonaron con la tarjeta anónima Mugi, y que, por tanto, esta desigualdad puede perjudicar a una parte considerable de la ciudadanía donostiarra. Tal y como reconoce la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, la tarjeta anónima es

adecuada para los grupos, como pueden ser los centros escolares, las empresas etc.

Donostiako Udala dBusen jabe da eta Udal-gobernuko ordezkarien bitartez Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzaren kide ere bai, eta ondorioz, badugu ardura egoera honetan.

El Ayuntamiento de San Sebastián es el propietario de dBus, y también es miembro de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, a través de los y las representantes del Gobierno municipal, por lo que tenemos nuestra responsabilidad en esta situación.

Apirilaren 10eko batzordeetan, gaiaz galdetuta, Udal-gobernutik honako hau erantzun zitzaigun geure harridurarako: erabakia, interoperatibitate hitzarmenean paktatutakoaren baitan, Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzan hartu zela eta MUGI anonimoaren erabiltzaileek BAT eta BARIK anonimoaren erabiltzaileek bezainbeste ordaintzen dutela. Horrez gain, adierazi zitzaigun erabaki horiek guztiek MUGI txartela sustatzea dutela helburu eta, edozein kasutan, BAT eta BARIK anonimoak ez direla izatez, anonimoak.

En contestación a una pregunta que presentamos en la comisión del 10 de abril sobre esta cuestión, el Gobierno municipal señaló, para nuestra sorpresa, que la decisión se adoptó en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, dentro de lo pactado en el convenio de interoperatividad, y que las personas usuarias de la tarjeta anónima MUGI pagan lo mismo que las personas usuarias de la tarjeta anónima BAT y BARIK. Además, señaló que el objetivo de dichas decisiones era promover la tarjeta MUGI, y que, en cualquier caso, las tarjetas anónimas BAT y BARIK no son, de por sí, anónimas.

Egun hauetan, ordea, egiaztatu dugu, txartel horien web-orriak eta zerbitzu-eskaintzak kontsultatuta, batetik, BAT orokor anonimoak eta BARIK anonimoak izan-badirela eta indarrean jarraitzen dutela ondoko ezaugarriekin: txanpon-txartel eskualdagarri zuriak dira, datu pertsonalik eta argazkirik gabeak, eta BARIKen kasuan gehienez ere 10 lagun elkarrekin bidaiatu daitezke. Bestetik, frogatu dugu arabar eta bizkaitarren BAT eta BARIK anonimoaren erabiltzaileek 0,93 € ordaintzen dutela dBuseko lineak erabiltzearen truke eta MUGI anonimoa duten donostiarrek eta gipuzkoarrek, ordea, garestiago (1,15€ ordaindu behar dute). Izan ere, BAT eta BARIK anonimoaren tarifak MUGI pertsonalizatuaren lehen tarteko (1-20) tarifaren baliokide izateko erabaki politikoa hartu zen.

Sin embargo, estos días hemos consultado las páginas web correspondientes a dichas tarjetas así como las ofertas de servicio, y hemos comprobado que, por una parte, sí que existen las tarjetas generales anónimas BAT y las tarjetas anónimas BARIK y que permanecen vigentes, con las siguientes características: son tarjetas monedero blancas y transferibles, que no contienen datos personales ni foto; en el caso de la tarjeta BARIK, el número máximo de personas que pueden viajar juntas es de 10. Por otro lado, hemos comprobado que las personas usuarias de las tarjetas anónimas BAT y BARIK de Álava y Bizkaia pagan 0,93 € por utilizar las líneas de dBUS y que, los y las donostiarras así como los guipuzcoanos y las guipuzcoanas deben abonar 1,15 €. El motivo de ello es que se tomó la decisión política de equiparar las tarifas de las tarjetas anónimas BAT y BARIK

con la tarifa correspondiente al primer tramo (1-20) de la tarjeta personalizada MUGI.

Esandakoagatik, hartutako erabaki horiek, MUGI txartela sustatzea baino, anonimoa duten donostiarrek BAT eta BARIK txartel anonimoak erosi eta erabiltzea sustatzen dutela uste dugu, Donostian bidaiatzea merkeago ateratzen baitzaie; egoera ilogikoa eta kontrajarria aipatutako helburuekin alderatuta. Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo lo expuesto, creemos que dicha decisión, en lugar de promover la tarjeta MUGI, promoverá la adquisición y el uso de las tarjetas anónimas BAT y BARIK por parte de los y las donostiarras que poseen la tarjeta anónima MUGI, ya que así les resulta más económico el transporte dentro de San Sebastián, algo totalmente ilógico y contrapuesto a los objetivos que se pretenden. Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ahalik eta epe laburrenean aurkez dezala proposamen bat Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzan, MUGI anonimoa duten donostiarrek ez dezaten BARIK eta BAT-en txartel anonimoa duten herritarrek baino tarifa garestiagoa ordaintzen jarrai, dBuseko udal zerbitzu eta lineak erabiltzearen truke.

Donostian, 2017ko apirilaren 12a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que presente, en el plazo más breve posible, una propuesta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, para que los y las donostiarras que poseen la tarjeta anónima MUGI no tengan que abonar una tarifa más cara que los ciudadanos y las ciudadanas que poseen las tarjetas anónimas BARIK y BAT por utilizar los servicios y las líneas municipales de dBUS.

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Loïc Alejandro, Dª. Pilar Arana Pérez y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.4. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, mugikortasuneko eta Carlos I-eko inbertsioen ingurukoa.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Mugikortasun Departamentuaren eta Carlos I-eko inbertsioen inguruko, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Gune Publikoen Batzordean 2017ko apirilaren 10eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Mugikortasun atalean, birgaitzeko partidako 119.870,38 euro eta datuen integraziorako (komunikabideen aurrean aurkeztutako proiektua) 331.977,74 euro ez dira erabili. Gainera, 2017ko aurrekontura ez dira pasako. Beraz, departamenduak diru hori galdu egingo du. 2016ko likidazioan horrela agertzen da.

Bestalde, 2015eko aurrekontuan, Carlos I-ean Foru Aldundiaren lanak bukatu eta gero, birmoldaketa jarraitzeko asmoz Udalak 225.000 euro aurreikusi zituen. Beste helburu batzuetarako erabili den partida hartan, 147.204,95 euro ukitu gabe gelditu dira eta,

**II.2.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las inversiones de movilidad y Carlos I.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su tratamiento en el Pleno, en relación con las inversiones del Departamento de Movilidad y con aquellas relativas a Carlos I. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público el 10 de abril de 2017.

JUSTIFICACIÓN

El Departamento de Movilidad ha dejado de utilizar 119.870,38 euros de los asignados a la partida de rehabilitación, y ha hecho lo mismo con 331.977,74 euros, cuya finalidad era la integración de datos (proyecto que se presentó ante los medios de comunicación). Además, estas cantidades no se transferirán al presupuesto de 2017, por lo que el Departamento perderá dicho dinero, tal como consta en} la liquidación de 2016.

Por otra parte, en el presupuesto de 2015, el Ayuntamiento previó 225.000 euros para continuar con la rehabilitación de Carlos I, después de que la Diputación Foral finalizara las obras que llevó a cabo en ese lugar. En dicha partida, que ha sido utilizada para otros

aurrekoak bezala ere, galdu egingo dira. Sinesgaitza. Batez ere, kontuan hartzen badugu Carlos I-ean hobekuntzak egiteko borondatea agertu duela zinegotzi-ordezkariak.

fines, 147.204,95 euros han quedado sin utilizar; estos también se perderán, como los anteriores. Resulta increíble. Sobre todo, si se tiene en cuenta que la concejala delegada ha mostrado su voluntad de llevar a cabo las mejoras de Carlos I.

Batzordean, hobekuntza horiek asmo hutsak direla argi geratu da: gaur arte Pilar Aranak ez du ezer egin, eta hemendik aurrera dirua ere ez du izango.

Sin embargo, en la Comisión ha quedado claro que esa voluntad de realizar mejoras se queda en mera intención: hasta hoy, Pilar Arana no ha hecho nada y, en adelante, ni siquiera contará con el dinero necesario para hacerlo.

Hori dela-eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du behean sinatzen duen zinegotziak:

Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

KONTROL MOZIOA

1-Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Carlos I-ean hobekuntzak egiteko aurreikusita zegoen partida berriro ere aurrekontuan jaso dezala.

2- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio komunikabideen aurrean aurkezten dituen proiektuak, datuen integrazioa kasu, gauzatu ditzala gero.

Donostian 2017ko apirilaren 12an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento solicita al Gobierno Municipal que vuelva a incluir en el presupuesto la partida prevista para la realización de mejoras en Carlos I.

2.- El Pleno del Ayuntamiento solicita al Gobierno Municipal que lleve a cabo los proyectos que presenta ante los medios de comunicación, como, por ejemplo, el relativo a la integración de datos.

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martin, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, Dª. Pilar Arana Pérez y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 6 – PSE-EE.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.5. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, auzo-elkarteen lokalak egokitzeko laguntza ekonomikoa dela eta.**

“Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 10ean Pertsonen Batzordean aztertutako “Elkarteen lokalak egokitzeko

**II.2.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la ayuda económica para acondicionar los locales de las asociaciones de vecinos.**

“Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación sobre el presupuesto para

aurrekontua" interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtez urte, Donostiako Udalak, Partaidetza Programaren aurrekontuetan, elkarteei lagatako lokalak berritu edo egokitzeko kontu-saila izan du. 2016. urteko aurrekontuetan, adibidez, 50.000 euroko aurrekontua ezarria zuen 6. kapituluan (622.99.02 "Auzo elkarteen lokal berriak prestatu"). Kontuen likidazioan, ordea, gure harridurarako, ikusi dugu aurrekontu hori ez dela baliatu.

Ez dugu uste arrazoia denik berritzeko beharrizanik ez egotea. Izan ere, 2016ko martxoko udalbatzarrean, aho batez onartu genuen talde politiko guztiok Morlanstarrak auzo elkartearen lokala eraberritzeko ondoko konpromisoa:

Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egokitzerako proiektua idazteko eta obrak gauzatzeko beharrezko laguntza eman dezala Morlanstarrak elkarteak Morlans-ko auzotarren erabilerarako udal lokal duina izan dezan.

Horrekin batera, uste dugu beste lokal eta elkarte batzuen aldetik birgaitze-beharrizan gehiago izango zirela. 2017ko apirilaren 10eko batzordeetan gaiaz galdetuta, erantzun zitzaigun Gobernutik, mozioaren betekizunean, 2016ko aurrekontua Morlanstarrak elkartearen lokala egokitzeko erabiltzea erabaki zuela Udal-gobernuak, baina ezinezkoa izan dela

acondicionar los locales de las asociaciones, presentada a la Comisión de Servicios a las Personas el 10 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Año tras año, el Ayuntamiento de San Sebastián, dentro del Programa de Participación, ha asignado una partida presupuestaria a la realización de obras de renovación y acondicionamiento de los locales cedidos a las asociaciones. Así, por ejemplo, en el presupuesto de 2016, asignó la cantidad de 50.000 euros a la partida 622.99.02, del capítulo 6, con el objetivo de acondicionar locales para las asociaciones de vecinas y vecinos. Sin embargo, en la liquidación presupuestaria hemos comprobado con sorpresa que el presupuesto asignado a dicha partida no ha sido ejecutado.

Y no creemos que el motivo sea la falta de necesidad de renovación de estos locales. De hecho, en el Pleno de marzo de 2016, se aprobó por unanimidad el siguiente compromiso sobre la renovación del local de la asociación Morlanstarrak.

El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que aporte la ayuda necesaria para la redacción del proyecto de acondicionamiento y para la realización de las obras, con el objetivo de que la asociación Morlanstarrak disponga de un local municipal digno para uso de los vecinos y vecinas del barrio.

Además, suponemos que habrá más locales y asociaciones con necesidades de rehabilitación. Preguntado en las comisiones del 10 de abril de 2017, el Gobierno municipal nos respondió que, en cumplimiento de la moción, decidieron utilizar el presupuesto de 2016 para las obras de adecuación del local de la asociación Morlanstarrak, pero que esto

urte horren amaieran oraindik proiektu basikoa itxi gabe zegoelako. Ondorioz, 2017ko aurrekontura inkorporatzea eskatu zela eta dagoeneko egokitze-proiektua amaituta dagoenez, epe ertainera obrak hasi eta kontu-saila baliatuko zela. Horrez gain, gaineratu zitzaigun aurtengo aurrekontuari dagokion kontu-sailaren erabilera azterketa-fasean zegoela.

no fue posible, porque a finales de ese año el proyecto básico estaba todavía sin cerrar. En consecuencia, se solicitó que se incorporara al presupuesto de 2017 y, ahora, como el proyecto de acondicionamiento ya está finalizado, se nos dijo que a medio plazo comenzarían las obras y se haría uso de la partida presupuestaria. Además, nos comunicaron que la utilización que se iba a dar a la partida correspondiente al presupuesto de este año estaba en fase de estudio.

Dena dela, egiaztatu dugunez, 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren kitapen txosteneko soberakinen atalean, “622.99.02 Auzo elkarteen lokal berriak prestatu” kontu-saila ez da 2017ko aurrekontura inkorporatu eta ondorioz, 50.000 € horiek galdu egin dira auzotarren elkarteak hobetzeko erabilerarako. Gainera, Udalari eta talde honi ere adierazi zaien moduan, Morlanstarrak elkarteaz gain, badira Donostian beste hainbat auzo-elkarte lokala eraberritzeko beharra dutenak. Zentzu honetan, garrantzitsua da aipatzea Donostiako auzo-elkarte gehienen lokalak udal jabetzakoak direla; beraz, auzotarrei laguntzeaz gain, Udalaren ondarea ere hobetzen dugu laguntza ekonomiko horien bitartez.

En cualquier caso, tal como hemos comprobado, en la sección de remanentes del informe de liquidación del presupuesto del ejercicio 2016, no se ha incorporado al presupuesto de 2017 la partida 622.99.02, destinada a acondicionar locales para las asociaciones de vecinas y vecinos, y, en consecuencia, esos 50.000 € se han perdido para el uso al que estaban destinados, y que no era otro que dotar de mejoras a las asociaciones de vecinos y vecinas. Por otro lado, tal como se ha comunicado al propio Ayuntamiento y a este grupo, además de Morlanstarrak, existen otras asociaciones de vecinas y vecinos en San Sebastián que necesitan renovar sus locales. En este sentido, es importante destacar que los locales de la mayoría de este tipo de asociaciones en San Sebastián son de propiedad municipal, por lo que, gracias a estas ayudas económicas, además de proporcionar una ayuda a las vecinas y vecinos, también mejoramos el patrimonio municipal.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako auzotarren elkarteak hiriaren interes publikoko baina gaitasun ekonomiko urriko agenteak izaki, Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari, aurrerantzean,

1.- Al ser las asociaciones de vecinas y vecinos de San Sebastián agentes de interés público para la ciudad pero con escasa capacidad económica, el Pleno del

erabil eta exekutatu ditzala euren lokalak egokitu eta hobetzera bideratutako urtez urteko kontu-sailak.

Donostian, 2017ko apirilaren 12a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que, en adelante, utilice y ejecute las partidas anuales destinadas al acondicionamiento y mejora de los locales de dichas asociaciones.

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Loïc Alejandro, Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Sustapeneko sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio eta jardute protokoloa dela eta.**

"Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko azaroko Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren

**II.2.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación al protocolo de prevención y actuación contra el acoso sexual y el acoso sexista de Fomento.**

"Naiara Sapedro Perez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, como consecuencia de la interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a

ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko azaroko Pertsonen Zerbitzu Batzordean, Sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako Sustapeneko prebentzio eta jardute Protokoloaren inguruan interpelatu genuenean, lan batzordean lantzen ari zela, Udaleko Berdintasunerako Batzordearekin kontrastatu eta abenduaren 31erako Sustapeneko Hitzarmenarekin batera onartuko zela adierazi zigun Udal Gobernuak.

Martxoan jakin genuenaren arabera, ordea, Hitzarmena luzatu da eta ez da protokolo berria onartu. Hori gutxi balitz bezala, Udaleko Berdintasunerako Batzordearekin kontrastatu ez dela ere jakin dugu.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udaleko Berdintasunerako Batzordearen maiatzeko bileran Sexu jazarpen eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako Sustapeneko prebentzio eta jardute protokoloaren zirriborroa aurkez dezala eta lantzen has dadila.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia”.

las Personas que se celebró en noviembre de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Servicios a las Personas que se celebró en noviembre de 2016, al interpelar sobre El protocolo de prevención y actuación frente al acoso sexual y por razón de sexo en fomento de San Sebastián, el Gobierno Municipal respondió que se estaba trabajando en la comisión de trabajo y que, tras someterlo al contraste de la Comisión municipal para la igualdad, sería aprobado, junto con el convenio de Fomento, antes del 31 de diciembre.

Sin embargo, este pasado mes de marzo hemos sabido que el convenio ha sido prorrogado, pero que el nuevo protocolo no ha sido aprobado. Y, si por si ello fuera poco, también hemos sabido que tampoco ha sido contrastado por la Comisión municipal sobre igualdad.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en la reunión que la Comisión municipal de igualdad celebrará en mayo, se presente y se comience a trabajar ya el borrador del Protocolo de prevención y actuación frente al acoso sexual y por razón de sexo en fomento de San Sebastián.

En Donostia, a 12 de abril de 2017

Naiara Sampedro Perez,
concejala de EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Naiara Sampedro Perez, Dª. Amaia Martín Garín y Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Garberaren zabalkundea eta klima Estrategia DSS50 lerrokatzea direla eta.**

“Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Garberaren zabalkundea eta klima Estrategia DSS50 lerrokatzea direla eta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordearen 2017ko martxoaren 10eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 28an, Merkataritzako Aholku Batzordea egin zen. Alkateak sinatutako gai ordenan, zortzigarren puntuan, Klima 2050 estrategia landu zen. Ingurumeneko zuzendariak azaldu zuen bezala, udal aholku

**II.2.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la alineación de la ampliación de Garbera y la Estrategia Clima DSS50.**

“Josu Mirena Ruiz Martin, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, relativa a la ampliación de Garbera en relación con la Estrategia Clima DSS2050, para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada el 10 de marzo de 2017 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El 28 de febrero, se reunió el Consejo Asesor del Comercio. Tal y como figuraba en el punto octavo del orden del día firmado por el alcalde, en dicho consejo se trató el tema de la Estrategia Clima 2050. Según explicó el

kontseilu guztietan txostenaren aurkezpena egin behar zuten, zehar lerro bat delako eta udal politikek honekin lerrokatuta egon behar dutelako. Txostenean azaldutako hainbat puntu honako hauek dira, besteak beste:

-Parisko Hitzarmena (2015). "2015eko abenduan, berotegi efektuko gasak murrizteko lehenengo hitzarmen globala sinatu zen Parisen; funtsezkoa urrats bat eman zen, beraz, munduko politika klimatikoari begira" (6. orrialdea)

-3.Erantzukizuna hiriena ere bada. " Hirien garrantzi hori joan den abenduan Parisen sinaturiko testuan onartu da lehenengo aldiz"."... Alkateen itunaren bitartez, Europa osoko 6.000 tokiko erakundek baino gehiagok Europak energiari eta klima aldaketari dagokienez ezarritako helburuetatik harago joateko konpromisoa hartu dute". "Donostiak klimaren erronkaren aurrean erreakzionatzeko duen gaitasuna jasangarritasunaren eta kulturaren arloetan dituen lidergo ezagunetik planteatu da, baita erdigune deneko hiri ingurunea dinamizatzeko duen gaitasunetik ere" (9. orrialdea)

-7.Ildo estrategikoak. 2. Bizimodua. "Berotegi efektuko gasen isurketan eragina dute mugikortasunean ditugun jokabideek, elikadura ohiturek, aisialdi eta kontsumo ohiturek, hondakinak kudeatzeko moduak, eta azken batean, gure bizimoduaren eta kulturaren ezaugarri guztiek. Hori dela eta, eguneroko bizitzan egin ditzakegun aldaketak ulertzea eta zaintzea izan behar da klima estrategiaren funtsezko ardatzetako bat" (20. orrialdea)

-8. Klima aldaketaren kontrako borrokarako esparruak eta erronkak. "B) Jendearen mugikortasuna eta merkantzien fluxua: -gertutasuna, -Mugikortasun motorizatua

director de Medio Ambiente, el informe se iba a presentar en todos los consejos asesores municipales, ya que se trata de un eje transversal y las políticas municipales deben alinearse con él. Estos son algunos de los puntos que recoge el citado informe:

-“El Acuerdo de París (2015)”. “En diciembre de 2015, se firmó en París el primer acuerdo global de reducción de emisiones de gases de efecto invernadero, lo que significa un paso trascendente en la política climática mundial.”

-3. “Una responsabilidad también de las ciudades”. “Esa importancia de las ciudades ha sido reconocida por primera vez en el texto aprobado en París el pasado diciembre.” ”… Pacto de Alcaldes, la iniciativa por la que más de 6.000 instituciones locales (…) de toda Europa se comprometen a ir más allá de los objetivos europeos en energía y cambio climático.” “La capacidad de reacción de la ciudad ante el reto climático se plantea desde su reconocido liderazgo en materia de sostenibilidad y cultura. Y sobre su capacidad dinamizadora del conjunto urbano del que es polo principal.”

-7. “Ejes estratégicos”. 2. “Modos de vida”. “Los hábitos y comportamientos en la movilidad, los estilos alimentarios, de ocio y de consumo, la forma en que manejamos nuestros residuos, en definitiva, todos los rasgos de nuestro estilo de vida, de nuestra cultura, tienen repercusiones en la emisión de gases de efecto invernadero y, por tanto, un eje fundamental de la estrategia climática ha de ser entender y atender las opciones de cambio.”

-8. “Los ámbitos de la acción contra el cambio climático”. “Movilidad de personas y flujos de mercancías”: “-Proximidad-Reducir la movilidad motorizada-Reducir la movilidad

murriztea, -Erregai fosiletan oinarrituriko mugikortasuna murriztea" (21-22. orrialdeak)

basada en combustibles fósiles".

Txostena kontuan hartuta, ez dugu ulertzen hor jasotako ildo estrategikoak eta erronkak nola uztartzen diren Garberaren zabalkundearekin. Gogoratu behar dugu Garberako zabalkundea gauzatzeko, hirigintzako Plan Orokorra aldatu behar dela (tramitean dago) eta lehenengo onarpena Pariseko hitzarmena eta gero eman zela, zehazki zazpi hilabetetara. Eneko Goia alkatea Parisen izan zen, beste 1.000 hautetsiren artean, COP21 gailurrean. Compact of Mayors sarearen baitan elkartu ziren estatu eta erakunde publikoetako administrazioak klima aldaketarekiko helburuen betekizunekin lotuta geratu ziren. Aintzat hartu behar da, gainera, Garbera berrian kotxeen parkinga, gaur egungo parkingarekin alderatuta, hiru aldiz handiagoa izango dela: 80.000 metro karratu. Beraz, hiriko mugikortasunean eragin zuzena izango du.

No entendemos cómo pueden compatibilizarse los ejes estratégicos y los retos definidos en el informe con la ampliación de Garbera. No podemos olvidar que, para ejecutar dicha ampliación, es necesario modificar el Plan General de Urbanismo y que la aprobación inicial de esta modificación (actualmente en trámite) se produjo después de que se suscribiera el Acuerdo de París, exactamente, siete meses más tarde. El alcalde, Eneko Goia, estuvo en París, junto con otros 1.000 cargos electos, en la cumbre COP21. Las administraciones de los estados e instituciones públicas que se agruparon en la red Compact of Mayors se comprometieron con el cumplimiento de los objetivos establecidos con respecto al cambio climático. Por otro lado, hay que señalar que el aparcamiento que se prevé construir en Garbera, tendrá una superficie de 80.000 metros cuadrados, es decir, tres veces más que el actual, lo que tendrá un impacto directo en la movilidad de la ciudad.

Batzordean alkateak ez zuen erantzun. Beraz, ez dakigu zein konpromiso hartu zuen Parisen. Dirudienez, han egindako argazkia markenting hutsa izan zen, eta DSS2050 Klima Estrategiaren ibilbidearen hasiera bera zalantzan jarri du. DSS2050 Klima Estrategiak nolako sinesgarritasuna izan dezake, aldi berean, Garbera zabaltzeko urratsak ematen badira, hura eta han hartutako konpromisoak kontuan izan gabe? Compact of Mayors sareak, gailur hartatik harago, eginkizun garrantzitsuak dituenez, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du behean sinatzen duen zinegotziak:

El alcalde no dio ninguna respuesta en la Comisión. Por lo tanto, no sabemos qué compromisos adquirió en París. Parece que la fotografía de París era puro marketing, puesto que ya ha empezado a poner en duda la Estrategia Clima DSS2050 en sus mismos comienzos. ¿Qué credibilidad puede tener la Estrategia Clima DSS2050 si, simultáneamente, se están dando pasos para ampliar Garbera, sin tener en cuenta dicha estrategia y los compromisos adquiridos en torno a ella? La red Compact of Mayors tiene importantes cometidos, que van más allá de aquella cumbre, y es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1- Donostiako Udalbatzak Alkateari eskatzen

1- El Pleno del Ayuntamiento de San

dio Garberako zabalkundearen proiektua eta berau gauzatzeko hirigintzako Plan Orokorraren aldaketa eta Eusko Jaurlaritzak 2016ko uztailaren 27an onartutako Donostialdeko Lurralde Plan Partzialaren Dekretua (121/2016) Compact of Mayors sareari helaraz diezazkiola proiektua haren osotasunean ondo uler dezan.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Sebastián solicita al alcalde que haga llegar a la red Compact of Mayors el proyecto de ampliación de Garbera, junto con la modificación del Plan General de Urbanismo –necesaria para llevar a cabo dicha ampliación–, además del Decreto 121/2016, por el que el Gobierno Vasco aprobó definitivamente, el 27 de julio de 2016, el Plan Territorial Parcial de Donostialdea, para que esta entidad pueda conocer el proyecto en su totalidad.

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Josu Ruiz Martín, Dª. Amaia Martín Garín, D. Alfonso Gurpegui Ruiz y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, jatorrizko Kontxako barandaren etorkizuna dela-eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU

**II.2.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el futuro de la barandilla original de La Concha.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala

udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko apirilaren 10ean Gune Publikoen eta Obra eta Hiri Zerbitzuen Batzordean aztertutako Kontxako barandaren inguruko interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Polemika piztu da, berriro ere, hiriko ondarearen inguruan, Udala Kontxan egiten ari den lanen berri izandakoan. Martxoaren lehen hamabostaldian zabaldu ziren argazkien bidez ikusi genuen Kontxako Erlojuetako ingurua birrindua, induskatzeko makinaren ondoan. Martxoaren bukaeran zinegotzi-ordezkariak eman dituen azalpenen arabera, “forjatuak oso egoera txarrean zeuden ...eta barruan duten altzairua herdoiltzen ari da”. Azalpen horretan, aitzitik, ez zuen babestuta dauden elementuen inguruko aipamenik egiten -baranda eta barandari eusten diotenak, kasu- eta ez zuen argitu elementu horiek, zabaldutako irudiek iragartzen zuten moduan, harri anabasan kaltetuta geratu ote ziren.

1999an baranda osorik berritu zenean, 271 piezak banan bana kendu, berritu eta berriz ere jarri ziren. Horregatik, obrak hasi arte bertan direnak (edo ukitu ez diren zonaldeetan daudenak) duela 100 urte Juan Rafael Alday udal arkitektoak diseinatu eta bere agindupean jarri ziren berberak dira. Mozio honi bide eman zion interpelazioan gogorarazi genuen moduan, Kontxako Erlojuetako zatien artean berezitasun bat zegoen: itsasoari begira dagoen lorea duen zatia, guztien artean are eta bereziagoa.

del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación sobre la barandilla de la Concha, presentada en la Comisión de Espacio Público (Obras y Servicios) el 10 de abril de 2017.

JUSTIFICACIÓN

Ha vuelto a surgir la polémica en torno al patrimonio de la ciudad, al darse a conocer los trabajos que está llevando a cabo el Ayuntamiento en La Concha. En unas fotografías que se difundieron durante la primera quincena de marzo, vimos los alrededores de los relojes de La Concha hechos añicos, al lado de una excavadora. Según las explicaciones dadas por el concejal delegado a finales de marzo, los forjados se encontraban en muy mal estado y el acero de su interior se está oxidando. Sin embargo, no dijo nada sobre los elementos protegidos, como la barandilla y los elementos que la sustentan, y no aclaró si dichos elementos habían resultado dañados en el revoltijo de piedras, tal como parecía desprenderse de las imágenes difundidas.

Cuando, en 1999, la barandilla se renovó en su totalidad, se retiraron 271 piezas de una en una, se restauraron y volvieron a colocarse. Por lo tanto, las piezas que estaban allí antes de comenzar las obras (y las que se encuentran en zonas que no se han tocado) son las mismas que, hace cien años, diseñó el arquitecto municipal Juan Rafael Alday, y que fueron colocadas bajo su dirección. Tal como recordamos en la interpelación que ha servido de base a esta moción, un elemento de los relojes de La Concha reunía una característica especial: el elemento que contiene la flor que mira al mar, la pieza más especial de todas.

Honetaz galdetuta zinegotzi ordezkariak azaldu zuen erabakita dagoela jatorrizko pieza kendu eta beste bat jartzea; helburua dela, izan ere, molde berri bat egitea eta horrekin, hemendik aurrera, zati guztiak egitea. Esan ere egin zuen jakitun zela zonalde horretako berezitasunaz, baina nola berrituko den oraindik ere erabakitzeke dagoela. Aurreratu zuen, halaber, kendutako zatiak udal biltegira eramateko asmoa, baina etorkizunean beraiekin zer egin ez duela erabaki Udal Gobernuak. Batzordean ere mintzagai izan zen gai hauen ezagutza nork ote duen edo/eta nori galdetu behar zaion.

Preguntado por esta cuestión, el concejal delegado manifestó que se había decidido retirar la pieza original y colocar otra en su lugar, con el objetivo de fabricar un nuevo molde para, en adelante, poder hacer con él todas las piezas. También dijo que era consciente de las características especiales de la zona en cuestión, pero que todavía estaba por decidir cómo se renovaría. Por otro lado, anunció que tenían la intención de llevar las piezas retiradas al almacén municipal, pero que el Gobierno Municipal no había decidido qué hacer con ellas en el futuro. En la Comisión también se comentó que habría que saber quién tiene información sobre estos temas, así como a quién se le puede solicitar.

Horiek horrela, hauxe da gure MOZIOA:

Por lo expuesto, presentamos la siguiente MOCIÓN:

1.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Kontxatik erretiratuko dituen elementuen inbentarioa egin dezala, etorkizunean har daitezkeen erabakien ondoren ere, elementuen jarraipena erraztuko dutena.

1.- El Pleno del Ayuntamiento solicita al Gobierno Municipal que realice un inventario de los elementos que va a retirar de La Concha, para facilitar su seguimiento, incluso después de las decisiones que puedan tomarse en el futuro.

2.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Kontxako elementu babestuen inguruan adituen iritziak jaso ditzala, Ondarearen gaineko Foroan eta Gipuzkoako Foru Aldundian.

2.- El Pleno del Ayuntamiento solicita al Gobierno Municipal que recabe la opinión de los expertos y expertas respecto a los elementos protegidos de La Concha, tanto en el Foro del Patrimonio como en la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Loïc Alejandro jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Loïc Alejandro y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.9. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Abegi Etxearen alboko parkearen ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 10ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Martxoko udalbatzarrean, Irabazi Donostia taldeak Abegi Etxearen eranskinaren inguruko kontrol mozio bat aurkeztu zuen.

Abegi Etxeari erantsitako eraikin hori adingabeak dituzten familiei zuzenduta dago. Eraikinak hiru logela ditu literekin, sukalde-jantoki bat, bi bainugela eta dutxa bat. Gizarte-ekintzako erreglamenduan azaltzen denez, salbuespenik ezean, egonaldiak ezin dira hiru egun baino gehiagokoak izan.

**II.2.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el parque ubicado junto al Centro de Acogida.**

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Espacio Público celebrada el 10 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

El grupo Irabazi Donostia presentó en el pleno de marzo una moción sobre el espacio anexo al Centro de Acogida.

Ese edificio anexo al Centro de Acogida está destinado a familias con menores. El edificio dispone de tres habitaciones con literas, una cocina-comedor, dos cuartos de baño y una ducha. El reglamento de Acción Social establece que, salvo supuestos excepcionales, las estancias no serán superiores a tres días.

Azken urteetako memorien arabera, baliabide horren erabilera areagotu egin da: 2014an, 31 bizikidetza unitate 51 adingaberekin egon ziren eraikinean, guztira 312 egunetan; 2015ean, aldiz, 39 familia 65 adingaberekin, eraikina 337 egunetan erabilita. Iazko txostena oraindik ez dago eskuragarri, baina zinegotzi ordezkariak hil honetako batzordean jakinarazi du 365 egunetan erabili dela.

Las memorias de los últimos años indican que se ha producido un incremento en el uso de ese recurso: en 2014 hicieron uso del edificio 31 unidades de convivencia, con 51 menores, un total de 312 días; y en 2015, por su parte, fueron 39 familias, con 65 menores y 337 días de utilización. No está disponible el informe del año pasado, pero la concejalía delegada manifestó en la sesión celebrada por la comisión este mes que ha sido utilizado en 365 días.

Kasu gehienetan zaila da familientzat etxebizitza aukerak lortzea edo, hainbat arrazoi tarteko, familiak hiru egun baino gehiago gelditzen dira eranskinean. Hori dela eta, behin baina gehiagotan oposizioko alderdiek eranskina hobetzeko neurriak hartu behar direla esan diogu Udal Gobernuari; batez ere, adingabeen oinarrizko premiak hobeto asetzeko.

Suele ser difícil para las familias tener oportunidades de acceder a una vivienda y, en ocasiones y por múltiples razones, las familias suelen pasar más de tres días en ese espacio. En vista de esa situación, los partidos de la oposición hemos solicitado repetidamente al Gobierno Municipal que tome medidas para mejorar ese espacio, encaminadas, preferentemente, a mejorar la atención prestada a las necesidades básicas de los menores.

Esate baterako, eraikinaren barrualdean espazio gutxi dago, eta familiek egonaldi atsegin bat izatea eragozten du horrek. Adibidez, espazio faltagatik, umeentzako kotxeak edo aulkiak kanpoan utzi behar izaten dituzte, eta euria egiten duenean busti egiten dira. Bestalde, ez dago jolasgunerik edo ikasteko tokirik.

El interior del edificio, por ejemplo, dispone de poco espacio y ello no permite que las familias tengan una estancia placentera. Esa falta de espacio provoca, entre otras cosas, que deban dejar fuera del edificio los coches y las sillas infantiles y que se mojen los días de lluvia. Tampoco dispone de espacios para jugar o para estudiar.

Irabazi Donostiak martxoan aurkeztu zuen mozioak honaku hau eskatzen zuen:

Irabazi Donostia solicitó lo siguiente en la moción que presentó en marzo:

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalaren Gizarte Abegi Etxeari erantsitako eraikinaren kanpoko espazioa handiagotu dezala, bertan dauden adingabeentzat jolasgune bat jartzeko.

El Pleno Municipal de San Sebastián solicita al Gobierno municipal que amplíe el espacio exterior anexo al Centro Municipal de Acogida Social para construir una zona de juego para los menores allí alojados.

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalaren Gizarte Abegi Etxeari erantsitako eraikinaren kanpoaldearen zati bat

El Pleno Municipal de San Sebastián solicita al Gobierno municipal que cubra una parte de la zona exterior anexa al Centro Municipal de

estal dezala, adingabeen kotxeak edo aulkiak busti gabe gorde ahal izateko.

Acogida Social, para poder resguardar de la lluvia los coches y sillas infantiles.

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azterketa bat egin dezala Udalaren Gizarte Abegi Etxeari erantsitako eraikinak duen erabileraren inguruan, hirian beste espazio osagarri batzuk —handiagoak eta egonaldi luzeetarako baldintza hobeak dituztenak— jartzeko aukera aztertzeko.

El Pleno Municipal de San Sebastián solicita al Gobierno municipal que analice el uso del edificio anexo al Centro Municipal de Acogida Social para estudiar la posibilidad de disponer en la ciudad de otros espacios complementarios —de mayores dimensiones y mejor preparados para estancias de mayor duración—.

Udal Gobernua osatzen duten taldeek ezezkoa bozkatu zioten mozioari eta hau izan ziren Gizarte-ekintzako zinegotzi-ordezkariaren justifikazioa jolasgunearen beharra baztertzeko (transkripzioa): “vamos a votar que no fundamentalmente por dos cuestiones: nos piden aumentar el espacio, no hay espacio para aumentar, no es posible y lo dicen hasta los técnicos. Y segundo, esto me parece indignante y lo tengo que explicar, nos dicen que pongamos una zona de juegos pero es que a 50 metros escasos hay un parque infantil que creemos que es donde tienen que estar estos niños y niñas también ¿o es que acaso porque son pobres o no tienen recursos no tienen derecho a mezclarse con el resto de niños y niñas?”

Los grupos que conforman el Gobierno municipal votaron en contra de la moción y esta es la justificación dada por la delegada de Acción Social para rechazar la necesidad de una zona de juegos (transcripción): “vamos a votar que no fundamentalmente por dos cuestiones: nos piden aumentar el espacio, no hay espacio para aumentar, no es posible y lo dicen hasta los técnicos. Y segundo, esto me parece indignante y lo tengo que explicar, nos dicen que pongamos una zona de juegos pero es que a 50 metros escasos hay un parque infantil que creemos que es donde tienen que estar estos niños y niñas también ¿o es que acaso porque son pobres o no tienen recursos no tienen derecho a mezclarse con el resto de niños y niñas?”

Martxoan Marrutxipiko bililagunekin auzo bisita egin genuen inguru hartan eta, hain zuzen ere, Gizarte-ekintzako zinegotziak aipatzen duen parkearen inguruan hitz egin genuen. Auzotarren hitzetan, umeek ezin dute parkea erabili oso egoera kaxkarra duelako (kolunpioa apurtuta dago, egurra oso egoera txarrean dago kardamua dela eta, goroldioaren ondorioz umeak erori egiten dira eta abar).

En marzo realizamos una visita al vecindario de Marrutxipi y en esa zona hablamos, precisamente, sobre el parque que menciona la delegada de Acción Social. Las personas que viven en el barrio nos indican que los niños no pueden jugar en el parque porque está en muy mal estado (el columpio está roto, la madera está en muy mal estado por la carcoma, los niños se caen por culpa del musgo, etc.).

Apirileko batzordeetan Gune Publikoetako zinegotziak aitortu zuen parkea egoera kaxkarrean dagoela eta erabilpen gutxi duela. Konponketak egin daitezkeela esan zuen,

En las comisiones de abril el concejal delegado de Vías Públicas reconoció que el parque está en mala situación y que no tiene mucho uso. Dijo que se pueden realizar

baina ez zuen zehaztasunik eman eta aurrekontuaz ere ez zuen hitz egin.

mejoras, pero no ofreció detalles ni se refirió al presupuesto.

Kontuan izanda Udal Gobernua osatzen duten taldeek ezezkoa eman ziotela Abegi Etxean konponketak egiteari, parkearen egoera hobetu behar dela uste dugu, Abegi Etxean dauden haurrek eta auzoko gainerakoek ere jolas-gune egoki bat izan dezaten.

Considerando que el los grupos del Gobierno municipal rechazaron el realizar mejoras en el Centro de Acogida, somos de la opinión de que se debe mejorar la situación del parque, para que las niñas y niños acogidos en el centro y el resto de los niños y niñas del barrio también dispongan de una zona de juego apropiada.

Honegatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, la concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Abegi Etxearen alboan dagoen parkea konpon dezala.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari parkearen konponketa lehenbailehen egin dezala, umeek udan erabiltzeko aukera izan dezaten.

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que realice obras de mejora en el parque anejo al Centro de Acogida.
2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que lleve a cabo la reparación del parque cuanto antes, para que niñas y niños tengan la oportunidad de utilizarlo en verano.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

En San Sebastián, a 12 de abril de 2017

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Olaia Duarte López en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.10. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostia lagunkoiaren ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 10ean Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Lagunkoia Udalak bultzatutako plan bat da eta bi asmo nagusi ditu: Donostiako adinduen errealitatea agerraraztea eta balioestea, batetik, eta pertsona hauek hiriko bizitzan bete-betean parte har dezaten aukerak sustatzea, bestetik.

Plan honek adinduak gizarte bizitzan eta hiriko dinamiketan presente egotea eta haien parte hartzea sustatzen du. Bere barnean biltzen ditu hainbat proiektu eta jarduera, helburu orokortzat adinduen bizi kalitatea hobetzea dutenak, adinduek herritar bezala duten ahalmena baliatuz.

Planaren helburuak garatzeko, Donostia Lagunkoia Hiri Planaren dokumentua taxutzen parte hartu dute adinduek, haiei lotutako antolakundeek, enpresek, elkarteek, erakundeek eta udal sailetako arduradunek. Horiek guztiek gogoeta, eztabaida eta eraikuntza kolektiboko ariketa batean lan egin zuten aurreko legegintzaldian, Donostian datozen urteetan aurrera eraman beharreko gaiak, helburuak, estrategiak eta ekintzak identifikatuz, gure hiria toki lagunkoiagoa egite aldera.

**II.2.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre San Sebastián amigable.**

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 10 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

San Sebastián Amigable es un plan promovido por el Ayuntamiento que tiene dos objetivos principales: dar a conocer y poner en valor la realidad de las personas mayores de San Sebastián, y promover la participación plena de estas personas en la vida de la ciudad.

El Plan promueve la presencia y participación de las personas mayores en la vida social y en las dinámicas de la ciudad.]El plan incluye diversos proyectos y actividades cuyo objetivo general es la mejora de la calidad de vida de los y las mayores, poniendo en valor las capacidades de estas personas como parte de la ciudadanía.

Para desarrollar los objetivos del plan, las personas mayores así como las organizaciones, empresas, asociaciones e instituciones relacionadas con ellas y los y las responsables de los departamentos municipales han participado en la elaboración del documento Donostia Lagunkoia Hiri Plana. En la legislatura anterior, todos los agentes que acabamos de mencionar participaron en un ejercicio de reflexión, debate y construcción colectiva, para identificar los temas, objetivos, estrategias y acciones que se deberán desarrollar en San Sebastián en los próximos años, con el fin de hacer que nuestra ciudad

sea más amigable.

Prozesu aberasgarri eta parte-hartzaile hau egiteko, Partaidetza Sailak bi mekanismo finkatu zituen: Egiaztatze eta Baliozkotze Taldea eta lan-kolektiboaren jardunaldi irekia. Esate baterako, 2013ko ekainaren 20an goizez egin zen saio irekian 100 lagun baino gehiagok parte hartu zuten eta 2014-2015ean ere hainbat saio eta ekimen egin ziren talde-eragilearekin.

Para llevar a cabo este proceso de enriquecimiento y participación, el Departamento de Participación estableció dos mecanismos: El Grupo de contraste y validación, y la Jornada abierta de trabajo colectivo. Por ejemplo, en la jornada abierta que se celebró durante la mañana del 20 de junio de 2013, participaron más de 100 personas y en 2014-2015 también se llevaron a cabo diversas sesiones e iniciativas con el grupo promotor.

Baina 2015ean emandako gobernu aldaketak eragina izan zuen Donostia Lagunkoiaren partaidetza ereduan eta talde-eragileak zuen garrantzian. 2016ko apirilaren 16ko Gizarte-ekintzako kontseilu sektorialean zinegotzi ordezkariak 2016ko aurrekontuen aurkezpena egin zuen. Saio berean, Donostia Lagunkoieko talde-promotorean parte hartu duen elkarte bateko ordezkariak hitza eskatu zuen. Pertsona honek zioen aurreko legegintzaldian Donostia Lagunkoian aktiboki parte-hartu zuten hainbat pertsona eta elkarte lekuz kanpo sentitzen hasiak zirela: Udalak ez ziela informazioa helarazten, proiektua geldirik zegoela sumatzen zutela, talde-promotorearen rola aldatu zela, parte-hartze zuzena asko murriztu zela, aurreko legegintzaldian eragileekin zegoen interakzioa eta elkarrizketa eten egin zirela...

Pero el cambio de gobierno en 2015 influyó en el modelo de participación de San Sebastián Amigable y en la importancia que tiene el grupo promotor. En el Consejo Sectorial de Acción Social del 16 de abril, la concejala delegada de Acción Social presentó los presupuestos de 2016. En la misma sesión, una de las personas pertenecientes a una asociación que participó en el grupo promotor del Plan San Sebastián Amigable pidió la palabra. Esta persona afirmaba que varias personas y asociaciones que participaron de forma activa en la legislatura anterior en la elaboración del Plan San Sebastián Amigable habían comenzado a sentirse fuera de lugar: que el Ayuntamiento no les facilitaba información, que percibían que el proyecto estaba paralizado, que el rol del grupo promotor ha cambiado, que la participación directa ha disminuido de manera notable, que la interacción y el diálogo que existía en la legislatura anterior habían cesado…

Talde eragilearen kexak eta kezkak zirela-eta, 2016ko maiatzaren 16an, honen inguruan galdetu genion zinegotzi ordezkariari. Hark erantzun zuen talde eragileak arrazoia zuela eta ez zela bilerarik egin beraiekin 2015-2016 ikasturtean. Horregatik, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuta, aho-batez onartua izan zen honako mozio hau aurkeztu genuen

A raíz de las quejas e inquietudes del grupo promotor, el 16 de mayo planteamos una pregunta sobre este tema a la concejala delegada. La concejala respondió que el grupo tenía razón y que no se había celebrado ninguna reunión con esas personas en el curso 2015-2016. Por ello, y a la vista de la gravedad de la situación, en el pleno del mes

maiatzeko udalbatzarrean:

Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Donostia Lagunkoieko talde-eragilearekin harremanetan jar dadila denbora epe laburrean eta taldearekin partaidetza eredu aktibo bat berrabiaraz dezala.

Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma bat egin dezala 2016-2017 ikasturteari begira, Donostia Lagunkoia garatzeko egingo dituen ekimenak zerrendatuz.

Aurtengo apirileko batzordean Gizarte-ekintzako zinegotzi-ordezkariari esan genion urtebete pasatu dela eta oraingoz ez dugula kronogramaren berri izan, eta Udaleko web orrian begiratzen badugu, badirudi plana 2015eko ekainean amaitu zela. Izan ere, jardueren atalean sartzen bagara, argitaratuta dauden azkenak 2015eko ekainekoak dira. Zinegotzi -ordezkariak arrazoia eman zigun eta azkeneko hilabeteetan egindako ekintzen berri eman zigun.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari legegintzaldi osoan zehar Donostia Lagunkoieko planaren eta ekintzen berri eman diezaiela Udalbatza osatzen duten talde guztiei.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Udaleko web orrian Donostia Lagunkoieko atala eguneratu eta egiten diren jardueren berri eman dezala.

3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari

de mayo presentamos la siguiente moción, que fue aprobada unánimemente:

El Pleno solicita al Gobierno Municipal que se ponga en contacto con el grupo promotor del Plan San Sebastián Amigable a corto plazo, y que vuelva a poner en marcha un modelo de participación activa con dicho grupo.

El Pleno solicita al Gobierno Municipal que establezca cronograma de cara al curso 2016-2017, en el que se relacionen las actividades que se van a llevar a cabo para desarrollar el Plan San Sebastián Amigable.

En la comisión de este mes de abril le manifestamos a la concejala delegada de Acción Social que había transcurrido más de un año y que todavía habíamos tenido noticias del cronograma, y si consultamos la hoja Web municipal, parece que el plan finalizó en junio de 2015. En concreto, si accedemos al apartado de actividades, las últimas publicadas son de junio de 2015. La concejala delegada nos dio la razón y nos puso al tanto de las actividades realizadas en los últimos meses.

Teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta esta MOCIÓN DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que a lo largo de toda la legislatura informe a la totalidad de los grupos que conforman la Corporación sobre el plan y las actividades de San Sebastián Amigable.

2. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que actualice en la hoja Web municipal el apartado de San Sebastián Amigable y a que ofrezca información sobre las actividades que realiza.

3. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno

2017rako hartu dituen udal konpromisoak (kronograma) kontseilu guztietan aurkeztu eta urte amaieran konpromisoen betekizun mailaren inguruko txostena ere aurkez dezala.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

municipal a que presente los compromisos asumidos por el Gobierno municipal para 2017 (cronograma) en todos los consejos y a que a fin de año presente también un informe sobre el nivel de cumplimiento de los compromisos.

En San Sebastián, a 12 de abril de 2017

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Aitziber San Roman Abete andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Olaia Duarte López, Dª. Aitziber San Román Abete y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**10. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 10:**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**10. GAIAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DEL ASUNTO N.º 10**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**10. GAIAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DEL ASUNTO N.º 10**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6)**

**PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**10. GAIAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DEL ASUNTO N.º 10**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**14:12AN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:30AK DIRENEAN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 14:12 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:30 H.**

---------------

**II.2.2.11. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, puntu kritikoen maparekiko parte hartzea eta koordinazioa direla eta.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko apirilaren 10ean Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Emakumeentzako hiri seguru bat eraikitzeko asmoz, puntu kritikoak izan daitezkeen guneak identifikatzen eta eraldatzen ditu Udalak, duela lau urtetik, hiriko mugimendu feminista eta auzo elkarteekin batera.

**II.2.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la participación y coordinación en cuanto al mapa de puntos críticos.**

“Naiara Sampedro Perez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada a la Comisión de Servicios a las Personas el 10 de abril de 2017.

JUSTIFICACIÓN

Con el propósito de construir una ciudad más segura para las mujeres, el Ayuntamiento lleva a cabo, desde hace cuatro años, una labor de identificación y transformación de las zonas que pueden constituir puntos críticos, labor que realiza

junto con el movimiento feminista de la ciudad y las asociaciones vecinales.

Martxoaren 14an, Puntu Kritikoen Maparen azken parte hartze saioa egin zen. Deialdia auzo elkarteei eta emakume elkarteei emailez eta telefonoz zabaldu zitzaien arren, parte hartzea eskasa izan zen eta parte hartzaileak kexu eta kezkatuta agertu ziren horregatik.

El 14 de marzo se llevó a cabo la última sesión participativa en torno al Mapa de Puntos Críticos. A pesar de que las asociaciones vecinales y las de mujeres fueron convocadas por email y por teléfono, la participación fue escasa, lo que fue motivo de queja y de preocupación por parte de las personas que sí participaron.

Udalaren baliabideekin, herritarrekin batera genero indarkeriari aurre egiteko egitasmoak sustatu eta sortzeari dagokion koordinazioa eta parte hartzea indartu behar dira. Lehentasunezko gaia delako. Udal Gobernuan ez dago halako jarrerarik, eta zinegotzi-ordezkariak ez zuen taxuzko erantzunik eman batzordeetan gai honi buruz.

Valiéndonos de los recursos con los que cuenta el Ayuntamiento, y en colaboración con la ciudadanía, es preciso reforzar la coordinación y la participación necesarias para crear y promover proyectos dirigidos a hacer frente a la violencia de género, puesto que se trata de una cuestión prioritaria. Sin embargo, el proceder del Gobierno Municipal no refleja una actitud semejante, y tampoco la concejala delegada dio una respuesta adecuada sobre este tema en las comisiones.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Hiriko Puntu Kritikoen Maparen lanketa lehentasunezko ardura gisa har dezala, gobernuko kideen inplikazioa bermatuz eta departamentu arteko lan taldeak eratu zireneko lan dinamikan aurrerapausoak ematen jarrai dezan.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que dé prioridad a la continuación del trabajo sobre el Mapa de Puntos Críticos de la Ciudad, garantizando la implicación de los y las miembros del gobierno, y a que siga dando pasos en la dinámica de trabajo iniciada en el momento en que se crearon los grupos de trabajo interdepartamentales.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma ditzala herritarrekin Hiriko Puntu Kritikoen Mapa modu parte hartzailean lantzeko beharrezkoak diren lan dinamikak, herritarren parte hartzea indartuz eta sustatuz.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que garantice las dinámicas de trabajo necesarias para continuar elaborando el Mapa de Puntos Críticos de la Ciudad de un modo participativo con la ciudadanía, reforzando y promoviendo la participación ciudadana.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia".

Naiara Sampedro Perez,
concejala de EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Naiara Sampedro Pérez, Dª. Amaia Martín Garín y Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.2.12. Kontrol mozioa, PP Taldeak aurkeztua, irudi korporatiboa berritzeari buruzkoa.**

**II.2.2.12. Moción de control, presentada por el Grupo PP, relativa a la renovación de la imagen corporativa.**

**KENDUA.**

**RETIRADA.**

---------------

**II.2.2.13. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, mugikortasun bertikalari buruzko plana dela eta.**

**II.2.2.13. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre el Plan de Accesibilidad Vertical.**

"Miren Albistur Garmendia Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa Gune Publikoen

"Miren Albistur Garmendia, portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a

Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) mugikortasun bertikalari buruzko planaren inguruan aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

consecuencia de la Interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del pasado mes de Marzo, sobre el Plan de Accesibilidad Vertical.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu taldeak irisgarritasun plana idaztea agindu zuen, eta plan hori apirilaren 6an aurkeztu zitzaien herritarrei. Udal taldeok, ordea, ez gintuzten aurkezpenera gonbidatu, nahiz eta horren gainean interes handia agertu; hain zuzen ere, martxoan egin genion interpelazio bat zinegozi ordezkariari, plana noiz aurkeztu behar zuten jakiteko.

Zinegotzi ordezkariak, ez gure taldeak eskatutako agerraldian, ez eta beste talde batek aurkeztutako interpelazioan ere, ez zuen azalpen handirik eman planaren edukiaz, eta komunikabideen bidez jakin ahal izan dugu zertxobait gehiago.

Gure taldeak uste du jarduteko modu hori ez dela egokia, eta, oraindik ere planaren behin betiko dokumentua lantzen ari direnez, lehen eskutik jakin nahi dugu zein den azterlan horren edukia, ekarpenak egin ahal izateko. Horrez gain, lehen bilera hartan izan ziren herritarrek zer kezka adierazi zituzten jakin nahi dugu.

Jadanik badago mugikortasun bertikaleko proiektu bat, Morlans-Aietekoa, eraikitzen hasteko izapide guztiak onartuak dituena, eta espero dugu lehenbailehen egitea Larratxoko bigarren proiektu hau aurrera eramateko izapideak, aurrekontua ere baduenez gero.

Gainera, 2017ko udal aurrekontuan bi kontu-sail daude irisgarritasun planean lehenetsitako irisgarritasun bertikaleko bi elementuen proiektuak egiteko, bai eta beste kontu-sail bat ere, lehentasunezkotzat jotako igogailua egiten

JUSTIFICACION

El Equipo de Gobierno decidió encargar la redacción de un Plan de Accesibilidad que fue presentando el pasado 6 de abril a los ciudadanos y al que los Grupo municipales a pesar de haber presentado un gran interés sobre esta cuestión no fuimos invitados, precisamente interpelamos a la Concejala Delegada en el mes de marzo para saber cuándo iba a ser presentado el Plan.

La delegada tanto en la Comparecencia que presentó nuestro Grupo, como en la interpelación que presentó otro Grupo no dio demasiadas explicaciones sobre el contenido del Plan que por otra parte hemos podido conocer algo más a través de los medios de comunicación.

Desde nuestro grupo consideramos que esta forma de actuar no es la adecuada y dado que se sigue trabajando sobre el documento definitivo del Plan nos gustaría poder conocer de primera mano el contenido de ese estudio y poder realizar nuestras aportaciones, así como de conocer cuáles son las inquietudes que trasladaron los ciudadanos que acudieron a esa primera reunión.

En estos momentos ya hay un proyecto de movilidad vertical, Morlans-Aiete con todos los trámites aprobados para que pueda iniciarse su construcción y esperemos que el segundo proyecto presupuestado en el barrio de Larratxo cuente cuanto antes con los trámites para que se pueda ejecutar.

Además el presupuesto municipal 2017 contempla dos partidas para realizar el proyecto de los dos elementos de accesibilidad vertical que se prioricen en el Plan de accesibilidad, así como otra partida para iniciar la construcción del ascensor

hasteko.

Jakinik asko direla hirian arlo honetan egin beharreko jarduerak, eta ikusita prozesua luzatzen ari dela eta beharrezkoa dela planaren edukia, irizpideak eta gauzatze lehentasunak ezagutzea, hauxe da talde popularrak aurkezten duen MOZIOA:

LEHENENGOA: Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Gobiernu taldeari eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariari ahalik azkarrena aurkez diezaiela udal taldeei irisgarritasun plana idatzi duen enpresak aurkeztutako dokumentua, bai eta apirilaren 6ko bileran izan ziren herritarrek egindako galderak ere.

BIGARRENA: Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari, irizpideak, lehentasunak eta beharrak ezarri eta kontrastatu ondoren, aurkez diezaiela jarduera kronograma bat hala udal taldeei, nola herritarrei, elkarteei eta Mugikortasuneko Aholku Kontseiluko kideei.

Hirugarrena: Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari, kronograma adostu ondoren, has ditzala 2017ko udal aurrekontuan jasota dauden proiektuen azterlanak egiteko izapideak.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a.

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

que se haya valorado como prioritario.

Sabiendo que son muchas las intervenciones que hay que realizar en esta materia en nuestra ciudad y visto que el proceso se está alargando en el tiempo y es necesario conocer el contenido, los criterios y las prioridades para su materialización, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

PRIMERO: El Ayuntamiento Pleno insta al Equipo de Gobierno y a la Delegada de Movilidad a que presente a la mayor brevedad a los Grupos Municipales el documento redactado por parte de la empresa encargada de redactar el Plan de accesibilidad, así como las cuestiones que fueron planteadas por las personas que acudieron a la reunión del pasado 6 de Abril.

SEGUNDO: El Ayuntamiento en Pleno insta al Equipo de Gobierno a que una vez establecidos y contrastados los criterios, prioridades y necesidades presente un cronograma de actuaciones a los Grupos municipales, así como a los ciudadanos, asociaciones y miembros del consejo Asesor de Movilidad.

Tercero: El Ayuntamiento en Pleno insta al Equipo de Gobierno a que una vez consensuado el cronograma inicie los trámites para estudiar los proyectos consignados en el presupuesto municipal 2017.

En Donostia / San Sebastián, a 12 de Abril de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Miren Albistur Garmendia andreak, Loïc Alejandro jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Loïc Alejandro, D. Axier Jaka Goikoetxea y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**13. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**13. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**13. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.14. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA**

**II.2.2.14. Moción de control, presentada por el**

**taldeak egina, 2016an hirian izandako sexu askatasunaren kontrako delituak direla eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean 2016an hirian izandako sexu askatasunaren kontrako delituen inguruan aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean azaldu genuen bezala, joan den martxoaren 27an plazaratu ziren 2016an Donostian izandako delituei buruzko datuak, Ertzaintzako eta Udaltzaingoko arduradunek, Segurtasuneko sailburuordeak eta Donostiako Udaleko Segurtasuneko zinegotziak eta alkateak izandako bileraren ostean.

Aurkeztutako txostenaren arabera, delinkuentzia % 2,44 jaitsi zen Donostian, kopuru erlatibotan, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren lankidetzari esker. Zoritxarrez, delitu mota batzuek gora egin zuten; horien artean, sexu askatasunaren aurkakoek (% 9,3 igo ziren).

Gure ikuspuntutik, sexu askatasunaren aurkako delituak % 9,3 areagotu direla ikusita, erakundeetako ordezkariek “zero tolerantzia” mezua adierazi behar zuten batez ere emakumeok pairatu ohi ditugun delitu horien aurka. Eta esan behar zuten lanari ekingo diotela erasoen areagotze hori borrokatzeko.

Zinegotzi ordezkariak batzordean aditzera eman zigunez, bileran halaxe azaldu zuten, baina gero ez zuten behar bezala jaso udal gobernuak bere esku dituen komunikabideetan.

**Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre delitos contra la libertad sexual cometidos en la ciudad en 2016.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en Comisión el presente mes, en relación con los delitos contra la libertad sexual cometidos en la ciudad en 2016.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como ya expusimos en Comisión, el pasado día 27 de marzo, se hicieron públicos los datos de los delitos cometidos en Donostia / San Sebastián durante 2016, tras una reunión en la que estuvieron presentes responsables de la Ertzaintza, Guardia Municipal, el Viceconsejero de Seguridad, Concejal de Seguridad y el Alcalde.

En términos relativos, según el informe presentado, la delincuencia descendió en Donostia un 2,44% el año pasado, gracias a la colaboración entre la Ertzaintza y la Guardia Municipal. Lamentablemente, uno de los delitos que aumentaron en 2016 fueron los delitos contra la libertad sexual, un 9,30%.

Desde nuestro punto de vista, ese aumento de un 9,30% de los delitos contra la libertad sexual, deberían haber llevado a los representantes institucionales a lanzar un mensaje de “tolerancia cero” contra esos delitos que sufrimos especialmente las mujeres. Un mensaje de que se iban a poner manos a la obra para que luchar contra esa subida de agresiones.

Cuestión, que si fue expuesta en la reunión, tal y como nos dió a entender el concejal delegado en comisión, posteriormente no fue reflejada debidamente a través de los medios de comunicación de los que dispone el gobierno municipal.

Uste dugu sailburuordearen adierazpenek ez dutela laguntzen indarkeria mota horren aurka borrokan dihardutén erakundeen kezka eta lana helarazten; izan ere, argudiatu zuen delitu mota horien artean gehienak “esparru pribatuan” gertatzen direla, eta “baimendu gabeko sexu harremanen” eremuan sartzen direla. Horrek guztiak pentsarazten digu, delitu mota horiek gora eginagatik, ez dela neurri berezirik abiaraziko halakoak prebenitzeko.

Las declaraciones del Viceconsejero argumentando que la mayoría de esos delitos se cometieron “en el ámbito privado” y no en las vías públicas y que se enmarcan dentro de “las relaciones sexuales no consentidas”, nos parecieron que no ayudan a transmitir la preocupación y ocupación de las instituciones implicadas en la lucha contra este tipo de violencia, y nos hacen pensar que no se van a activar medidas especiales de prevención de ese tipo de delitos ante el repunte de los mismos.

Alkateak ere ez zuen esan Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren artean egonkorki ezarri den lankidetza horrek modu bereziren batean aurre egingo dienik delitu mota horiei; beste batzuei buruz, ordea, iruzur delituei buruz adibidez (% 14,42 areagotu dira), azaldu zuten Interneten erabilerak zer-nolako ondorioak dituen eta horrelako delituei aurrea hartzeko zer zailtasun dauden eta zer ahalegin egiten ari diren.

Tampoco escuchamos al Sr. Alcalde informar de que la colaboración de carácter permanente que se ha establecido entre la Ertzaintza y la Guardia Municipal, vaya a abordar de manera especial este tipo de delitos, mientras que, por ejemplo en relación con las estafas (el delito que más ha aumentado, un 14,42%), si se dieron explicaciones de las consecuencias del uso de internet y las dificultades y los esfuerzos para prevenirlas.

Udalaren webgunean agertzen den prentsa oharrean ere, sexu askatasunaren aurkako delituek gora egin dutela besterik ez da esaten, “Ondarearen aurkako arau-hausteak" atalaren barruan: “Gora egin zuten arau-hausteak dira lesioak (+13,17%), sexu-askatasunaren aurkako delituak (+9,30%) eta iruzurrak (+14,42%)”. Horixe da dena.

Asimismo, la nota de prensa que aparece en la propia web municipal, se limita tan solo a informar del aumento de los delitos contra la libertad sexual, dentro del apartado referido a “infracciones contra el patrimonio”, con la siguiente descripción: “Entre las infracciones que sufrieron un incremento figuran las lesiones (+13,17%), los delitos contra la libertad sexual (+9,30%) y las estafas (+14,42%)”. Esto es todo.

Webgunean albistearekin batera datorren bideoan ere, ez Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak eta ez Segurtasuneko sailburuordeak egiten dute aipamen txikiena ere sexu askatasunaren kontrako delituetan izan den igoeraz. Ez baloraziorik egiten dute datu horren inguruan, ez kezkarik adierazten dute horretaz; soil-soilik, pozik agertzen dira (guk ere bat egiten dugu horrekin), delituek, kopuru erlatibotan, behera egin dutelako 2016an.

Tampoco en el vídeo que acompaña la noticia en la web, ni el Concejal Delegado de Seguridad ni el Viceconsejero de Seguridad, hacen una mínima referencia al aumento de los delitos contra la libertad sexual. Ninguna valoración sobre ese dato, ninguna muestra de preocupación al respecto, tan sólo satisfacción (que también compartimos) por el descenso en términos relativos de los delitos en 2016.

Zerbitzu Orokorren Batzordean, Segurtasuneko

En la Comisión de Servicios Generales el Concejal

zinegotzi ordezkariak, interpelazioan galdetzen zenari erantzun beharrean, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren lana gutxiestea leporatu zigun, nahiz ez guk ez ditugun inola ere zalantzan jartzen kidego horien balioa eta profesionaltasuna. Baina, nolako igoera izan den ikusita (hala ageri da Bilboko eta Gasteizko delituei buruzko txostenetan ere), uste dugu ezinbestekoa dela Udal Gobernuak neurri zehatzak hartzeko eta haien berri emateko konpromisoa hartzea.

Horrez gain, batzordean galdetu genuen delituei buruzko txostenean zergatik ez den sexuaren araberako banaketarik egin. Zinegotzi ordezkariak erantzun zigun sexu erasoetan agerikoa dela hori, erasotzaileak gizonak eta biktimak emakumeak baitira ia kasuen % 100ean. Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela txosten osoa egotea sexuaren arabera bereizia. Euskadik badu berdintasunaren lege bat 2005etik, eta txosten horrek aspaldi behar zuen sexuaren arabera bereizia.

Batzordean adierazi genuen bezala, uste dugu sexu askatasunaren aurkako delituak deuseztatzeko, behar beste ikusarazi behar direla, neurri zehatzak hartzeaz gain, kontuan hartuta gora egin dutela batez ere emakumeoi erasaten diguten delitu horiek.

Hori dela eta, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernuari, Ertzaintzarekin elkarlanean, azal dezala, uda hasi baino lehen, zer neurri hartuko dituen sexu askatasunaren aurkako delituen igoerari aurre egiteko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernuari, 2017tik aurrera, delituei buruzko

Delegado de Seguridad en vez de contestar al objeto de la interpelación, nos acusó de minusvalorar el trabajo de la Guardia Municipal y de la Ertzaintza, cuerpos cuya valía y profesionalidad en absoluto cuestionamos. Pero, ante ese aumento, (también reflejado en los informes de delitos de Bilbao y Gasteiz) consideramos imprescindible que el gobierno municipal se comprometa a tomar medidas concretas e informe de ellas.

Asimismo, en la Comisión preguntamos las razones por las que el informe de delitos no está desagregado por sexos. El Concejal Delegado nos respondió que en el caso de las agresiones sexuales era evidente, ya que los agresores eran hombres y las víctimas mujeres en prácticamente el 100% de los casos. No obstante, creemos es necesario que todo el informe esté desagregado por sexo. Euskadi cuenta con una Ley de Igualdad desde 2005 y ese informe debería estar desde hace mucho tiempo desagregado por sexo.

Tal y como manifestamos en comisión, creemos que para acabar con los delitos contra la libertad sexual, que nos afectan principalmente a las mujeres, es imprescindible visibilizarlos suficientemente, además de adoptar medidas concretas ante el aumento de estas.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a que, en colaboración con la Ertzaintza, presente, antes del inicio de la temporada estival, medidas a adoptar para contrarrestar el aumento delitos contra la libertad sexual.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno a que,  a partir de

urteko txostenean sexuaren arabera bereizita agertzeko hala erasotzaileak nola biktimak.

2017, el informe anual sobre delitos esté desagregado por sexo, tanto en relación a las personas delincuentes como a las víctimas.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

Donostia a 12 de abril de 2017

Sinadura: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak, Martin Ibabe Eceiza jaunak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Naiara Sampedro Pérez, D. Martín Ibabe Eceiza y Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.15. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak egina, animaliei tratu txarra ematearen aurkako kanpaina dela eta.**

**II.2.2.15. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre campañas contra el abandono y maltrato animal.**

"Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako batzordean animaliei tratu txarra ematearen aurkako kanpainei buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

"Loïc Alejandro, concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, fruto de la interpelación realizada este mes en comisión sobre campañas contra el abandono y maltrato animal.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Affinity fundazioak duela hilabete batzuk argitaratutako txosten baten arabera, 2015. urtean 137.000 animalia (txakurrak eta katuak) abandonatu zituzten estatu osoan. Animaliak babesteko elkarte batzuek diotenez, kopuru hori handiagoa litzateke, baldin eta borondatezko bilketa independenteak aintzat hartuko balira. EAEko datuak ez da pozgarriagoak: 2011n, abandonu kasuak 8.000 inguru ziren. Nahiz eta uste zabaldua den animalia gehienak udan abandonatzen direla, egiaz, urte osoan gertatzen dira halakoak.

Gugandik gertuago, zinegotzi ordezkariak Gune Publikoen Batzordean emandako azalpenen arabera, Gipuzkoako Animalia eta Landareak babesteko Elkarteak batez beste txakur bat hartzen du eguneko, urte osoan zehar. Zifra larriak dira, animaliak abandonatzearen arazoa gertu daukagula erakusten dutenak.

Udalerri askok sustatzen dituzte abandonuaren aurkako kanpainak. Zaragozako Udalak, joan den urtean, “Animaliak ez dira jostailuak; ez erosi, adoptatu erantzukizunez" kanpaina jarri zuen abian. 2015eko ekainean, Logroñoko Udalak ere “Adopta nazazu”·kanpaina sustatu zuen, animaliak abandonatzearen aurka eta adoptatzearen alde sentsibilizatzeko, eta Coruñak ere antzeko zerbait egin zuen urte bereko azaroan. Joan den urten, Bilboko Udalbatzak, mozio baten bidez, hertsatuki eskatu zion udal gobernuari sentsibilizazio kanpainak egiteko. Etsenplu batzuk baizik ez dira horiek, beste askoren artean, herritarrak animaliak abandonatzearen arazoaz eta kontsumismo ardugarabearen aurrean adopzioak duen garrantziaz sentsibilizatzeko apustua egiten duten udalerriena.

Bestalde, animaliei emandako tratu txarren arazoak ere gora egin du. Horrela, bada, 2014ko ekitaldiari buruzko memorian, hiru lurralde

Según un informe publicado por la Fundación Affinity hace unos meses, durante el año 2015 se produjeron 137.000 casos de abandono animal (perros y gatos) en todo el Estado, datos que algunas protectoras garantizan aumentarían de contabilizarse los casos de recogida voluntaria independiente. Los datos en la CAE no son más alentadores, en 2011 la cifra llegaba a los 8.000 casos de abandono anuales. A pesar de la creencia de que dichos abandonos se producen mayoritariamente en verano, la realidad indica que se extienden a lo largo del año.

Más cerca de nosotros, según las informaciones proporcionadas por el Concejal Delegado en Comisión de Espacio Público, la Sociedad Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa acoge en sus instalaciones una media de 1 perro cada día todo el año. Son cifras importantes que demuestran que la problemática del abandono animal nos toca de cerca también.

Son numerosos los municipios que promueven campañas contra el abandono. El Ayuntamiento de Zaragoza el pasado año puso en marcha la campaña “Un animal no es un juguete, no compres, adopta con responsabilidad”. En junio de 2015, el Ayuntamiento de Logroño también promovió la campaña “Adóptame” de sensibilización contra el abandono y a favor de la adopción, y A Coruña hizo lo propio el mes de noviembre de ese mismo año. El pasado año el pleno del ayuntamiento de Bilbao aprobó una moción instando al gobierno municipal a desarrollar una campaña de sensibilización. Son ejemplos, entre muchos, de municipios que apuestan por concienciar a la ciudadanía en torno al problema del abandono animal y la importancia de la adopción frente al consumismo irresponsable.

Por otra parte, la problemática del maltrato animal ha incrementado. Así, en la memoria publicada del ejercicio 2014, los fiscales de los tres territorios

historikoetako fiskalen iritziz, “animaliei emandako tratu txarrekin lotutako legez kontrako ekintzak nabarmen areagotu dira”. Hain zuzen ere, aurretiazko diligentzien kopurua bikoiztu egin zen EAEn 2013 eta 2014 urteen artean: “33tik 60ra igo ziren Bizkaian, 1etik 16ra Gipuzkoan eta 2tik 8ra Araban”. Gainera, datu horiei polizia etxeetan, udaletxeetan eta foru aldundietan administrazio bidetik jarritako salaketak gehitu behar zaizkie; hain zuzen, Donostian bakarrik, 15 izan ziren hala 2015ean nola 2016an.

Udalak 2011n egin zuen gai horren inguruko azken kanpaina, albaitari bat kontratatuta, ikastetxeetan kontzientziazio kanpainak egiteko. Aipaturiko zifrak ikusita, uste dugu, epe laburrera, Udalak beste sentsibilizazio kanpaina bat egin beharko lukeela. Epe luzera, uste dugu Udalak hiriko elkarte animalistekin koordinatu beharko lukeela, animalien abandonu eta tratu txarraren aurkako estrategia integral bat proposatzeko. Ingurumeneko Aholku Kontseilua izan daiteke lan horren gidari.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari egin dezala sentsibilizazio kanpaina bat edo hainbat animaliak abandonatzearen eta tratu txarra ematearen aurka.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari proposa dezala Ingurumeneko Aholku Kontseiluan foro bat edo egokien jotzen duen beste lan esparru bat sortzea, udalerrian estrategia integral baten oinarriak jartzeko animaliak abandonatzearen eta tratu txarra ematearen aurka.

históricos consideran “significativo el notable incremento de los ilícitos referidos a malos tratos a animales”. De hecho, el número de diligencias previas se duplicó en la CAV entre 2013 y 2014, pasando “de 33 a 60 en Bizkaia, de 1 a 16 en Gipuzkoa y de 2 a 8 en Araba”. A estos datos, habría que añadir las denuncias interpuestas por vía administrativa ante las comisarías, ayuntamientos o diputaciones que, en el caso sólo de Donostia, se elevan a 15, tanto en 2015 como en 2016.

La última campaña en torno a esas temáticas realizada desde el Ayuntamiento se hizo en 2011 con la contratación de una veterinaria para realizar campañas de concienciación en colegios. A corto plazo creemos que, a la vista de las cifras mencionadas, el Ayuntamiento debería realizar una nueva campaña de sensibilización. A largo plazo, consideramos que el Ayuntamiento debería coordinarse con las asociaciones animalistas de la ciudad para trabajar una propuesta de estrategia integral contra el abandono y el maltrato animal. Esto se podría pilotar desde el Consejo Asesor de Medio Ambiente.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a realizar una o varias campañas de sensibilización en contra del abandono y del maltrato animal.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a proponer en el Consejo Asesor de Medio Ambiente la creación de un foro, u otro espacio de trabajo que considere más oportuno, para establecer las bases de una estrategia integral del municipio contra el abandono y el maltrato animal.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

Sin.: Loïc Alejandro
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

Donostia a 12 de abril de 2017

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Miguel Angel Diez Bustos jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. José Luis Arrúe Pintó, D. Axier Jaka Goikoetxea y D. Miguel Ángel Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**15. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**15. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 15:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.2.16. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, kirol lehiaketetan emakumeak sexu objektu gisa erabiltzea dela eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Udalbatzan azter dadin. Mozio hau kirol lehiaketetan emakumeak sexu objektu gisa erabiltzeari buruz batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Indarkeria matxistak egitura sozial eta kultural korapilatsu batean du jatorria, eta gure eguneroko bizimoduan arlo askotan ageri dira haren sintomak eta seinaleak. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun agerikoa ez da kontu halabeharrezko eta saihetsezin bat, baizik eta gogotik borrokatu beharreko amaiera eta metodo interesatu bat. Desberdintasunean eta genero femeninoaren zapalkuntzan oinarritutako eredu horiek behin eta berriz errepikatzen dira bizitza sozial, kultural, politiko nahiz ekonomikoaren arlo guztietan.

Kiroletan bada praktika ohiko bat genero estereotipoak sortzen dituena eta emakumeak objektu gisa jartzen dituena, zenbait kirol ekitaldi “edertzeko”, apaingarri sexista moduan.

Halako ekitaldietan, emakumeak irteeran edota helmugan egoten dira, bai eta podiumetan eta sustapenetan ere, kirolarekin batere zerikusirik ez duen jarduera batean, produktuak sustatzeko, jendearen arreta erakartzeko, edo kirolarien ondoan, normalean lehiaketaren irabazleen ondoan, garaikurrak emateko ekitaldian; horrek, sinbolikoki, nolabait irabazleak jasotzen dituen oparien multzo berean kokatzen du emakumea.

**II.2.2.16. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el uso de mujeres como objetos sexuales en competiciones deportivas.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL PARA SU DEBATE EN EL PLENO, fruto de la interpelación en comisión sobre el uso de mujeres como objetos sexuales en competiciones deportivas.

JUSTIFICACIÓN

Las violencias machistas tienen su origen en una intrincada estructura social y cultural con síntomas y señales en muy diversos ámbitos de nuestra vida cotidiana. La flagrante desigualdad existente entre mujeres y hombres no es un producto accidental ni inevitable, sino un desenlace y un método interesados contra los que debemos trabajar con ahínco. Estos patrones de desigualdad y opresión del género femenino se reproducen constantemente en todos los ámbitos de la vida social, cultural, política, económica…etc.

En el mundo del deporte se da una práctica habitual que es reproductora de estereotipos de género que ubican a las mujeres en un lugar de objeto para “embellecer” algunos eventos deportivos, a modo de ornamento sexista.

Se trata de eventos en los que las mujeres son expuestas en líneas de salida y/o meta, en pódiums y promociones, en actividad totalmente desvinculada de la deportiva, para promocionar productos, captar la atención del público o junto con los deportistas, generalmente los ganadores de la competición, en un acto en el que se hace entrega de trofeos, lo cual simbólicamente de alguna manera, coloca a la mujer en el mismo conjunto que los obsequios que recibe el triunfador.

Hiri honetan kirol ekitaldi ugari izaten dira urtean zehar. Horren froga da, hain zuzen, hil honetan hemen izan direla Euskal Herriko Itzuliko etapa baten helmuga eta hurrengo egunean, apirilaren 6an, Bilbo aldera abiatu zen etaparen irteera.

Esta ciudad cuenta con numerosos eventos deportivos a lo largo del año. Este mes precisamente la llegada de una etapa de la Vuelta al País Vasco y la posterior salida al día siguiente jueves, 6 de abril, dirección Bilbao son prueba de los mismos.

Uste dugu arlo horretatik ere erauzi behar direla hala desberdintasuna nola emakumeei ematen zaien tratu iraingarria. Txirrindularitzan, lehenik Australian ikusi dugu, eliteko txirrindularien egutegiko urteko lehen txapelketan, Tour Down Under izenekoan, bai eta duela aste gutxi batzuk izandako Euskal Herriko Itzulian bertan ere, podiumetatik azafatak kentzea erabaki dutela. Egiten diren ekimen guztiak gutxi dira patriarkatuaren kontra borrokatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko. Horregatik, Euskal Herriko Itzuliko antolatzaileek egin duten bezala, beharrezkoa da jarrera hori hartzea hirian antolatzen diren gainerako kirol lehiaketei begira.

Consideramos que es necesario llevar a cabo iniciativas al objeto de eliminar en este ámbito también la desigualdad y el trato vejatorio a las mujeres. En el mundo del ciclismo, hemos visto primero en Australia, con la primera competición del año dentro del calendario ciclista de élite, conocido como el Tour Down Under, o la propia Vuelta al País Vasco hace escasas semanas, han decidido eliminar la presencia de azafatas en los podiums. Todas las iniciativas son pocas para luchar contra el patriarcado y avanzar en una igualdad real entre hombres y mujeres. Por ello, tal y como ha hecho la propia organización de la Vuelta al País Vasco en esta ocasión, es preciso fijar tal postura para el resto de competiciones deportivas que se celebren en la ciudad.

Beste hiri batzuek markatu dute jarraitu beharreko bidea. Zarautzek, Eibarrek, eta joan den hilabetean Bilbok, podium iraingarriak deuseztatzeko ekimenak onartu dituzte. Betebehar etikoa eta justizia sozialekoa da hiri honek irmo erantzutea, genero berdintasunarekin konpromiso handiagoa hartuz eta emakumeok iraintzen gaituzten ekintza horien ordez beste aukera batzuk proposatuz.

Otras ciudades han marcado la senda que debemos continuar. Zarautz, Eibar y el mes pasado Bilbao han aprobado iniciativas para eliminar los podios vejatorios.  Es una obligación ética y de justicia social que esta ciudad responda con firmeza, llevando a cabo un mayor compromiso con la igualdad de género, proponiendo alternativas a estos hechos que nos agravian a todas.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak aitortu zuen ez zekiela emakumearen irudia publizitateko erakargarri gisa erabiltzen zuten kirol lehiaketarik bazegoenik. Alabaina, gogorarazi behar izan genion hirian urtero antolatzen dela txirrindularitzako Donostia Klasikoa –Udalak berak ekitaldiaren babesle gisa hartzen du parte– eta proba horretan emakumeei tratu iraingarria ematen zaiela, azafata eta txapeldunen “musu emaile” gisa erabilita. Hori

En la comisión correspondiente, el concejal delegado reconoció desconocer que hubiera competiciones deportivas donde se utilizara la imagen de la mujer como un objeto de reclamo para publicidad. Sin embargo, tuvimos que recordarle que en la ciudad se lleva a cabo anualmente la Clásica San Sebastián de ciclismo en el que el propio ayuntamiento participa como patrocinador del evento y en esta prueba se viene dando un trato vejatorio a mujeres utilizándolas

dela eta, uste dugu gehiago kontrolatu behar dela halako ekitaldien antolatzaileek eta babesleek emakumeaz ematen duten irudia. Erakunde publikook indartu egin behar dugu benetako berdintasunaren alde eta emakumeei ematen zaien tratu iraingarria gizartearen eremu guztietatik erauztearen alde egina dugun apustua.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari eska diezaiela Donostiako kirol ekitaldi eta lehiaketen antolatzaileei nahiz babesleei utz diezaiotela emakumeak publizitate bide eta sexu objektu huts gisa erabiltzeari ekitaldiaren edo lehiaketaren edozein unetan.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari ez dezala laguntza publikorik edo babesik eman emakumeak diskriminatzen dituzten Donostiako kirol ekitaldietarako, eta ez dadila halakoetara joan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 25.2 artikuluan ezartzen duenarekin bat.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari eman diezaiela erabaki honen berri Euskadiko Txirrindulari Elkarteari, Euskal Herriko kirol federazioei, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Sailari.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

como azafatas y "besadoras" de campeones. Por este motivo, consideramos necesario un mayor control de la imagen que se da de la mujer por parte de organizadores y patrocinadores en estos eventos. Desde las instituciones públicas debemos reforzar nuestra apuesta por una igualdad real, por la erradicación del trato vejatorio a las mujeres en todos los ámbitos de la sociedad.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a reclamar todas las entidades organizadoras de eventos y competiciones deportivas en Donostia, así como a los patrocinadores de tales eventos a que supriman la utilización de mujeres como meros medios publicitarios y objetos sexuales en cualquier momento del evento o competición.

2. El Pleno del ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a no conceder ayudas públicas o patrocinios, además de no acudir a aquellos eventos deportivos que se celebren en Donostia que sean discriminatorios con las mujeres, tal y como estipula la Ley 4/2005, de 18 de febrero, en su artículo 25.2, para la igualdad de Mujeres y Hombres.

3. El Pleno del ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al equipo de gobierno a dar cuenta de este acuerdo a la Asociación de Organizaciones Ciclistas de Euskadi (O.C.E), a las Federaciones Deportivas Vascas correspondientes, al Parlamento Vasco y a la Consejería de Deporte del Gobierno Vasco.

Donostia a 12 de Abril de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Amaia Martin Garin andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.17. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak egina, autobus geltokiko bizikleta aparkalekuaren ordutegiari buruzkoa.**

"Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa Gune Publikoen Batzordean (Obrak Eta Hiri Zerbitzuak) autobus geltokiko bizikleta aparkalekuaren ordutegiari buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den otsailean jarri zen martxan Donostiako autobus geltokiko bizikleten aparkalekua. Zerbitzu horren bidez, garraio publikoa baliabide multimodala bilakatzen da, herritarrak bizikletaz joan baitaitezke geltokira, eta eremu eroso eta seguru batean utz dezakete, garraio kolektiboko beste bide batzuk (trena edo autobusa) erabiliz joan-etorriak egiten dituzten bitartean. Aparkalekuak, ordea, ordutegi mugatua du: 06:30etik 23:00etara.

23:00etatik 06:30era zerbitzu hauek daude:

**II.2.2.17. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, en relación con el horario del parking de bicicletas de la estación de autobuses.**

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del presente mes, en relación con el horario del parking de bicicletas de la estación de autobuses.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de febrero se puso en marcha el parking de bicis de la estación de autobuses de Donostia. Se trata de un servicio que permite hacer del transporte público un recurso multimodal donde la ciudadanía puede acercarse hasta la estación en su bicicleta para poder tenerla en un espacio cómodo y seguro mientras realiza desplazamientos en otros medios de transporte colectivo: tren o autobus. Sin embargo, el aparcamiento tiene un horario limitado ya que abre solo de 6:30 a 23:00.

Entre las 23:00 y las 6:30 hay:

- 18 helmugatara joateko autobusak; horien artean azpimarratzekoak dira Madril, Bartzelona, Bilbo, Gasteiz, Zarautz eta Loiuko aireportua.
- 26 helmugatatik iristen diren autobusak; horien artean, Madrildik 2, Bartzelonatik 1, Bilbotik 2, Gasteiztik 1, Zarauztik 1 eta Loiuko aireportutik 2.

- gutxienez, Irun aldera doazen 2 tren.
- gutxienez, Irundik, Madrildik eta Gasteiztik datozen 3 tren.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen ordutegi hori aukeratu dutela eskaera oso txikia delako eta baliabideak ere optimizatu nahi dituztelako. Hori dela eta, bi galdera zehatz egin genizkion:

- Nola erabaki dute ordutegia 06:30etik 23:00etara izatea? Ba al dago txosten edo azterlanik ordutegirik onena horixe dela dioenik?
- Zer kostu gehigarri izango dira bizikleta aparkalekua etenik gabe irekita eduki nahi izanez gero?

Lehenengo galderari ezetz erantzun zion eta argudiatu zuen ez dela txosten edo azterlanik behar “ikusteko bizikleta gutxi dagoela kalean goizeko 4retan”. Beharbada, goizeko 4retan ez da bizikleta askorik egongo kalean, baina gaueko 12etan edo goizeko 6etan? Ez dugu jakingo, ez dagoelako azterlanik bizikleta aparkaleku horrek zer eskaera izan dezakeen aztertu duenik. Bestalde, ezin dugu baztertu eskaera txikia izatearen arrazoia, hain zuzen ere, jarri den ordutegia bera izatea.

Bigarren galderari ez zion ezertxo ere erantzun. Kostu gehigarria oso txikia da. Zerbitzu automatizatu bat da, eta gastu gehigarri bakarra argindarra izango litzateke, baldin eta nekez sinestekoa den premisa hau onartuko bagenu: 23:00etatik 06:30era sistema osoa itzaltzen dela,

- autobuses para ir a unos 18 destinos diferentes, entre los cuales destacamos Madrid, Barcelona, Bilbao, Vitoria, Zarautz o el aeropuerto de Loiu.
- autobuses que llegan de unos 26 destinos diferentes, entre lo cuales 2 autobuses de Madrid, 1 de Barcelona, 2 de Bilbao, 1 de Gasteiz, 1 de Zarautz, y 2 del aeropuerto de Loiu.
- por lo menos 2 trenes en dirección a Irun.
- por lo menos 3 trenes llegando de Irun, Madrid y Vitoria.

En comisión, la Concejala Delegada explicó que se había elegido ese horario por la escasa demanda existente y también para optimizar los recursos necesarios. Preguntamos entonces dos cosas concretas:

- ¿Cómo se ha decidido ese horario de 6:30 a 23:00? ¿Existe algún informe o estudio que concluya que el horario idoneo sea ese?
- ¿Cuales serían los costes adicionales que habría que afrontar para hacer funcionar el parking de bicis de forma continua?

A la primera pregunta, respondió por la negativa alegando que no hace falta informe o estudio para “constatar que hay pocas bicicletas en las calles a las 4 de la mañana”. A las 4 de la mañana probablemente no haya muchas bicicletas por las calles, pero ¿y a las 12 de la noche o a las 6 de la mañana? No lo sabremos porque no hay ningun estudio que haya analizado la demanda potencial para ese parking de bicicletas. Por otra parte, no podemos descartar que la poca demanda pueda estar condicionada justamente por la franja horaria establecida.

A la segunda pregunta, no respondió nada. El coste adicional es mínimo. Se trata de un servicio automatizado, y el único gasto adicional sería el consumo eléctrico, asumiendo la improbable premisa que actualmente se apaga todo el sistema entre las 23:00 y las 6:30.

alegia.

Autobus geltokiko bizikleta aparkalekua zerbitzu publiko bat da, eta, beste edozein zerbitzu publiko bezala, gutxieneko ahalegin gehigarri bat eginda hobetu badaiteke, hobetu egin behar da. Gogoan izan behar dugu oraindik ere garraio kolektiboko trafiko handi samarra dagoela 23:00etatik 06:30era.

El parking de bicicletas de la estación de autobuses es un servicio público, y como cualquier servicio público, si se puede mejorar el servicio con un esfuerzo adicional mínimo, se debe mejorar. Debemos recordar que hay todavía bastante tráfico de transporte colectivo después de las 23:00 y antes de las 6:30.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal gobernuari egin dezala modua, proba gisa, gutxienez urtebetez, autobus geltokiko bizikleta aparkalekua eguneko 24 orduetan erabiltzeko.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia".

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que posibilite, a modo de prueba y por un periodo de un año como mínimo, el uso del aparcamiento para bicicletas de la estación de autobuses durante las 24 horas del día.

Donostia a 12 de abril de 2017

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Pilar Arana Perez andreak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Axier Jaka Goikoetxea, Dª. Pilar Arana Pérez y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.18. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak egina, Miramar jauregiari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du. Miramar jauregiari buruz hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da mozioa.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean azaldu bezala, Joan den martxoaren 20an, komunikabide batek argitaratu zuen Miramar jauregia kudeatzen duen Partzuergoak (Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) txosten bat eskatu duela Miramar jauregiari eman diezazkiokeen erabilerak aztertzeko, Musikene bere behin betiko egoitzara lekualdatu baita.

Horrelako txostenik zegoenik ukatu zuen alkateak batzordean, eta antolatu nahi dituzten erabilerei buruz galdetuta, adierazi zuenez, bateragarri ikusten zuen ostalaritzako erabilera eta kongresu jarduerak, gainera, nabarmendu zuenez, ez zitzaion oso egoitza egokia bulegoak ezartzeko. Hori dagokionez, zehaztu zuenaren arabera, Alderdi Popularrak Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuei eginiko zuzenketak ez du zehazten Basquetour jauregian bertan egoterik, Donostian bertan baizik.

Kezkatu egiten gaitu jauregia ostalaritzarako erabiltzeak ekar dezakeen espazio publikoaren pribatizazioak, erabilera horrek jauregi osoa hartzen ez badu ere.

**II.2.2.18. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre el Palacio Miramar.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en Comisión el presente mes, en relación con el Palacio de Miramar.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como expusimos en comisión, el pasado día 20 de marzo, un medio de comunicación informaba de que el Consorcio que gestiona el Palacio de Miramar (Ayuntamiento, Diputación Foral de Gipuzkoa y Gobierno Vasco) había encargado un informe para analizar los posibles usos del Palacio de Miramar, una vez que la sede de Musikene se ha trasladado a su ubicación definitiva.

El Alcalde en comisión negó la existencia de este informe, y preguntado acerca de los usos previstos, afirmó que veía compatible un uso hostelero con una actividad congresual, a la vez que destacaba que consideraba poco idóneo el emplazamiento para un posible uso como oficinas. A ese respecto, matizó que la enmienda presentada por el Partido Popular a los Presupuestos del Gobierno Vasco no concreta el emplazamiento de Basquetour en el mismo palacio, sino en la ciudad.

Nos preocupa la privatización del espacio público que puede llegar a darse derivado de un uso hostelero del palacio, aunque este no abarque la totalidad del Palacio.

Miramar jauregiaren etorkizunaz beste auzi batek ere kezka sortzen digu: partzuergoaren kudeaketa "profesionalizatu" edo pribatizatu ahal izateak, eta kontu hori interpelazioaren zuribidean jasota egon arren, ez zuten argitu batzordean.

Gogora ekarri nahi dugu ezen Donostiako Udala, Miramar jauregia kudeatzen duen partzuergoko kide izateaz gainera, jauregiaren jabea dela. Halere, orain arte, talde politikoek ez dugu jaso inolako informazio argirik jauregiari eman nahi dizkioten erabilerez.

Gure ustez, horri buruz ezer erabaki aurretik, garrantzizkoa da talde politikoek informazio hori eskuratu ahal izatea, denok ez gaudelako partzuergoan ordezkatuta eta, hortaz, ezin dugulako informazioa zuzen-zuzenean izan.

Irabazi Donostia taldearen aburuz, oso kezkagarria da ordezkari politiko batzuek defendatzea Miramar jauregiaren moduko eraikin bat hotel bihurtu ahal izatea —oso txikia bada ere—, hori ezin baita izan Donostiaren ikurretako bat den eraikin baten helburua.

Hori dela eta, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari udal taldeak Miramar jauregiari eman nahi dizkioten erabileren jakitun jartzeko, horretaz ezer erabaki aurretik.

2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari alde batera uzteko Miramar jauregia etengabe ostalaritzako jarduerekin okupatzearena.

3. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako

Otra cuestión que nos preocupa sobre el futuro del Palacio Miramar es la posible "profesionalización" o privatización de la gestión del Consorcio, cuestión que a pesar de estar incluida en la justificación de la interpelación no fue aclarada en comisión.

Queremos recordar que el Ayuntamiento, además de ser miembro del Consorcio que gestiona el Palacio de Miramar, es el propietario del mismo. Sin embargo, hasta ahora, los grupos políticos no hemos tenido ninguna información clara respecto los usos que se quiere dar al Palacio .

Creemos que antes de que se tome una decisión al respecto, es importante que los grupos políticos podamos tener esa información ya que no todos estamos representados en el Consorcio y por lo tanto no podemos tener información de primera mano.

Para Irabazi Donostia, es muy preocupante que haya voces de representantes públicos que defiendan que un edificio como el Palacio de Miramar, pueda convertirse también en un hotel por pequeño que sea, ya que ese no puede ser el destino de un edificio emblemático de la ciudad.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a informar a los grupos municipales de los usos que se prentende dar al Palacio de Miramar, antes de tomar una decisión al respecto.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que descarte la ocupación permanente de actividades hosteleras en el Palacio de Mirarmar.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San

Udalbatzak udal Gobernuari alde batera uzteko Miramar jauregiaren kudeaketa kanpora atera ahal izatearena.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea".

Sebastian insta al Gobierno municipal a que descarte la externalización de la gestión del Palacio Miramar.

Donostia a 12 de abril de 2017

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Alkate-Udalburuak eta Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia, Alcalde-Presidente y D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**18. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**18. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**18. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 18:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.19. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Ulia mendiari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean hilabete honetan egindako interpelazioaren ondorioz, Ulia mendia dela kausa.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean azaldu genuenez, Udal Gobernuak, duela ia urtebete, pista bat doitu zuen Ulia mendian, Mendiola baserriaren eta Zaharra gotorlekuaren artean, sutea egonez gero suhiltzaileak errazago irits daitezen.

Azaroan Udalbatzak kontrol mozio bat onartu zuen aho batez, Udal Gobernuari honako hau eskatzeko: “lanak esleitu aurretik, arretaz egiazta dadila lanen lizitazio baldintzen agirian ezarritako eskakizun guztiak betetzen direla,

**II.2.2.19. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el monte Ulia.**

“Loïc Alejandro, concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del presente mes, en relación con el monte Ulia.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como expusimos en comisión, el Gobierno municipal llevó a cabo hace casi un año, la adecuación de una pista en el monte Ulia, en concreto entre el caserío Mendiola y el fuerte Zaharra, con el objetivo de facilitar el acceso de los bomberos en caso de incendio.

En el mes de noviembre el Pleno municipal aprobó por unanimidad una moción de control en la que se pedía al Gobierno municipal que, “previa la recepción de obras, verifique detenidamente el cumplimiento de todos los requisitos establecidos

eratutako lurren edo hondakinen helmuga barne".

en el pliego de condiciones de las licitaciones de las obras, incluidos los relativos al destino de las tierras o residuos generados".

Aipatu pista egokitzeko lanen enpresa esleipendunak ondoko lursail batean legez kanpoko asfalto isurpenak egin izana zen kontrol mozio honen jatorria. Apirilean interpelatu genuenez, arazoa Udalbatzari azaldu eta 5 hilabete geroago, ondoko lursail haren egoerak txarrera egin du, orain pertsona batzuek barruan aparkatzen baitituzte haien autoak.

Esa moción de control tenía como origen el hecho de que la empresa adjudicataria de la obra de acondicionamiento de la mencionada pista había realizado vertidos no permitidos de restos de asfalto en una parcela adyacente. Cuando interpelamos este mes de abril, 5 meses después de haber expuesto el problema en el Pleno, la situación de la parcela adyacente había empeorado ya que ahora hay personas que aparcan sus coches dentro.

Hil honetako batzordean, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen apirilaren 10eko astean enpresak asfalto hondakinak kenduko zituela. Deitoratu beharrean gaude lana arazoaren berri eman eta handik hilabete batzuetara egitea, dena dela, berri ona da. Dena dela, garrantzitsu deritzogu asfalto hondakinak kentzeaz gain, zelaia lehengo egoerara itzultzeko beharreko lanak egiteari, ibilgailuak lursailean aparkatu ahal izatea fisikoki galarazita.

En comisión este mes, el Concejal Delegado afirmó que en la semana del 10 de abril, la empresa retiraría los restos de asfalto. Lamentamos que se haga ese trabajo varios meses después de haber señalado el problema, pero aún así es una buena noticia. No obstante nos parece importante que no solo se retirarán los restos de asfalto sino que también se haga lo necesario para que la campa pueda volver a su estado natural, impidiendo físicamente que vehículos puedan aparcar en la parcela.

Gure interpelazioan Ulia mendiko gune naturalean ez dela zainketarik egiten ere salatu genuen, izan ere, baimenik ez duten motordun ibilgailuak ibiltzen handik, hiriaren inguruan dagoen gune naturala izan arren, zeinetara jende asko joaten den egunero hartaz gozatzera. Gurpegi jaunak batzordean erantzun bezala, ez dute aski baliabidetik alde hartan kontrolak egiteko, baina ahaleginak egingo dituzte antolamendua hobetu eta zaintza handitu ahal izateko. Gure ustez, ibilgailuak handik ibiltzea arau hauste bat da, eta udaltzainek ere lagundu lezakete eginkizun horretan. Arau hauste horien inguruko argibide gehiago eskuratzeko (noiz eta non gertatu ohi diren…), gaude ez dela hutsaren hurrengo alde hartako bizilagunek nahiz mendi txangoak antolatzen dituzten elkarteek eman dezaketen laguntza.

En nuestra interpelación, también denunciamos la falta de vigilancia del espacio natural del Monte Ulia, ya que por este espacio circulan vehículos motorizados no autorizados, a pesar de ser un parque periurbano al que acuden numerosas personas a disfrutar de este entorno natural a diario. El Sr. Gurpegi respondió en comisión, que no tienen medios suficientes para realizar un control adecuado sobre el terreno, pero que se intentará mejorar la organización para poder incrementar la vigilancia. Ya que el paso de los vehículos en este espacio constituye una infracción creemos que la Guardia Municipal también podría ayudar en esa tarea. Con el fin de obtener más información sobre esas infracciones (días y lugares habituales de las infracciones, …), creemos que no es desdeñable la ayuda que pueden aportar los y las vecinas de la zona y las

Gainera, beste gauza batzuk ere egin daitezkeelakoan gaude, esaterako, mendirako ohiko sarbideetan eragozgarri fisikoak ezartzea.

asociaciones que suelen organizar salidas en el monte. También creemos que existen otro tipo de actuaciones como pueden ser la colocación de barreras físicas en los puntos habituales de acceso al monte, entre otras.

Bestalde, askotan galdetu dugu ea zertan diren Ulia mendiko plan bereziaren inguruko izapideak. Haietako batean esan zigutenez, lanean ari zen Gobernua hartan, eta hil honetako batzordean, testua dagoeneko idatzita dagoela eta laster Gobernu Batzarrari aurkeztuko diotela.

También han sido varias las ocasiones en las que hemos preguntado por la tramitación del Plan Especial del Monte Ulia. En una de ellas, se nos informó de que el Gobierno estaba trabajando en el mismo, y en la la comisión de este mes, que el texto está ya redactado y que en breve será presentado en la Junta de Gobierno.

Gure ustez Ulia mendiko gune naturala zaindu eta iraunaraztera behartuta gaude, baina iruditzen zaigu Gobernua ez dela nahikoa arduratzen.

Creemos que el monte Ulia es un espacio natural que tenemos la obligación de conservar y cuidar, pero percibimos que la implicación del Gobierno es insuficiente.

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari Mendiola baserria eta Zaharra gotorlekuaren arteko lanak egin dituen enpresari behartzeko ondoko zelai batera botatako asfalto hondakinak kentzera eta zelaia berehalakoan lehengo egoerara ekartzera.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que obligue a la empresa que ha llevado a cabo los trabajos entre el caserío Mendiola y el fuerte Zaharra, a retirar los restos de asfaltado vertidos en una campa adyacente, y a devolver esa campa a su estado anterior de manera inmediata.

2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari arauzko isunak jartzeko asfalto hondakinak Mendiola eta Zaharra gotorlekuaren arteko zelaira bota dituen enpresari.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que aplique las sanciones pertinentes a la empresa que ha vertido los restos de asfalto en la campa adyacente a la pista entre el caserío Mendiola y el fuerte Zaharra.

3. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari beharrezko guztia egiteko autoak ez aparkatzeko Mendiola baserria eta Zaharra gotorlekuaren arteko pistaren ondoko zelaian eta asfalto zatiak aurkitutako aldean.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que haga lo necesario para impedir que coches puedan aparcar en la campa adyacente a la pista entre el caserío Mendiola y el fuerte Zaharra y donde se han encontrado resto de asfalto.

4. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari beharrezko den

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a llevar a

guztia egitea baimenik gabeko motordun ibilgailuak Ulia menditik ibiltzea galarazteko.

cabo cuantas acciones sean necesarias para impedir la circulación de vehículos motorizados no autorizados por el monte Ulia.

5. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hilabeteko epean Ulia mendirako plan berezia aurkezteko.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a presentar el Plan Especial del Monte Ulia en el plazo de un mes.

Donostia a 12 de abril de 2017

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

Donostia a 12 de abril de 2017

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. Ricardo Burutarán Ferré y D. Alfonso Gurpegui Ruiz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.20. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak aurkeztua, Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroa dela kausa.**

**II.2.2.20. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, sobre el Foro de Distribución Urbana de Mercancías (DUM).**

"Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Zerbitzu

"Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia

Orokorren Batzordean hilabete honetan egindako interpelazioaren ondorioz, Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroa dela kausa.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroan, Donostiako Udalak, Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterraren laguntzaz, Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroa jarri zuen martxan.

Antolatzaileen arabera, foroaren helburuak dira jarduera berritzaileak identifikatzea, aztertzea, proposatzea, garatzea eta abian jartzea, merkantzia modu eraginkor, sostengagarri eta garbiago baten kudeatzeko; eta Donostia "hiri logistika sostengagarrian erreferentzia" izatea.

Joan den urtarrilean gure taldeak, lehenik, aipatu forori buruko interpelazio bat egin zuen, ingurumenaren alorrean diharduten erakunde batzuk ere hari atxikitzeko, hasierako planteamenduan horiek jaso gabe geratu zirelako. Une hartan, zinegotzi ordezkariak adierazi zuenez, beste hiri batzuetako foroak adibide hartuta, ingurumen erakunderik ez zuten sartu. Hala ere, ingurumen arloko erakundeek foroan parte hartzearen alde agertu zen. Hil hartan eginiko kontrol mozioan, aho batez onartuta geratu zen Gobernuak, Ingurumeneko Kontseiluarekin batera, horrelako erakundeei parte hartzea erraztuko litzaiekeela.

Baina Ingurumeneko Kontseiluak martxoan egindako azken saioan, ez zitzaien kontseiluko kideei jakinarazi aipatutako foroan parte har zezaketenik. Ez dakigu, modu funtsatuan, beste bideren batetik proposatu ote dieten ingurumenaren aldeko elkarteei Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroan parte hartzea. Azkenik, Udalaren Webgunean martxoaren 31n

de la interpelación en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos del presente mes, en relación con el Foro DUM.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de noviembre el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián con el apoyo del Cluster de Movilidad y Logística de Euskadi puso en marcha el Foro de Distribución Urbana de Mercancías (Foro DUM).

El objetivo del Foro era, según los proponentes, el de identificar, analizar, proponer, desarrollar y poner en marcha actuaciones innovadoras que contribuyan a una gestión de mercancías más eficiente, sostenible y limpia, y convertir a Donostia en un “referente en logística urbana sostenible”.

El pasado mes de enero nuestro grupo presentó primero una interpelación sobre tal Foro al objeto de incorporar al mismo a diferentes organizaciones que trabajan en el ámbito del medio ambiente ya que en el planteamiento inicial éstas no habían sido incorporadas. En aquel momento, la Concejala Delegada señaló que tomando como ejemplo otros foros de otras ciudades no se incluyó a organizaciones medio-ambientales. No obstante, se mostró abierta a que este tipo de organizaciones pudieran participar en el foro. En la moción de control correspondiente que presentamos en aquel mes, quedó aprobado por unanimidad que el Gobierno, en colaboración con el Consejo Asesor de Medio Ambiente (CAMA), facilitara la incoporación de estas organizaciones.

En la última sesión del CAMA del mes de marzo, no se trasladó a los componentes del CAMA la posibilidad de participar en el Foro DUM. Tampoco tenemos constancia de que, por otras vías, se haya propuesto participar en el Foro a las organizaciones medioambientales con presencia en la ciudad. Por último, en la nota de prensa relativa al Foro DUM publicada en la web del

foroaz argitaraturiko prentsa oharrean ondokoa irakur daiteke: “El Foro DUM permanece abierto y están invitados a participar todos los agentes involucrados con la distribución de mercancías en la ciudad”. Zoritzarrez, eta aho batez onarturiko mozioarekin kontraesanean, ez dituzte aipatzen ingurumen erakundeak.

Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroak ez du zertan ingurumen erakunderik txertatu, eta ezin behartu ditzake horrelako erakundeak parte hartzera hala nahi ez badute. Baina Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroan parte hartzea ala ez erabaki ahal izateko, gutxienez, bidea dutela jakin behar dute.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari Ingurumen Kontseiluaren datorren bilkuran aditzera emateko ingurumen erakundeek parte har dezaketela Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroan, hala nahi izanez gero.

2. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari adierazteko Hiri Barruko Merkantzia Garraioaren Foroaren hurrengo prentsa oharretan adierazteko ingurumen erakundeek foroan esku har dezaketela.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia”.

Ayuntamiento el 31 de marzo, se puede leer: “El Foro DUM permanece abierto y están invitados a participar todos los agentes involucrados con la distribución de mercancías en la ciudad”. Desgraciadamente, y en contradicción con la moción aprobada por unanimidad, no se hace mención a las organizaciones medioambientales.

El Foro DUM no tiene obligación de integrar a organizaciones medioambientales, y no puede obligar a dichas organizaciones participar si no lo desean. Pero para poder decidir si participar o no en el Foro DUM, esas organizaciones necesitan saber por lo menos que pueden hacerlo.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que comunique en la próxima sesión del Consejo Asesor de Medio Ambiente que las organizaciopnes medioambientales pueden participar en el Foro de Distribución Urbana de Mercancías si lo desean.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que indique, en las futuras notas de prensa del Foro de Distribución Urbana de Mercancías, que las organizaciones medioambientales pueden participar en el Foro.

Donostia a 12 de abril de 2017

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Axier Jaka Goikoetxea y Dª. Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**20. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**20. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 20:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (4) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP**

---------------

**II.2.2.21. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, B.R.T. Herrerako ibarreko urbanizazioaren diseinuari buruzkoa.**

**II.2.2.21. Moción de control, presentada por el Grupo PP, relativa al diseño de la urbanización de la vaguada de Herrera.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2017ko martxoaren 20an izan zuen bileran Herrerako ibarreko urbanizazioaren diseinuaz egindako interpelazioaren ondorioz.

"Doña Miren Albistur Garmendia, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 20 de Marzo de 2017, relativa al diseño de la urbanización de la vaguada de Herrera.

JUSTIFIKAZIOA

Geltokia eraiki ostean, lan horiek egin zituen enpresak –ETS, Eusko Jaurlaritzarena– Oletako ibarra (Herrera) urbanizatu gabe utzi zuen, aurrekontua gastatu zela aitzakiatzat hartuta.

Egoera hala, gastuak eta ibarrean eginbeharreko lanak bere gain hartu nahi ditu Donostiako Udalak, proiektu bat eginda, maldaren aldapa aprobetxatu eta bi maila edo solairu sortzeko. Zinegotzi ordezkariak batzordean azaldu zuenez, zabaldi bat egokituko eta autopak nahiz motorrak aparkatzeko leku bat ezarriko dute. Gainera, beste zabaldi bat egokituko dute eta plaza bihurtuko, Pasaiako badiara begira, eta Herrerako Begiratokia deituko diote.

Jesarlekuak, estratu moduko bat eta jantoki bat ezarriko dute, bai eta zipresak eta altzari minimalista batzuk, hormigoia eta zura nahasita, haren bidez, Udalaren asmoz, plaza jai ekitaldietarako erabili ahal izateko. Esku hartzeak, gainera, Herrera pasealekuko espaloia konpondu eta zabaldu nahi du Oletako birgunearen eta Itziartxo-enea eraikinaren artean, hala, oinezkoentzako igarobideak eta semaforoak ere aldatu ahal izateko.

Talde Popularrak Eusko legebiltzarrean lortu duenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak gehiago finantzatuko du esku hartze hau garatzeko kontu saila; baina, halere, inguru hori

JUSTIFICACION

Tras las obras de ejecución de la estación del Topo de Altza, la empresa encargada de los trabajos, ETS, dependiente del Gobierno Vasco, dejó sin urbanizar la vaguada de Oleta, con la excusa de que se había acabado el presupuesto.

Ante esta situación, el Ayuntamiento de San Sebastián, pretende asumir el coste y la intervención a realizar en la vaguada, mediante un proyecto que prevé aprovechar el desnivel de la ladera para crear dos niveles o alturas. Como indicó en Comisión el Concejal Delegado, se acondicionará una explanada en la que se ubicarán más de 20 aparcamientos para coches y motos. Además se habilitará una explanada que se convertirá en una plaza con vistas a la bahía de Pasaia, bautizada como Mirador de Herrera.

Habrá bancos, una especie de estrado y una zona de merendero, además de cipreses y un mobiliario minimalista que combinará el hormigón con la madera y que permitirá, según la intención del Consistorio, poder utilizar la plaza para eventos festivos. La intervención plantea, asimismo, arreglar la acera del paseo de Herrera y ensancharla entre la curva de Oleta y la casa Itziartxo-enea, lo que podría implicar también algún cambio en los pasos de cebra y semáforos.

El Grupo Popular en el Parlamento Vasco ha conseguido aumentar la financiación del ejecutivo autonómico para poder desarrollar esta actuación; pero aún así, sigue quedando alguna cantidad

berrurbanizatzeko aurrekontuaren 600.000 euroak osatzeko kantitateren bat falta da oraindik.

para completar el conjunto de la reurbanización del entorno, presupuestado en torno a los 600.000 euros.

Prozesua ez geratzeari eta aurrekontuan lanei ekiteko beharreko diru sailak ezartzeari begira aurkeztu du Talde Popularrak MOZIO HAU

Con la vista puesta en que no se pare el proceso, y que se doten las partidas presupuestarias necesarias para acometer los trabajos, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1. Hertsatuki eskatzen die Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari jendaurrean aurkeztu eta azaltzeko Herrera ibarra (Oleta) berrurbanizatzeko behin betiko diseinuaren proiektua, hura prestatzen amaitu ondoren.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, una vez completado el diseño definitivo de la reurbanización de la vaguada de Herrera (u Oleta), den a conocer públicamente y expliquen el proyecto.

2. Hertsatuki eskatzen die Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari aurrekontuko kontuak aldatzeko, begiz jotako aurrekontua osatzeko Udalak zenbat diru jarri behar duen jakin ondoren, hala, aurrekontu sailez hornitu eta Herrera edo Oleta ibarra berrurbanizatzeko.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, una vez determinada la cantidad económica con la que este Ayuntamiento debe completar el presupuesto previsto, se haga la modificación presupuestaria oportuna, en las cuentas municipales, para dotar de partidas y proceder a la reurbanización de la vaguada de Herrera u Oleta.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

En Donostia/ San Sebastián, a 12 de Abril de 2017

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.22. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Iztuetako zubibidea dela eta.**

“Talde popularreko zinegotzi Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak 2017ko apirilaren 10ean izan zuen bileran Iztuetako zubibideaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den urtearen amaieran, Udal Gobernuak Iztuetako auzotarren eta merkatarien artean azterketa bat egin zuen, parte-hartze prozesu baten bidez, Iztuetako zubibidea zaharberritzeko edo kentzeko aukerei buruz. Gogoratu behar da gaur egun zubibidea egoera txarrean dagoela, eta konpontze lan garestiak behar dituela.

Horrekin lotuta, Udal Gobernuak erabaki du berriro heltzea azpiegitura hori kentzearen gaineko eztabaida zaharrari, eta, gaur egungo zubibidearen ordez, errotonda bat, Mandasko Dukearen amaierako trafikoa antolatzeko, eta trenbideen azpiko pasabide bat (Teresa de Calcuta plazan dagoenaren antzekoa) jartzearen alde agertu da; inguruko auzotarrak, merkatariak eta langileak ere aukera horren aldekoak direla dirudi.

Ekitaldi honetako udal aurrekontuetan 800.000 euroren kontu-sail bat dago zubibidean esku hartzeko, baina ez dakigu askoz gehiago proiektuaren zehaztasunei buruz, eta aurten egiteko asmoa dagoen ere ez dakigu.

Gaur egun, oso egoera txarrean dago Iztuetako zubibidea, pitzadura handiak eta pintura zati batzuk altxatuta baitauzka; horrek, handik egunero-egunero igarotzen den ibilgailu kopuru

**II.2.2.22. Moción de control, presentada por el Grupo PP, relativa al viaducto de Iztueta.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios a las Personas, celebrada el día 10 de Abril de 2017, relativa al viaducto de Iztueta.

JUSTIFICACION

A finales del año pasado, el Gobierno Municipal sondeó a vecinos y comerciantes de la zona de Iztueta, a través de un proceso participativo, en relación a las posibilidades de remodelación o eliminación del citado vial. Hay que recordar que, actualmente, el viaducto se encuentra en mal estado y que requiere una costosa intervención.

En este punto, el Gobierno Municipal ha decidido reabrir el viejo debate sobre la eliminación de esta infraestructura, y se muestra partidario de sustituir el viaducto actual por una rotonda que organice el tráfico al final de Duque de Mandas y por un paso inferior bajo las vías del tren similar al que ya existe en Teresa de Calcuta; opción que parecen preferir, también los, vecinos, comerciantes y trabajadores de la zona.

Existe una partida de 800.000 euros reservada en los presupuestos municipales del presente ejercicio, para intervenir en el viaducto, pero poco más se sabe de la concreción del proyecto ni si se va a realizar este año.

Actualmente, es muy importante el deterioro que sufre el viaducto de Iztueta, con grandes grietas y desconchones; lo que, añadido al gran volumen de vehículos que soporta diariamente, eleva el riesgo

handiari lotuta, areagotu egiten du luiziak izateko arriskua. Hain zuzen, duela egun batzuk hesiekin itxi behar izan dute arkupeetako pasabidea, harriak erori direla eta, nahiz eta, zorionez, ez den inor zauritu.

Baina egoera larria da, eta lanari ekin behar diogu, leku hori aspaldi baitago konponbide baten premian. Gainera, egiturazko arazo horiez gain, zubibidearen azpiko aldean zikinkeria ugari pilatzen da eta gatazkak ere izaten dira, eta hango bizilagunak eta langileak nazkatuta daude halakoak salatzeaz.

Batzordean, alkateak esan zuen gobernu taldeak zubibidea ezabatzeko eta alde hori berrurbanizatzeko asmoa duela eta horretarako behar diren izapideak egingo dituztela. Ikusita lan horiek, ingurua duin egin eta dinamizatzeaz gain, onura ekarriko dietela alde horretako bizilagunei eta merkatariei, hauxe da Talde Popularrak aurkezten duen MOZIOA:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari arindu dezatela Iztueta berrurbanizatzeko proiektua idazteko eta lizitatzeko prozesua eta jar ditzatela 2018ko udal aurrekontuetan proiektu hori aurrera eramateko behar diren kontu-sailak.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a.

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea”.

de desprendimientos. De hecho, hace unos días se ha tenido que cerrar con vallas el paso por los arcos, debido a la caída de cascotes que se ha producido; afortunadamente, sin ocasionar daños personales.

Pero la situación es grave, y toca ponerse manos a la obra en un espacio que lleva años pidiendo una solución ya que, además de estos problemas estructurales, los bajos del viaducto son un importante foco de suciedad y conflictividad que vecinos y trabajadores de la zona están hartos de denunciar.

En Comisión, el señor Alcalde anunció la intención del Equipo de Gobierno de eliminar el viaducto y proceder a la reurbanización de la zona, iniciando los trámites necesarios para ello. A la vista de que esta operación va a beneficiar a vecinos y comerciantes de la zona, además de dignificarla y dinamizarla, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a agilizar la redacción y licitación del proyecto de la reurbanización de Iztueta y a dotar, en el Presupuesto municipal para 2018, de las partidas económicas necesarias para llevar a cabo el proyecto.

En Donostia/ San Sebastián, a 12 de Abril de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular”.

Eztabaida hasita, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Amaia Martin Garin andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José Luis Arrúe Pintó, D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Enrique Ramos Vispo y Dª. Amaia Martín Garín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.23. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Donostiako hondartzetako udal lokaleei buruzkoa.**

“Talde popularreko zinegotzi Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak 2017ko apirilaren 10ean izan zuen bileran Donostiako hondartzetako udal lokalez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Udal honetako Talde Popularra gure hiriko hondartzetan dauden udal lokalen jarraipena egiten ari da, agintaldi hau hasi zenetik. Hain zuzen, hainbat galdera eta interpelazio egin ditugu La Rotonda diskoteka (Kontxako hondartzan) zegoen lokalari buruz, bai eta lehengo Zurriola Marítimo hartzen zuen lokalari buruz ere (Zurriola hondartzan).

Azken lokal horren jarduera joan den urtean amaitu zen. Udal Taldeak azaldu duenez, epe laburrean prest egongo dira plegu berriak, eta asmoa da lokalak uda honetarako erabileraren bat berreskuratzea.

Kontxako hondartzako beheko lokalen artean dagoenari dagokionez, hainbat ekimen bultzatu ditugu urte eta erdi baino gehiago itxita daraman instalazio horren etorkizuneko erabilerei buruz

**II.2.2.23. Moción de control, presentada por el Grupo PP, relativa a locales municipales en las playas de San Sebastián.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Hacienda, celebrada el día 10 de Abril de 2017, relativa a locales municipales en las playas de San Sebastián.

JUSTIFICACION

El Grupo Popular en este Ayuntamiento lleva, desde comienzos del presente mandato, haciendo un seguimiento de los locales municipales sitos en las playas de nuestra ciudad. Concretamente, hemos hecho reiteradas preguntas e interpelaciones en relación al local que ocupaba la discoteca La Rotonda, en la playa de La Concha, y sobre el antiguo Zurriola Marítimo, en la playa de La Zurriola.

Sobre este último local, cuya actividad cesó el año pasado, se ha explicado, por parte del Equipo de Gobierno que, en breve plazo, estarían listos los nuevos pliegos y que la idea era que el local retomara algún uso para el presente verano.

En relación al local sito en los bajos de la playa de La Concha, varias han sido nuestras iniciativas para interesarnos sobre los usos futuros de una instalación que lleva cerrada más de un año y

zerbait jakiteko. Gaur egun hegalean egiten ari diren obrak baldintzatzen ari dira erabilera berri horien gauzatzea, abian jartzea eta epeak, nahiz eta hori den Gobernu Taldearen asmoa.

Kontxako hegalaren obrek 231.000 euroko aurrekontua dute, baina ez du ematen kopuru hori nahikoa izango denik; izan ere, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak onartu du lehengo diskotekaren lokalaren zati bat berregokitu egin behar dela, hegala birgaitzeko lanak amaitzen direnean, eta, gaur egun, berregokitze lan horren aurrekonturik ere ez da egin. Horrek pentsarazten digu hondartza sasoia hasterako lokal hori ez dela prest egongo, ez eta uda hasierarako ere.

Kostako kontuekin amaitzeko, orain dela gutxi jakin dugu Teniseko Errege Klubaren ondoan dagoen udal lokalaren (Branka esaten zaio) jarduera ere bertan behera geratu dela, eta oraindik ez dakigu ezer gehiago horri buruz.

Batzordea, znegotzi ordezkariak adierazi zuen zein den ekipamenduen egoera, zein diren administrazio emakien berezitasunek eta zer epe dauden horietako bakoitzerako, bai eta zer aukera ematen dituzten ere; horrez gain, azpimarratu zuen proiekturik aurreratuena, beharbada, Groseko hondartzan dagoen lokalarena dela.

Gure hondartzetako lokal publikoetan zerbitzuak eman behar direnez, eta emandako azalpenak ikusita, hauxe da talde popularrak egiten duen MOZIOA:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta gobernu taldeari albait gehien azkartu dezatela baldintza orriak egiteko prozesua, ahalik eta arinen esleitzeko eta irekitzeko Zurriola hondartzako udal lokala.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a.

medio. Las obras que, actualmente, se realizan en el voladizo, vienen condicionando los plazos y la ejecución y puesta en marcha de nuevos usos, pese a que esa es la idea del Equipo de Gobierno.

Las obras del voladizo de La Concha tiene un presupuesto de 231.000 euros, que no parecen cantidad suficiente, ya que el Concejal Delegado de Urbanismo ha admitido que hay una parte del antiguo local de la discoteca que debe ser reacondicionado una vez acaben las obras de rehabilitación del voladizo; actuación que, a día de hoy, ni siquiera se ha presupuestado. Lo que nos hace pensar que, de cara al inicio de la temporada de playas -ni siquiera al comienzo del verano- la instalación no vaya a estar preparada.

Para rematar el litoral costero, recientemente hemos conocido que el local municipal junto al Real Club de Tenis, conocido como Branka ha cesado, también, su actividad sin que nada más sepa, por ahora, al respecto.

En la Comisión el Concejal Delegado dio cuenta de las diversas situaciones por las que atraviesan los equipamientos, de las peculiaridades de estas concesiones administrativas y de los tiempos que marcan cada una de ellas, así como de sus posibilidades; incidiendo en que el proyecto más adelantado puede ser el del local de la playa de Gros.

Ante la necesidad de dotar de servicios en los locales públicos de nuestros arenales, y en vista de las explicaciones dadas, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que aceleren al máximo la elaboración de los pliegos para que se pueda adjudicar, a la mayor brevedad posible, el local municipal de la playa de La Zurriola, y proceder a su reapertura.

En Donostia/ San Sebastián, a 12 de Abril de 2017

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.24. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Zurriola hondartzako aldagelei buruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak 2017ko apirilaren 10ean izan zuen bileran Zurriola hondartzako aldagelei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gauza jakina da, behin hondartza sasoia amaituta, Zurriola hondartzako aldagelak ixten dituela Udalak. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, hiriko beste hondartzetan (Kontxan eta Ondarretan), bertan aldagelak zabalik egoten baitira urte guztian zehar.

Udal Gobernuak badaki Zurriola hondartzaren erabiltzaileek urtero eskaerak egiten dituztela

**II.2.2.24. Moción de control, presentada por el Grupo PP, relativa a los vestuarios de la playa de la Zurriola.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras Y Servicios Urbanos, celebrada el día 10 de Abril de 2017, relativa a los vestuarios de la playa de la Zurriola.

JUSTIFICACION

Como sabemos, una vez acabada la temporada de playas, se procede a cerrar los vestuarios de la playa de La Zurriola por parte del Ayuntamiento. Esta situación no se da en las otras playas de la ciudad (La Concha y Ondarreta), que mantienen abiertos sus vestuarios durante todo el año.

El Gobierno Municipal es conocedor de las solicitudes que, todos los años, los usuarios de la

aldagelak neguan ere zabalik egon daitezen. Izan ere, hondartzara joaten diren edo kirola egiten duten (surfa, batez ere) donostiar askok erabiltzen dituzte, dutxaz hornitutako lokalik ez dutenean aldatzeko.

playa de La Zurriola realizan para que se mantengan abiertas, también en invierno, las cabinas colectivas de este arenal, que son utilizadas por un gran número de donostiarras que acuden a la playa o que practican algún deporte-surf, principalmente- y que no disponen de un local con ducha para cambiarse.

Gobernu taldeari gai horri buruz galdetu zitzaion joan den abenduko batzordean, eta argudiatu zuen —zinegotzi ordezkariak hitz egin zuen— hiria behin eta berriz astintzen eta Zurriola hondartzako aldagelak urpetzen dituzten ekaitzen gordintasuna dela-eta ixten direla aldagelak, eta ez zitzaiola egokia iruditzen urria iritsi orduko herritar askok egiten duten eskaera horri kasu egitea.

El Equipo de Gobierno fue preguntado al respecto en la Comisión de diciembre pasado, y argumentaba –en boca de su Concejal Delegado- que el cierre de las cabinas responde a los rigores de los temporales que, recurrentemente, azotan la ciudad y que inundan los vestuarios de la playa de La Zurriola, y que no veían oportuno atender esta petición que muchos ciudadanos plantean cada año al llegar octubre.

Urtarrileko batzordean galdetuta, zinegotzi ordezkariak iragarri zuen, garai hartan. Udal Gobernua ikertzen ari zela Zurriolako hondartzak aldagelak zabalik izatea udalditik harago, eta zerbitzu hori eskaintzeko aukerak bilatzen ari zirela.

Interpelado en Comisión en enero, el Concejal Delegado anunciaba, entonces, que el Gobierno Municipal estaba estudiando la posibilidad de dotar de vestuarios a la playa de La Zurriola más allá de la época estival, y que se están buscando alternativas para poder ofrecer el servicio.

Hil honetako batzordean berriro galdetu diogu gai horretaz Gobernu taldeari, mozioa onartu eta handik hiru hilabetera ez baitugu ikusi aurrerakada nabarmenik auzi horretan, eta hondartza denboraldia hastekotan dagoenez gero, aspaldi-aspaldiko eskakizun horren konponbidea datorren udazkena arte alde batera geratuko dela prentsarazten digu horrek.

En la Comisión de este mes, hemos vuelto a interpelar sobre el asunto al Equipo de Gobierno ya que, transcurridos tres meses desde la aprobación de la Moción, no hemos podido observar avances significativos en relación a esta cuestión, y estamos ya a las puertas del comienzo de la temporada de playas, lo que nos hace pensar que la solución a esta demanda histórica quedará ya, aparcada, para el próximo otoño.

Batzordean zinegotzi ordezkariak sendetsi duenez, zerbitzua aurtengo udazkenean abian jartzea da Gobernu taldearen asmoa, aldaketa batzuk gertatu izanaren ondorioz, beste baldintza orri batzuk idatzi behar baitituzte. Gainera, adierazi zuenez, aldagelak egun diren toki berean egongo dira, hau da, hondartzako kabinetan.

En Comisión, el Concejal Delegado confirma que la intención del Equipo de Gobierno es poder poner en marcha el servicio en el mes de octubre del presente año, ya que se han producido una serie de cambios y es necesario realizar nuevos pliegos. Asimismo, dio a conocer que la ubicación de los vestuarios será en el mismo lugar que ocupan actualmente, en las cabinas de la playa.

Eskera honi arin erantzungo diotelakoan, hona

Confiando en que se pueda dar una rápida

hemen Talde Popularraren MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen die Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari erantzuteko herritarrek Zurriola hondartzan urte osoan aldagelak izateko behin eta berriro eginiko eskaerari, bai eta gainerako hondartzetan ere, donostiarren nahiz bisitarien atsegingarri.

2. Hertsatuki eskatzen die Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari kirol txartela erabiltzen uzteko harpidedunei, Zurriola hondartzako aldagelak zabaldu ondoren.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

respuesta a esta petición, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que den una respuesta a la reiterada petición ciudadana de contar con vestuarios en la playa de La Zurriola durante todo el año, al igual que en el resto de playas, para el pleno disfrute de donostiarras y visitantes.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que se permita el uso de la tarjeta deportiva (kirol txartela) a sus abonados, una vez abiertos los vestuarios de la playa de La Zurriola.

En Donostia/ San Sebastián, a 12 de Abril de 2017

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miguel Angel Diez Bustos jaunak eta Josu Ruiz Martin jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, D. Miguel Ángel Díez Bustos y D. Josu Ruiz Martín, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**24. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 24:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**24. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 24:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2.25. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako kirol espazio alternatiboak direla-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko apirilaren 10ean Pertsonentzako Zerbitzutako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako kiroldegiaren egoera dela eta, martxoaren 22an, Altzako kultur etxean egin zen batzarrean herritarrak eta agintariak elkartu ziren, tartean elkarte eta taldeetako ordezkari ugari zirela. Deialdia Altzatik bertatik egin zuten, eta argi geratu zen bertakoen kezka nagusia kiroldegiaren etorkizuna dela, bai eta berritu bitartean kirol praktika nola egin ere. Deialdiaren egileak elkarte eta herritar ugari dira, auzi honen inguruan bildu eta antolatu direnak -Altzako historian ohikoa den ohiturari jarraiki-.

**II.2.2.25. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los espacios alternativos del polideportivo de Altza.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 10 de abril de 2017.

JUSTIFICACIÓN

El 22 de marzo, ciudadanos, ciudadanas y autoridades se reunieron, junto con muchos y muchas representantes de distintas asociaciones y colectivos, en la casa de cultura de Alza, para tratar la situación del polideportivo. La convocatoria partió del propio barrio y quedó claro que la mayor preocupación de los vecinos y vecinas es el futuro de la citada instalación deportiva, junto con la de la posibilidad de hacer deporte mientras se lleva a cabo su reforma. Las y los autores de la convocatoria fueron numerosas asociaciones y particulares, que se han unido y organizado en torno a esta cuestión, algo

tradicional en la historia de Alza.

Agintarien partetik, alkatea eta Kiroleko zein Hirigintzako zinegotzi ordezkariak izan ziren presente eta hiztun. Kiroldegiaren egoerari dagozkion ikuspuntu anitz izan ziren mintzagai. Asko dira bertakoentzat kezkagarri ziren gaiak.

Por parte de las autoridades, estuvieron presentes, y participaron en el debate, el alcalde y los concejales delegados de Deportes y Urbanismo. Se trataron muchos puntos de vista diferentes sobre la situación del polideportivo. Y muchos eran los temas que preocupaban al vecindario.

Azaldutako kezka eta kexen artean, etorkizuna berriz elkarrekin diseinatzekoa eta bien bitarteko irtenbideen aukera multzoa izan ziren hizpide. Izan ere, momentuz bertan behera geratuta dagoen kiroldegiaren egitasmoa prozesu parte hartzaile baten ondorioa izan zen, eta orain egin beharreko aldaketak modu berean egiteko eskaera zehatza egin zen Tomasene kultur etxeko bilera hartan. Bestetik, eskaera anitz bezain ugari izan ziren, bien bitartekoan eta kiroldegia itxita egongo den bitartean egin daitezkeen laguntza eta neurri konpentsagarriak direla-eta. Udal gobernukideak, alkatea buru eta lehena, ulerkor agertu ziren horien guztien aurrean.

Entre las preocupaciones y quejas que se expusieron, se habló de volver a diseñar de forma conjunta el futuro y las posibilidades de solución temporal. Y es que el proyecto de polideportivo que, de momento, está paralizado, fue consecuencia de un proceso participativo. En este sentido, en la reunión de la casa de cultura Tomasene se pidió expresamente que las modificaciones que haya que realizar ahora se sometan también a un proceso participativo. Por otro lado, hubo muchas y diversas solicitudes relativas a las ayudas y medidas compensatorias que podrían ponerse en marcha temporalmente, mientras el polideportivo esté cerrado. Los y las miembros del Gobierno Municipal, con el alcalde a la cabeza, se mostraron comprensivos con todo lo allí manifestado.

Aurrekoak jaso eta Udal Gobernuari interpelazio aurkeztu genion apirileko batzordean. Kontuan izan behar da talde honetatik laguntza eta neurri konpentsagarriak proposatu diren aukerei Udal Gobernuak ezetz esan diela beti: aurrekontuan partida berezia, gaia aztertzeko interpelazioa, proposamen eta mozioak... Hau da, bileran azaldutakoaren kontrako praktika izan du Udal Gobernuak orain arte, udal taldekideen proposamenak -hain zuzen ere neurri horiek bideratzeko helburua zutenak- ez baititu aintzakotzat hartu. Beraz, inportantea zen argitzea Udal Gobernuaren asmoa, herritar orok argi izan dezan.

Recopilando todos estos hechos, presentamos una interpelación al Gobierno Municipal en la comisión de abril. No podemos olvidar que el Gobierno Municipal siempre ha rechazado la opción de ofrecer ayudas y adoptar medidas compensatorias propuesta por este grupo: una partida especial en el presupuesto, una interpelación para analizar el tema, propuestas, mociones… Es decir, que la práctica del Gobierno Municipal hasta ahora ha sido lo contrario a lo que manifestó en la reunión, puesto que no ha tomado en consideración las propuestas de los y las miembros de los grupos municipales, que, precisamente, tenían como objetivo la adopción de estas medidas. Por ello, es importante clarificar cuál es la intención del Gobierno Municipal, para que todos los ciudadanos y ciudadanas la conozcan.

Alkate jaunak batzordean azaldu zuen neurri konpentsatzaileak egingo direla, kiroldegia itxi eta berriz izena bertan ematerakoan, baina ez zuen azaldu bien bitarteko beste neurririk egiteko asmorik. Bileran, aldiz, egunerokoari aurre egiteko alternatibak eskatu zirenean eta bertan jasotako proposamenei erantzunez, aditzera eman zen espazio berriak bilatu eta nolabait antolatzeko asmoa: “Udal Gobernuak ez du baztertzen, baina ekitatiboak izan nahi dugu” edo “bien bitarteko espazioak aztertzeko konpromisoa hartzen zela”. Aztergai dago ala ez? Izen emateak egiterakoan egin daitezkeen deskontuez gain, egun praktikan ari direnentzat zerbait pentsatuko da ala ez? Gogoratu beharra dago, arazo indibidualez gain -ekonomikoak edo/eta mugikortasunerako- Altzatik kanpo mugitzeko baldintzak - urruntasuna eta orografia kontuan hartuta- ez direla beste hainbatetan daudenak.

El Sr. alcalde manifestó en la comisión que se adoptarán medidas compensatorias a la hora de volver a inscribirse en el polideportivo, pero no citó ninguna otra medida que pretendan tomar mientras llegue este momento. Sin embargo, en la reunión, cuando se reclamaron alternativas para hacer frente a la situación diaria actual, y en respuesta a las propuestas que allí se plantearon, los representantes del Gobierno Municipal dijeron que tenían la intención de buscar y ordenar nuevos espacios. Según manifestaron, el Gobierno Municipal no descartaba esta posibilidad, pero pretendían ser equitativos. También dijeron que asumían el compromiso de estudiar qué espacios se podrían utilizar de forma temporal. ¿Van a estudiar esta posibilidad o no? Además de los descuentos que puedan hacerse en el importe de las matrículas, ¿se va a buscar una solución para las personas que hoy en día quieren practicar deporte? Hay que recordar que, además de los problemas individuales –económicos o relacionados con la movilidad–, las condiciones para trasladarse a otros lugares fuera de Alza no son iguales a las que existen en otros barrios, por razones de distancia y de orografía.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

1,- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Altzako kiroldegi berria ireki bitartean, neurriak har ditzala kirola egiteko espazioak egokitzeko Altzan bertan, berehalakoan erabiltzeko modukoak, bien bitarteko izaeraz edo/eta etorkizunean behin betiko gera daitezkeenak.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, mientras no se abra el nuevo polideportivo de Alza, adopte medidas para acondicionar, de forma temporal o permanente, espacios para la práctica del deporte en el propio barrio, y para que estos espacios se puedan utilizar de inmediato.

2,- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Altzako kirol jarduerari erantzuna emateko diseinatzen dituen behin behineko proposamenak, gauzatu aurretik, konparti ditzala Altzako eragile eta herritarrekin.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, antes de materializar las propuestas provisionales que diseñe para dar respuesta a la actividad deportiva de Alza, las comparta con los y las agentes y los ciudadanos y ciudadanas del barrio.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Amaia Martin Garin andreak, Alkate-Udalburuak eta Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, Dª. Amaia Martín Garín, Alcalde-Presidente y D. José María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.26. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Anoetako miniestadioa birmoldatzeko proiektuaren ingurukoa.**

"Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluak oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du Anoetako estadio txikia birmoldatzeko proiektuan inguruan, osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko otsailaren 13ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Anoeta estadio txikia birmoldatzeko obren exekuzio proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua Sestra S.L enpresari esleitu zitzaion. Akordio hau Anoeta Kiroldegiaren kontseiluan gauzatu zen 2016ko martxoaren 16an. Esleipenean, egikaritzeko lau hilabeteko epea

**II.2.2.26. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el proyecto de remodelación del miniestadio de Anoeta.**

"Josu Mirena Ruiz, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, sobre el proyecto de remodelación del miniestadio de Anoeta, para su tratamiento en el Pleno Municipal. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada el 13 de febrero de 2017 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El contrato de servicios para la redacción del proyecto de ejecución de las obras de remodelación del miniestadio de Anoeta de San Sebastián fue adjudicado a la empresa Sestra SL, el 16 de marzo de 2016, por acuerdo adoptado en el Consejo de Anoeta Kiroldegia-Ciudad Deportiva

zuen enpresak. Exekuzio proiektua ez da oraindik aurkeztu kontseiluan, ordea.

de Anoeta SA. Se concedió a la empresa un plazo de cuatro meses para ejecutar la obra. Sin embargo, el proyecto de ejecución no se ha presentado todavía al Consejo.

Otsaileko batzordean, zinegotzi-ordezkariak gai honekin buru-belarri ari zela esan zuen, baina oraindik ere exekuzio proiektua ez da gauzatu.

En la comisión de febrero, la persona que ostenta la concejalía correspondiente manifestó que se estaba dedicando con empeño a este tema, pero el proyecto de ejecución todavía no se ha realizado.

Bien bitartean, Anoetako estadioa berritzeko, dagoeneko zero lotea esleitu da. Anoetako obra guztien ikuspegia eta kronogramak izateko, estadio txikiaren exekuzio proiektua beharrezkoa da, eremuak plangintza bat izan dezan

Entretanto, ya se ha adjudicado el lote cero para la reforma del estadio de Anoeta. Consideramos que, para poder tener una visión de todas las obras de Anoeta, así como para elaborar los cronogramas correspondientes, es necesario contar con el proyecto de ejecución del miniestadio, y poder así planificar las intervenciones de toda la zona.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio udal taldeei lehenbailehen aurkez diezaiela estadio txikia birmoldatzeko exekuzio proiektua, eta eremu osorako plangintza-kronograma bat landu dezala.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Municipal que presente, cuanto antes, a los grupos municipales el proyecto de ejecución de la remodelación del miniestadio, así como que elabore una planificación-cronograma para todo el ámbito.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Josu Mirena Ruiz Martin,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Josu Ruiz Martin jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Josu Ruiz Martín, D. Loïc Alejandro, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.27. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Konkorreneko auzo elkarteak aurkeztutako kexaren ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko apirilaren 10ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Martxoaren 15ean Konkorreneko auzo elkarteak aurkeztutako idatzia jaso genuen erregistro bidez.

Bertan adierazten dute zonaldea abandonatuta dagoela mantenimendu ikuspegitik: belarra moztu beharra dago, zuhaitzak etxebizitzetako leihoetara iristen dira, lorategiak zaindu gabe daude eta abar.

Apirileko batzordeetan Bide Publikoetako zinegotzi-ordezkariak esan zigun lorategiak pribatuak direla eta horregatik ez dela mantenimendu lanik egin. Bizilagunek diote badaudela partzela publikoak eta aurreko urteetan egindako mantenimendu lanak aurten ez direla egin.

Partzela publikoen zerrenda begiratuz gero, bizilagunek arrazoia dutela baieztatu dugu. Hau da: Aitor Ikastola alboko partzelak publikoak dira

**II.2.2.27. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las quejas presentadas por la Asociación de Vecinos de Konkorrenea.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Espacio Público el 10 de abril de 2017.

JUSTIFICACIÓN

El 15 de marzo, recibimos por medio del Registro un escrito presentado por la asociación de vecinas y vecinos de Konkorrenea,

en la que se afirma que la zona se encuentra abandonada desde el punto de vista del mantenimiento: la hierba está sin cortar, los árboles llegan hasta las ventanas de las casas, las zonas ajardinadas no se cuidan, etc., etc.

En las comisiones de abril, el concejal delegado de Vías Públicas manifestó que las zonas ajardinadas son privadas y que por eso no se había hecho ninguna labor de mantenimiento. Pero, según los vecinos y vecinas de la zona, algunas de las parcelas son públicas y este año se han dejado de hacer trabajos de mantenimiento que sí se hacían años atrás.

Hemos consultado la relación de parcelas públicas y hemos comprobado que los vecinos y vecinas tienen razón. Es decir, que las parcelas

(7 eta 9 zenbakiak, adibidez).

colindantes con la ikastola Aitor son públicas (los números 7 y 9, por ejemplo).

Behin baino gehiagotan ikusi dugu arazo hau Udal Gobernuarekin: bizilagunen mantenimendu eskaera bat jaso eta eremu pribatua dela erantzun, nahiz eta publikoa izan. Esate baterako, martxoko plenoan egoera bera bizi izan genuen Marrutxipiko argiteriaren mantenimenduarekin.

En más de una ocasión, hemos visto repetirse este mismo problema con el Gobierno Municipal: ante la demanda de labores de mantenimiento por parte del vecindario, el Gobierno responde que se trata de zonas privadas, aunque, en realidad, sean públicas. Como ejemplo, podemos citar la situación vivida en el pleno de marzo con respecto al mantenimiento del alumbrado de Marrutxipi.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala Konkorrenea kaleko zein zonaldetan egin behar duen belar mozketa eta noiz, eta zein zonaldetan ez duen egin behar.

1. El Pleno del Ayuntamiento solicita al Gobierno Municipal que especifique en qué zona de la calle Konkorrenea va a proceder a cortar la hierba y cuándo lo va a hacer, así como en qué zona no va a llevar a cabo esta tarea.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari kexa aurkeztu duten auzotarrei esan diezaiela zein eremu den pribatua eta zein publikoa.

2. El Pleno del Ayuntamiento solicita al Gobierno Municipal que comunique a los vecinos y vecinas que han presentado la queja qué zona es privada y cuál es pública.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 12 de abril de 2017

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Miguel Angel Diez Bustos jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Olaia Duarte López, D. Miguel Ángel Díez Bustos y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

**II.2.2.28. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, haur eta gazteei zuzendutako hiriko emanaldietan eta haiek igartzen dituzten karteletan euskararen erabilpena normalizatzeko arauak bermatzen ez direla eta.**

“Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko apirilaren 10ean Pertsonen Zerbitzu Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 4tik 12ra bitartean, dinosauroen inguruko erakusketa egin zen Donostia Arena udal ekipamenduan. Haren publizitatea hiri osoan ikusi genuen: baimendutako tokietan zein baimenik gabeko espazio publikoetan. Iragartzeko kartelak erdara hutsez zeuden, eta bi hizkuntzatan zeudenetan euskararen erabilera eskasa zen, eta mezua ulertzea zailtzen zuten akats ortografiko larriez. Hori nahikoa ez, Donostia Arena udal ekipamenduan egindako erakusketako azalpen guztiak ere erdara hutsean zeuden.

Berriro ere, martxoaren 3tik 12ra, Circo Italiano izan zen bisitan Donostian eta bere zabalkunderako erabilitako mezu guztiak

**II.2.2.28. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la no garantía de la utilización del euskera en aquellas actuaciones que teniendo lugar en la ciudad han estado dirigidas al público infantil y juvenil, y en sus correspondientes carteles anunciadores.**

“Naiara Sampedro Perez, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Órgano Municipal del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas del 10 de abril de 2017.

JUSTIFICACIÓN

Del 4 al 12 de febrero, tuvo lugar en el equipamiento municipal Donostia Arena una exposición sobre los dinosaurios, cuya publicidad pudo verse en toda la ciudad, tanto en lugares autorizados como en espacios públicos carentes de autorización. Estos carteles anunciadores estaban únicamente en castellano y los que estaban en bilingüe mostraban un uso deficiente del euskera, puesto que contenían faltas ortográficas tan graves que dificultaban la comprensión del mensaje. Por si fuera poco, todas las explicaciones de la exposición que acogió el equipamiento municipal Donostia Arena estaban únicamente en castellano.

De nuevo, del 3 al 12 de marzo, el Circo Italiano visitó San Sebastián, y todos los mensajes utilizados para su anuncio estaban solamente en

gaztelera hutsean zeuden; Koldo Mitxelena ondoan jarritako takilan, adibidez.

Jarraian ematen ari diren arau hausteen aurrean eta horrek bereziki, hiriko haur eta gazteen euskararen erabileran sortzen ari diren kalteaz kezkaturik, arauak haustera iritsi aurretik, hizkuntz erabilerarako arauak bermatu eta jarduera guztiak normaltasunez baimendu daitezkeela uste dugu.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, baiezta dezala, baimenak eman aurretik, hiriko hizkuntza irizpideen betekizun egokia egin dadin neurriak hartzen direla espazio publikoetan egindako ekitaldietan, bereziki gazteei zein haurrei zuzendutakoetan.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, 2017an egin beharreko “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. Plangintza-aldia” prestatzerakoan, protokoloak edo koordinazio tresnak diseina ditzala, bereziki gazteei zein haurrei zuzentzen zaizkien jarduerak tartean direnean, gaur egun Udalak indarrean dituen arau eta jarraibideak betetzen direla ziurtatze aldera.

Donostian, 2017ko apirilaren 12ean

Naiara Sampedro Perez
EHBilduko Zinegotzia”.

castellano, como es el caso de los mostrados en la taquilla ubicada al lado de Koldo Mitxelena.

Ante las continuas infracciones a las normas y preocupadas porque ese hecho especialmente esté afectando al uso del euskera por parte de niñas y niños y jóvenes, consideramos que, antes de llegar a producirse infracciones, se puede garantizar el cumplimiento de las normas sobre el uso de las lenguas y el que todas las actividades se puedan desarrollar con normalidad.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que, para avanzar en la normalización del uso del euskera, antes de otorgar los pertinentes permisos, compruebe que en aquellas actividades que se desarrollen en espacios públicos se adopten las medidas precisas para un adecuado cumplimiento de los criterios lingüísticos en vigor en la ciudad, especialmente en aquellos destinados a menores y jóvenes.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que, para avanzar en la normalización del uso del euskera, al elaborar en 2017 el Plan de Normalización del Uso del Euskera de la Administración Municipal de San Sebastián, 6º Periodo de Planificación, diseñe los protocolos e instrumentos de coordinación, especialmente cuando estén de por medio actividades destinadas al público infantil y juvenil, con objeto de garantizar el cumplimiento de las normas y criterios en vigor en el ayuntamiento.

En San Sebastián, a 12 de abril de 2017

Naiara Sampedro Perez,
concejala de EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Naiara Sampedro Pérez, Dª. Miren Azkarate Villar y Dª. María Luisa García Gurruchaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (9) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 5 – (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.2.29. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostia Turismoa Sozietateari dagokion "Euskararen erabilera normalizatzeko plana" ez dagoen bitarteko irizpideak direla-eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko apirilaren 10ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko apirilaren 10ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean gogora ekarri genuen 2015eko urriaren 29an Udalbatzak onartu zuela Udal Gobernuari eskatzea bermatzeko, euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, eta indarrean

**II.2.2.29. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las medidas transitorias hasta que San Sebastián Turismo SA disponga de su plan para la normalización del uso del euskera.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 10 de abril de 2017.

JUSTIFICACIÓN

En la Comisión de Servicios a las personas del 10 de abril de 2017 mencionamos que el Ayuntamiento Pleno en la sesión de 29 de octubre de 2015 instó al Gobierno municipal a garantizar la normalización del uso del euskera y a no contravenir las normas y directrices contenidas en

dagoen "Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)" delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz, 2016ko testuinguruan egiten diren informazio idatzietan, eta hizkuntza aniztasuna erabili behar denean -hau da, euskara, gaztelera eta beste kanpo hizkuntzak ere- euskara ez dela kaltetua izango.

Erabaki hori, data bistan, testuinguru jakin batean eman zen: 2016 hasteko gero eta denbora gutxiago falta zenean, euskara eta gaztelaniaren erabilerari dagozkion hizkuntza-irizpideen erabileran egoera desegokiak suertatu ziren hizkuntza gehiagoren artean erabiltzerakoan. Kontrol-mozioaren ondorioz, batetik, oker batzuk aldarazi zituen Udal Gobernuak. Bestetik, kontrol-mozioaren eztabaidan zinegotzi ordezkariak gaiari heltzeko asmoa agertu zuenez, zailtasunak eta konplexutasunak aitorturik, talde honetatik eskua luzatu genuen, lan horretan laguntzeko asmoz; beti ere, iniziatiba gobernuari zegokiola argi izanda. Eleaniztasunean erabilera egokiak egiteko zailtasuna, eta zailtasun hori gainditzeko hausnarketak egin beharra eta soluziobideak aurkitzeko urgentzia konpartitua, Udal Gobernuak martxoan Euskararen Kontseilu Sektorialaren Batzorde Iraunkorrean, gaia jorratzeko lan talde proposamena egin zuen, Kontseiluak egoki ikusi zuen eta taldea osatu zen. Abiatzeko zorua egun indarrean ditugun arau eta irizpideak izanik, 2016a bukatu aurretik adostuak geratu ziren Donostiako hizkuntza ofizialen trataera beste hizkuntza batzuekin erabili behar direnean jarraitzeko irizpideak.

Donostia Turismo sozietatearen Euskararen erabilera normalizatzeko Plana garatze bidean da, 2015ean sozietateren eta Udalaren artean sinatu zen lankidetza-hitzarmenaren ondorioz. Hortik aurrera, Udalaren ekimena euskarari dagokionez ere turismo arloan eredu eta bozgorailu zuzena izango da, sozietateak berak

el 5º periodo de planificación (2013-2017) del Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián en los textos y escritos redactados en el contexto del programa dSS 2016 y en situaciones de multilingüismo donde se utilicen el euskera, el castellano y otras lenguas, de modo que el euskera no resulte perjudicado.

Dicha resolución se dio en un contexto determinado: faltaba poco para la llegada del 2016 y pudimos constatar la no aplicación de los criterios lingüísticos establecidos para la utilización del euskera y castellano junto a otras lenguas. A consecuencia de la moción de control, por un lado, el Gobierno municipal corrigió algunos errores. Por otro lado, como en el debate de la moción de control la Concejalía Delegada manifestó su intención de ocuparse del asunto, reconociendo las dificultades y complejidad del asunto, desde este grupo tendimos nuestra mano con intención de colaborar en esa labor, teniendo siempre muy claro que la iniciativa correspondía al Gobierno. Compartiendo las dificultades que conlleva la realización de usos adecuados en situaciones de multilingüismo y la necesidad de reflexionar y la urgencia de encontrar soluciones para superar dichas dificultades, el Gobierno municipal, en la Comisión Permanente del Consejo Sectorial de Euskera, propuso la creación de un grupo de trabajo para ocuparse de ese asunto, grupo que se constituyó tras aprobar la propuesta el consejo. Siendo el suelo desde el que encaminarse las normas y criterios vigentes en la actualidad, antes de finalizar 2016 quedaron consensuados los criterios de uso de las lenguas oficiales para cuando deban aparecer junto a otras lenguas.

Se encuentra en fase de desarrollo el Plan de Normalización del Uso del Euskera de la Sociedad de Turismo, como consecuencia del convenio de colaboración suscrito entre el ayuntamiento y esa sociedad en 2015. De ahí en adelante, por lo que atañe al euskera, la iniciativa municipal también será modelo y altavoz en el ámbito del turismo,

duen eragin biderkatzailea dela medio, bere baitan turismo arloko eragile ugari biltzen baititu.

gracias a la influencia multiplicadora que posee la mencionada sociedad, dado que alberga en su seno a muchos agentes sociales del turismo.

Aurrekoak horrela, eta kontuan hartuta arazoak eta egoera kezkagarriak suertatu direla euskara aniztasunean den testuinguruetan -hizkuntzen trataera egokia egiteko zailtasunak ukaezinak baitira-, bien bitartean egokitzat jo daiteke, Donostia Turismo sozietateak, iazko udazkenean, Donostiako Euskararen Kontseiluak ontzat jo zituen hizkuntza ofizialen eta beste hizkuntzen erabilera-jarraibideak presente izatea eta eguneroko jardunean aplikatzea. Gainera, jarraibide hauek adosteko prozesu horretan, Donostia Turismo sozietatea parte izan da, horretarako propio sortu zen lan taldean parte hartze zuzena izan duelako eta, beraz, aplikatzeko zailtasunak baina gakoak ere ongi ezagutzen ditu.

Así las cosas, y tomando en consideración que se han dado situaciones preocupantes y problemas en contextos en los que el euskera está en situaciones de multilingüismo —resultan innegables las dificultades para un tratamiento adecuado de las lenguas—, mientras tanto, se puede considerar adecuado el que la sociedad Donostia Turismo tenga presente y aplique en su práctica diaria los criterios de uso de las lenguas oficiales y del resto de las lenguas aprobados por el Consejo del Euskera. Además, en ese proceso de consensuar dichos criterios, la sociedad Donostia Turismo ha sido parte activa, porque participó directamente en el grupo de trabajo creado con dicho fin y, por tanto, conoce bien tanto las dificultades para la aplicación como las claves.

Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari Donostia Turismo sozietateari dagokion “Euskararen erabilera normalizatzeko Plana” bukatzen duen bitartean hertsiki jarrai diezaiela Euskararen Kontseilu Sektorialak 2016ko azaroaren 22an ontzat jo zituen hizkuntza ofizialen eta beste hizkuntzen erabilera jarraibideei.

1. El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que mientras finalizan la elaboración del Plan de Normalización del Uso del Euskera de la Sociedad de Turismo, ésta siga estrictamente los criterios de uso de las lenguas oficiales y del resto de las lenguas, conforme a lo aprobado por el Consejo Sectorial del Euskera el 22 de noviembre de 2016.

Donostian, 2017ko apirilaren 12an

En San Sebastián, a 12 de abril de 2017

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.30. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena eta El Perlon terraza inguruko espazio publikoaren erabilera dela eta.**

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Olaia Duarte Lopezek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, Udalbatzan azter dadin, Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena eta El Perlon terraza inguruko espazio publikoaren erabilera dela eta Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak apirilaren 10ean izandako bileran azterturiko interpelazioaren ondorio da mozio hau.

JUSTIFIKAZIOA

Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak ekainaren 28an emandako ebazpenaren bidez, baimena ematen zaio Sociedad Balneario La Perla del Océano SL sozietateari terrazaren azalera gehienez 1.200 metro koadroraino zabaltzeko, terrazako igarobideak eta sarbideak kanpo utzita, betiere baldintza batzuk betetzekotan. Baldintza horien artean daude, adibidez, baranda ondoan 3 metro zabaleko tarte bat libre uztea oinezkoak ibiltzeko, jarritako elementu guztiak desmuntagarriak izatea eta zorura josita ez egotea, elementu horien kopurua mugatzea...

**II.2.2.30. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre el permiso de la Dirección General de Sostenibilidad de Costa y del Mar.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, en relación al permiso de la Dirección General de Sostenibilidad de Costa y del Mar y el uso del espacio público en la zona del Perlón. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del pasado 10 de abril.

JUSTIFICACIÓN

Mediante Resolución de la Dirección General de Sostenibilidad de Costa y del Mar de 28 de junio del 2016, se autoriza a la Sociedad Balneario La Perla del Océano SL un aumento de las superficies de terrazas hasta un máximo de 1.200m2, sin incluir la ordenación del tránsito y acceso a las mismas, siempre que se cumplan determinadas condiciones -entre otras, las relativas a la necesidad de dejar libre expedita una franja de tres metros de ancho junto al barandado, para el tránsito público; la de que todos los elementos que se instalen sean desmontables y no estén anclados al suelo, la limitación de su número...-.

Abuztuaren 26an, Gipuzkoako Kosta Zerbitzuaren txosten bat sartu zen udalean. Txosten horrek dioenez, zenbait lege-hauste egiten ari direla egiaztatu du zerbitzu horrek. Hauek aipatzen ditu:

- Baranda ondoko 3 metro zabaleko tartea besaulki, mahai eta aulkiekin hartuta dagoela.
- Terraza egunero garbitzeko erabilitako ura eta hondakinak zuzenean hondartzara isurtzen dituztela.
- Sarbideak kartel, loreontzi eta abarrekin hartuta daudela (oinezkoei barandaraino joateko asmoa kentzeko moduan).
- Biltegiratzeko espazioak itxituraz inguratuta daudela.
- Baimendu gabeko elementu osagarriak jarri dituztela: manparak, baimendutako altuera gainditzen duten mahai batzuk, komun kimikoak…
- Elementu batzuek eta elementu batzuen ezaugarri eta materialek bistak eragozten dituztela.
- Amaitzeko, terrazako elementu batzuk zorura josita daudela egiaztatu dute. Horrek terrazei buruzko udal ordenantza bera urratzen du, gainera.

Urtarrileko batzordeetan, delegatuari lege-hausteen arrazoiei buruz galdetu genion, eta hil bereko Udalbatzan mozio hau onartu genuen aho batez:

1.- Donostiako Udaleko Udalbatzak Gobernu Taldeari hauek eskatzen dizkio hertsatuki: legez ezarritako baldintzek eta abuztuaren 26ko Kosta Zerbitzuaren idazki ofizialak adierazten dutena betetzearren, arautzutakoa betearaz dezala; har ditzala behar diren neurriak, baranda ondoko hiru metro zabaleko tartea jende guztiari irekita egon dadin, bai eta oinezkoen irisgarritasuna

El 26 de agosto, entra en el Ayuntamiento informe del Servicio de Costas de Gipuzkoa que constata que se están produciendo distintos incumplimientos, señalándose los siguentes:

- Ocupación de la franja de tres metros de ancho, junto a la barandilla, con sillones, mesas y sillas.
- Evacuación directa a la playa de las aguas y residuos procedentes de la limpieza diaria de las terrazas.
- Ocupación de pasillos de acceso con carteles, maceteros, etc (que disuaden a los transeúntes de acceder al barandado).
- Cerramientos de espacios destinados a almacén.
- Instalación de elementos auxiliares no autorizados, tales como mamparas, velador para música, mesas que sobrepasan la altura autorizada, baños químicos, etc.
- Elementos y características y materiales de determinados elementos que impiden la permeabilidad de vistas, creando pantallas visuales.
- Finalmente constata que se produce un anclaje de elementos de la terraza al pavimento lo que supone además un incumplimiento de la propia ordenanza municipal sobre terrazas.

En las comisiones de enero preguntamos al delegado las razones de los incumplimientos y en el pleno de enero aprobamos por unanimidad la siguiente moción:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta la equipo de gobierno a que, en cumplimiento de las condiciones legalmente establecidas y del oficio del Servicio de Costas de 26 de agosto, haga cumplir las mismas; tome las medidas oportunas para asegurar que la franja de tres metros de ancho junto al barandado existente permanece abierta al público general y libre de enseres o

murrizten edo oztopatzen duten gauzarik, altzaririk edo beste elementurik gabe egon dadin ere; ez dadila jarri baimendu gabeko elementu osagarririk; eta ez daitezela bistak eragotzi, ikusmena oztopatzen duten pantailen bitartez.

mobiliario u otros elementos que disuadan o restrinjan el acceso público de personas viandantes; que no se instalen elementos auxiliares no autorizados y que no se impida la permeabilidad de vistas creando pantallas visuales.

2.- Donostiako Udaleko Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio har ditzala behar diren neurriak, terrazen garbiketak eragindako hondakinak eta urak zuzenean hondartzara bota ez daitezen.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a tomar las medidas precisas para evitar que se produzca una evacuación directa de las aguas y residuos procedente de la limpieza de las terrazas, directamente a la playa.

3.- Donostiako Udaleko Udalbatzak Udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio bete dezala eta betearaz dezala Donostian jabari eta erabilera publikoa ostalaritzarako hartzea arautzen duen ordenantza.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a cumplir, y hacer cumplir, la Ordenanza Reguladora de las ocupaciones de suelo de dominio público y uso público para la hostelería en Donostia / San Sebastián.

Sociedad Balneario La Perla del Océano SL sozietatearen Administrazio Kontseiluaren bilkuran galdetu genuen nola zegoen Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiarekin lortu beharreko baimenaren kontua (2018an amaitzen da baimen hori). Erantzun zitzaigun Udalak 7 hilabete daramatzala baldintzak negoziatzen, Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak espazio publikoari eman nahi dion erabilera inkilinoen interesen aurkakoa dela eta.

En la sesión del Consejo de Administración Sociedad Balneario La Perla Del Océano S.L. preguntamos cómo está el tema del permiso de Costas (permiso que finaliza en el 2018). Se nos respondió que el Ayuntamiento lleva siete meses negociando las condiciones, ya que la regulación del uso del espacio público que quiere hacer Costas entra en contradicción con los intereses de los inquilinos.

Apirileko batzordean, Ekonomia Bultzatzeko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko zinegotzi ordezkariak jakinarazi zigun Sustapena sozietatea bitartekari lanak egiten ari dela, ados jartzea oso zaila izaten ari dela eta. Horrez gain, esan zigun aste honetan proposamen bat egingo ziotela Itsasertzaren Zuzendaritzari, eta onartzea espero zutela.

En la comisión de abril el delegado de Impulso Económico, Hostelería y Turismo nos informó de que desde la Sociedad de Fomento se está haciendo una labor de intermediación ya que está siendo difícil llegar a un acuerdo. También nos dijo que esta semana se presentaría una propuesta a la Dirección de Costas y esperan que sea aprobada.

Horiek horrela direla, hauxe da zinegotzi honek egiten duen KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, es por lo que el concejal que suscribe formula la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari berma dezala Kosta Zerbitzuak eta Jabari publikoko lurzorua nola okupatu arautzen duen Udal Ordenantzak ezartzen dituzten legezko baldintzak beteko direla, alde horretako interes publikoaren alde eginez.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari Sustapena sozietatearen proposamenak kontuan har ditzala 2016ko arau-hausteak berriz ere ez gertatzeko neurriak. Itsasertzaren Zuzendaritzak 2016ko abuztuaren 26an egindako txostenean zehazten dira arau-hauste horiek: baranda ondoan 3 metro zabaleko tartea besaulki, mahai eta aulkiekin hartzea; terraza egunero garbitzeko erabilitako ura eta hondakinak zuzenean hondartzara isurtzea; sarbideak kartel, loreontzi eta abarrekin hartuta edukitzea; biltegiratzeko espazioak itxituraz inguratzea; bistak eragozten dituzten pantaila bisualak jartzea; eta terrazako elementuak zoladurari jostea.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

Olaia Duarte Lopez,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a garantizar el cumplimiento de las condiciones legalmente establecidas por el Servicio de Costas y la Ordenanza Municipal Reguladora de las ocupaciones de suelo de dominio público, velando por la defensa del interés público de la zona.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a que la propuesta realizada por la Sociedad de Fomento tenga en cuenta mecanismos para que no vuelvan a ocurrir los incumplimientos del 2016 (citados en informe de Costas del 26/08/2016), es decir: ocupación de la franja de tres metros de ancho, junto a la barandilla, con sillones, mesas y sillas; evacuación directa a la playa de las aguas y residuos procedentes de la limpieza diaria de las terrazas; ocupación de pasillos de acceso con carteles, maceteros; cerramientos de espacios destinados a almacén; instalación de elementos auxiliares no autorizados; pantallas visuales que impiden la permeabilidad de vistas y anclaje de elementos de la terraza al pavimento.

En Donostia a 12 de abril de 2017

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.2.31. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Gune Estaliak aztertu eta proposatzeko Batzorde Teknikoak egindako lana dela eta.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Udalbatzari, azter dezan, Gune Estaliak aztertu eta proposatzeko Batzorde Teknikoak egindako lana dela eta. Mozioa joan den apirilaren 10ean Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan ugaritu egin dira herritarrek gune estaliak eskatzeko egindako eskaerak. Izan ere, horrelako doako espazioen eskaria auzo elkarteen etengabeko eskaera bihurtzen ari da.

Eskaera horiei erantzuten ahalegintzeko, hainbat udal ekimen proposatu dira, eta gauzatu direnen artean Arrobitxuloko parkea dago, bai eta Harriako parkearen estalkia egiteko proiektua ere, aurtengo martxoan onartua. Dena dela, gure iritziz, kontua ez da eskaera horiei banaka erantzutea, baizik eta hiri osorako berariazko plan bat egiteko beharrari aurre egitea.

Ildo horretatik, 2015eko uztailaren 24an, lantalde bat sortzeko proposamena aurkeztu genuen, hiri osoko gune estalien beharrei erantzuteko proposamenak aztertu eta egin zitzan. Gobernu taldeari ez zitzaion egokia iruditu lantalde horren sorrera onartzea.

**II.2.2.31. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el trabajo realizado por la comisión técnica para el estudio y propuesta de espacios cubiertos.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre el trabajo realizado por la comisión técnica para el estudio y propuesta de espacios cubiertos. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 10 de abril.

JUSTIFICACIÓN

En los últimos años ha crecido la demanda ciudadana de espacios cubiertos. Efectivamente, la demanda de este tipo de espacios gratuitos cubiertos se está convirtiendo en una petición constante por parte de las asociaciones de vecinos y vecinas.

Para intentar satisfacer estas demandas, se han presentado varias iniciativas municipales, habiéndose materializado la del parque de Arrobitxulo; así como aprobado el proyecto de ejecución de la cubierta del parque de Harria en marzo del presente. Sin embargo, entendemos que, más allá de satisfacer de forma aislada estas demandas, se encuentra la necesidad de elaborar un plan específico para toda la ciudad.

En este sentido, el 24 de julio de 2015 presentamos la proposición de creación de un grupo de trabajo que estudiase y formulase propuestas que dieran respuesta a la necesidad de este tipo de espacios cubiertos en toda la ciudad. El equipo de gobierno no entendió oportuno admitir la creación del citado grupo de trabajo.

Ondoren, 2015eko irailean, Gune Estaliak aztertzeko eta proposatzeko Batzorde Ez-iraunkorra sortzeko proposamena aurkeztu genuen. Gure iritziz, batzorde horrek udal talde bakoitzeko ordezkari bat izan behar zuen, eta, noski, auzo elkarte guztien lankidetza eta parte hartze aktibora irekita egotea ere beharrezkoa iruditzen zitzaigun.

Posteriormente, en septiembre de 2015 presentamos la propuesta para la creación de una “Comisión no permanente para el estudio y propuesta de espacios cubiertos”. La citada Comisión estaría formada por una persona en representación de cada grupo municipal; estando lógicamente abierta a la colaboración y participación activa de las distintas asociaciones vecinales.

Herritarrek parte hartzeko foro ireki hori sortzeko guk egindako proposamenari Udal Gobernuak gai hori aztertzeko batzorde tekniko bat sortuta erantzun zion (Udaleko talde guztiak ez zeuden ordezkatuta lantalde horretan, eta auzo elkarteek ez zuten, gonbidatuta, joaterik).

En respuesta a la propuesta de creación de este foro abierto a la participación de la ciudadanía, se nos contestó por parte del gobierno con la creación de un grupo de trabajo técnico (sin presencia de todos los grupos del Ayuntamiento y sin asistencia, por invitación, de las asociaciones vecinales) que trabajaría en torno a la citada cuestión.

Argi dago erabaki horrek batzorde teknikoa egiten ari den lanari buruzko informazioaren eskuragarritasuna murrizten duela, eta, aurreikus daitekeenez, eskakizun maila txikiagoa ere badu batzorde horrek proposatutako lanak gauzatzeko hartutako konpromisoetan.

Obviamente, tal decisión está suponiendo un menor acceso a la información sobre el trabajo que se está realizando por dicho grupo técnico, y previsiblemente un menor grado de exigencia en cuanto a los compromisos a asumir en la ejecución de los mismos.

Hori ikusita, 2016ko uztailean interpelazio bat aurkeztu genuen gure ikuspegia adierazteko. Hala ere, bederatzi hilabete igaro diren arren, ez dugu inolako berririk batzorde tekniko horretan egiten ari diren lanari buruz: ez dakigu zer proiektu aztertu diren, ez eta zer kronograma onartu den ere proiektu horiek gauzatzeko.

A la vista de todo ello, en el mes de julio de 2016 presentamos una interpelación en este sentido. Sin embargo, a pesar de haber transcurrido nueve meses, no tenemos ninguna noticia de la labor que está desarrollando dicha comisión técnica, de cuáles son los proyectos que se han estudiado o del cronograma para afrontar los mismos.

Udal Gobernua horri buruz interpelatuta, Hirigintza Sostengagarriko eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak baieztatu zigun herri ekimena aurrea hartzen ari zitzaiola batzorde teknikoaren funtzionamenduari, eta onartu zuen azkenaldian ez zuela bilerarik egin. Jakina, ez dugu arazorik Udal Gobernuak auzokoen eskariei kasu egiteko, baina ezinbestekoa iruditzen zaigu hiriko auzo eta alde guztiak

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, el concejal delegado de Urbanismo Sostenible y Proyectos de Ciudad nos confirmó que “la iniciativa ciudadana se estaba adelantando al funcionamiento de la comisión técnica”; admitiéndose que últimamente no se había reunido. Evidentemente, no tenemos ningún problema en que por parte del Gobierno Municipal se atiendan las demandas vecinales que vayan

aztertzea, aisialdirako doako espazio estalien plan bat egiteko, zer aukera dauden aztertu ondoren.

surgiendo, pero consideramos imprescindible que se estudien todos los barrios y zonas de la ciudad, al objeto de elaborar un plan de espacios cubiertos de esparcimiento de uso gratuito; una vez estudiadas las distintas posibilidades.

Horiek hala direla, zinegotzi honek honako KONTROL MOZIO hau egiten du:

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala aurten aisialdirako doako espazio estalien plan bat, eta aurkeztu, eztabaidatu eta, hala badagokio, adostu dezala auzo elkarteekin eta udal talde politikoekin.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a elaborar, en el presente año, un plan de espacios cubiertos de esparcimiento de uso gratuito, así como a presentar, discutir y en su caso, acordar el mismo, con las asociaciones de vecinos y con los grupos políticos del Ayuntamiento.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari gero plangintza proposamen bat aurkez dezala, horiek pixkanaka jorratzeko edota gauzatzeko.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a presentar posteriormente una propuesta de planificación para ir abordando y/o ejecutando progresivamente los mismos.

Donostia, 2017ko apirilaren 12a

En Donostia a 12 de abril de 2017

Sin. Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU Udal Taldeko zinegotzia".

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del grupo municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (6) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (6) EH BILDU, (2) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ZAZPIETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECINUEVE HORAS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO: